



*Emakumeen eta  
gizonen  
berdintasunerako  
politikak bultzatzeko  
Nazioarteko  
Biltzarra*



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo de

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



---

*Emakumeen eta  
gizonen  
berdintasunerako  
politikak bultzatzeko  
Nazioarteko  
Biltzarra*

*Gogoetak eta estrategiak  
krisi, sare eta berrikuntzen  
testuinguruetan*

EMAKUNDE/  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Bilbo 2012

<b>IZENBURUA:</b>	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarra. "Gogoetak eta estrategiak krisi, sare eta berrikuntzen testuinguruetan"
<b>EDITOREA:</b>	EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea Manuel Iradier, 36. 01005. Vitoria-Gasteiz
<b>MAKETAZIOA:</b>	Estudio Gráfico Ugarte.
<b>DISEINU GRAFIKOA:</b>	Ana Badiola, Isabel Madinabeitia eta Ana Rincón
<b>DATA:</b>	2015eko Azaroa . Noviembre 2015
<b>DESKRIPTOREA:</b>	Berdintasunerako politikak, genero berdintasuna, ekonomia-krisia, feminismoa, mugimendu feminista, informazio-gizartea, sinposioak.
<b>ISBN:</b>	Liburuki guztiak: 978-84-608-5190-5 I. Liburukia: 978-84-608-5166-0

---

## AURKIBIDEA

### **AURKEZPENA** ..... 7

Izaskun Landaida Larizgoitia

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

### **INAUGURAZIOA** ..... 9

**‘Gogoetak eta estrategiak, krisi, sare eta berrikuntzen  
testuinguruetan’**.....11

María Silvestre Cabrera

**‘Genero-berdintasuna eta arriskuaren gizartea’**.....15

Virginia Maquieira

## **I. OSOKO BILERA: MUNDU GLOBALAREN ERRONKAK**

### **EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALDE EGITEKO**

Amaia Pérez Orozko .....21

Gloria Bonder.....34

Wassyla Tamzali.....58

## **II. OSOKO BILERA: ARAZO GLOBALEI BURUZKO**

### **IKUSPEGI DESBERDINAK: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ALDEKO PROPOSAMENAK**

Christine Epoluke .....72

Kate Lappin.....84

---

### **III. OSOKO BILERA: EUROPAKO BERDINTASUN- POLITIKAK ETA ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK**

Paola Villa.....	96
María Bustelo.....	116
José Ángel Lozoya.....	127

### **IV. OSOKO BILERA: MUGIMENDU FEMINISTA ETA EMAKUME-ELKARTEAK KRISIAREN AURREAN**

Begoña San José .....	144
Shams Abdi .....	159
Sua Fenoll.....	168
Teresa Maldonado.....	184

### **ITXIERA-HITZALDIA**

Marcela Lagarde.....	206
----------------------	-----

### **KONKLUSIOAK**

Arantxa Elizondo.....	224
-----------------------	-----

## Aurkezpena

Emakundek Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarra antolatu zuen 2012ko urrian; bertan izan ziren erakundeetako ordezkariak, hainbat eremutako administrazioetako arduradun eta teknikariak, unibertsitateko irakasleak eta aktibista feministak, Asiatik, Ipar Amerikatik, Hego Amerikatik, Afrikatik eta Europatik etorritakoak. Gogoeta egin zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politika publikoen bidez azken urteetan lortutako aurrerapenen inguruan, eta desberdintasunaren arazo orokorrari aurre egiteko proposamenak partekatu ziren.

Biltzarra aukera bat izan zen munduko hainbat lekutatik ekarritako esperientzien bidez berdintasuna sustatzeko, eta, halaber, sareak sendotzeko gunea izan zen, non, besteak beste, gai hauek planteatu baitziren: azken hamarkadetan izandako hainbat esperientzia zehatzen azterketa, erabilitako estrategien balorazioa eta horrek gizartean dituen eragin eta emaitzen balantzea.

Argitalpen honek biltzar hartako hitzaldiak eta komunikazioak biltzen ditu, eta sendotu egiten du gugan ideia hau: gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna, maila eta leku batean edo bestean agertuta ere, errealitate unibertsala da eta gizartean guztietan gertatzen da. I. tomoan euskaraz jasotzen dira hitzaldiak; II. tomoan, erdaraz jasotzen dira, eta III. tomoan komunikazioak jasotzen dira, bi hizkuntzatan.

Eskerrak ematen dizkiet biltzar hori posible egin zuten guztiei, eta espero dut argitalpen honetan biltzen diren hausnarketek balioko dutela gure gizartean berdintasunerantz joaten lagunduko diguten gakoak aurkitzen.



Izaskun Landaida Larizgoitia  
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria



---

**MARÍA SILVESTRE CABRERA**

**Emakunde-Emakumearen  
Euskal Erakundeko  
zuzendaria (2009-2012)**

*Inaugurazioa*



## “GOGOETAK ETA ESTRATEGIAK, KRISI, SARE ETA BERRIKUNTZEN TESTUINGURUETAN”

Egun on,

Ikusten duzueenez, abestuz eta dantzatzuz ere desmitifikatu daitezke generoari lotutako rolak, eta dauden genero-identitate guztiak jaso daitezke.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendari naizen aldetik, ongi etorria eman nahi dizuet Nazioarteko kongresu honetan parte hartuko duzuen guztiei: hizlariak, entzuleak, moderatzaileak, komunikazioren bat aurkeztu behar dutenak, teknikariak... Eskerrik asko guztioi, denoi esker egingo baitugu Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarra: “Gogoetak eta estrategiak krisi, sare eta berrikuntzen testuinguruetan”.

Ongi etorri.

Joan den astean Mexikon izan nintzen, Genero Estatistikei buruzko Mintegian. Badira hamahiru urte seminario hori egiten dela, Aguascalientes-en. Han nengoela, aukera izan nuen Lourdes Benería ekonomia-irakaslearen hitzaldi magistrala entzuteko, eta oso inspirazio-iturri handia izan zen niretzat; Lourdesi berari ere esan nion aipatu egingo nuela hitzaldi honetan. Bere izenean guztiok agurtzeko esan zidan, asko sentitzen zuela egun hauetan gure artean ez egotea. Esan eta egin.

Feminismoak neoliberalismoan izan zuen erakarpenaz hitz egin zuen Lourdes Beneriak: aldi neoliberallean agerian geratu da sistemak genero-berdintasunaren alderdi asko sustatu ditzakeela, baina beti gizarte-desberdintasun sakonek markatutako muga batzuen barruan.

Egiazkoa bezain kezagarria da herrialde garatu kapitalistetan, mugimendu feministak izandako lorpenekin batera, gizarte-desberdintasun handiak daudela, edo, are gehiago, desberdintasun horietan oinarrituta eraiki direla gizarte horiek. Gogoan

---

izan dezagun, esate baterako, gure gizarteak zaintza eta etxeko lanak bermatzeko antolatu duen estrategia: askotan, kanpoko bati esker mantentzen da etxea: oro har, emakumea izaten da, eta gure ingurune hurbilenean, immigrantea, zeinak gutxi ordaindutako lana egiten duen, behar bezala aitortu gabea, eta, askotan, erregularizatu gabea.

Herralde garatu deiturikoetan egun dugun ekonomia- eta finantza-krisiaren eraginez Estatuak ezartzen ari diren doitze- eta murrizte-neurriek ez dute laguntzen emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen, baina, horretaz gainera, areagotu egiten dituzte gizarte-desberdintasunak, arriskupean jartzen dute borroka eta aldarrikapen handien bidez lortutako gutzia, eta mugatu egiten dute gizarte- eta lan-eskubide batzuk baliatzea ere.

Gobernu gehienek luxuzko neurritzat jotzen dituzte berdintasunaren aldeko politikak, eta akats larria da hori. Baina berdintasun-politikak ez dira kudeaketa publikoan egiten diren alferrikako gastuak, nahitaezko inbertsioa baizik; egin beharreko ahalegin etikoa da, luzaroan eskatu ditugun giza eskubideak bermatuko baditugu.

Krisi ekonomikoari egun ematen zaion erantzunak ezegonkortasuna luzatu baino ez du egiten; hain zuzen ere, Guy Standing ekonomialari britaniarra "estatusunean eta ezegonkortasunean bizi direnez" mintzo da, ondo mintzo ere: gizarte-maila berri bat agertzen ari da, pobreenak ez ezik erdi mailakoen zati handi bat ere hartzen duena. Kontzeptu berri honen profil psikologikoa aztertuko bagenu, estatusunean eta ezegonkortasunean bizi direnen feminizatzeaz hitz egin genezake.

Non aurki ditzakegu krisialditik ateratzeko erreferenteak? Batzuek esaten digutenez, herralde latino-amerikarretara begiratu behar dugu: laurogeiko hamarkadako ekonomia- eta finantza-krisi itzeletatik ateratzea lortu zuten; bai, egia da, goraipatzekoak dira beren mugimendu sozialak eta eskualde osoan sareak sortu izana. Esate baterako, emakume-elkarteen sarea; izan ere sare horri esker, legeak emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko legeak sustatu ahal izan dira, bai sozialki, bai politikoki,

---

eta sexuan oinarritutako diskriminazio-egoerekiko kontzientzia duen ehun sozial eta politikoa eratu da. Baina gizarte horietan ere, oraindik ere, gizarte-desberdintasun ikaragarriak ikusten dira sarri, gordinki ikusi ere.

Munduari begiratzen badiogu, ezin dugu ahaztu emakumeen kontra gertatzen diren eraso larriak: hil egiten dituzte, bortxatu, harrikatu, genitalak mozten dizkiete, pozoitu egiten dituzte edo eskolara bidean tirokatu, Malalari gertatu bezala. Kultura edo erlijioa medio justifikatzen dituzte ekintza horiek.. Ez dugu etnozentrismoan erori behar; aitzitik, giza eskubideak mundu osoan eta oro har bete daitezen zaindu behar dugu. Ezin gaindituzko lerroa izan behar du horrek.

Badakit, ez dira berri onak: giza eskubideen urraketa dela, aldatzen ez diren gizarte-desberdintasunak direla, ezegonkortasun orokortua dela... Gainera, horrek guztiorrek kostu handiagoa dakarkie emakumeei. Baina egin beharra daukat, berri on bat ematera natorkizue: krisi-garaiak aukera dira, aldatzeko aukera. Horretarako, adi egon behar dugu, erne, zoli, beste gizarte-eredu bat sortu eta bultzatu behar dugu; gizarte-eredu horretan gizarte-antolaketa erantzukide bat bermatuko da, eta hortik eraikiko dira beste definizio sozial eta kultural batzuk: irekiak, eta aukera-berdintasunean eta hautaketa indibidualaren askatasun benetakoan eta erabatekoan oinarrituta emakume izaten, gizon izaten edo bakoitzak nahi duena izaten utziko dutenak.

Zaila? Bai, dudarik gabe. Baina iraultza bat ere ez da erraza izan; iraultza feminista ere ez da erraza izan: oraindik bukatu gabe dago, eta gure buruaz, gure inguruneaz eta gure harremanez beste era batera pentsatzen sortua da.

Pertsonak zorteko gara: bizitza osoa dugu ikasteko; sozializatu eta birsozializatu egiten gara; gure buruak deseraiki eta berriz ere eraiki egiten ditugu. Eraiki dezagun, beraz, beste gizarte modu bat: identitate berrietan oinarritua, hain zuzen ere, aniztasuna errespetatzen duten eta berdintasunaren alde egiten duten identitateetan oinarritua.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna errealitate unibertsala da, gizarte

---

guztietan gertatzen da, eta modu eta maila desberdinetan agertzen da; beraz, leku jakin batzuetan gizarte berdinzaleago batzuk lortzeko egin den bidea bultzada-emaile eta inspirazio-iturri da beste batzuentzat. Esperientziak trukatzeari ari gara, norabide guztietan trukatzeari: Latinoamerikatik Europara, Europatik Asiara, Afrikatik Latinoamerikara, eta alderantziz. Elkarrengandik ikasiz, sareak eta aliantzak sortuz, gure postulatuak indartzeko eta gure postulatuak defendatzen ditugun lekuetan indartsuagoak izateko. Izan ere, beti esan dezakegu ez gaudela bakarrik, emakume eta gizon asko daudela borrokan, aukera-berdintasunaren errealitatea eta printzipioak babesten.

Amaitzeko, Mexikoko topagunean entzundako bi esaldi aipatuko dizkizuet: “kopiatu daiteke” eta “entzuten badugu, ikasteko arriskua izango dugu”. Nahi nuke kongresu honek aukera ematea praktika on asko kopiatzeko, entzuteko eta ikasteko, eta, pertsona gisa hazteko, hots, gizarte berdinzaleago eta zuzenago bat lortzeko borrokatzen diren pertsona gisa hazteko; azken batean, osatu ditzagun denon ona nahi duten gizarteak, denontzako onaren bila etenik gabe eta —batzuetan— arriskuak hartuz dabilzan gizarteak.

Eskerrik asko. Kongresu honetan denok izan gaitzen irakasle eta ikasle. Eskerrik asko.

---

**VIRGINIA MAQUIEIRA**

**Gizarte Antropologiako  
irakasle titularra Madrileko  
Unibertsitate Autonomoan**

*Inaugurazioa*



## GENERO-BERDINTASUNA ETA ARRISKUAREN GIZARTEA

Azken aldian arriskuaren hizkuntza nagusitu da komunikabideetan, eguneroko solasaldietan, ekonomiari eta politikari buruzko analisietan, eta horrekin batera ziurgabetasuna, beldurra eta mesfidantza zabaldu dira. Zalantzarik gabe, sentimendu horiek gora egin dute egun bizi dugun finantzen eta ekonomiaren krisiaren ondorioz, baina bestelako une eta egoeretan ere hor daude edo egon dira. Horrek berretsi egiten du “arriskuaren gizartearen” teoriariek azken hamarkadetan kapitalismo berantiarreko gizartearen ezaugarritzat jotzen dutena, eta Ulrich Beck-ek Bigarren Modernitatea ere esaten diona. Urteotan egile askok egin dute bat lan eta ikerketa horiekin, baita ikuspegi horren norainokoari eta egokitasunari buruzko eztabaida kritikoekin ere.

Orokorrean, analisi eta ikerketa horietan genero-itsutasuna da nagusi. Horrela, emakumeek egungo gizartearen dinamikan duten esperientzia ikusezina da, eta horrekin batera baita genero-sistemen gaineko analisisian feminismoak egin dituen ekarpenak ere, hau da, genero-sistema botere- eta desberdintasun-sistema den neurrian egin diren azterketetan eskaini duen emari teorikoa eta politikoa. Sistema horiek ziurgabetasunaren aldakortasuna eta iraunkortasuna eraikitzen dute, eta baita emakumeen bizitzaren egiturazko arriskua ere. Beraz, kontuan hartu beharrekoak dira bizi garen munduan diren arriskuak eta aukerak aztertzerako orduan, eta are gehiago ongizatea, ekonomia, politika eta zientzia eraberritzea xede duten planteamenduen kasuan.

Horregatik, txosten honen bidez, ekarpen horietako batzuen norainokoa planteatu nahi da ikuspegi kritikotik abiatuta, eta era berean, ikuspegi feministatik izan ditzaketen berrirakurketak mahairatu. Ikuspegi hori landu duten lehentasunezko eremuak planteatuko dira, eta “arriskuaren gizartearen” deritzotenaren ezaugarri edota analisi -kategoria batzuk, ikerketa bultzatzen. Izan ere, ikerketa hori testuinguruan kokatzean, ezinbestean hartu behar dira kon-

---

tuan eguneroko bizitzako prozesuak eta gizarte-jarduerak, bai botere eta kontrollekoak eta baita erresistentzia eta aldaketaren ildokoak ere.

Zalantzas betetako garaiotan, arriskuaren gizartearen tesiek, gabeziak badituzte ere, etorkizunera zabaltzearen alde egiten dute, eta planteamendu berriak eskatzen dituzte mundu globalaren, elkarren mendekoaren eta arras desberdintasunezkoaren erronkei aurre egiteko. Xede berberak ditu feminismoak ere, eta horregatik merezi du eztabaida kritikoari eustea eta aldi berean emakumeen bizitzari eragiten dioten arrisku zaharrak eta berriak nabarmentzea, eta horrekin batera, Modernitate berriaren diseinuan genero-berdintasuna nahitaez lortu beharra azpimarratzea.

---

1. *Osoko bilera:*

*mundu*

*globalaren*

*erronkari*

*emakumeen eta*

*gizonen*

*berdintasunaren*

*alde egiteko*



---

**AMAIA PÉREZ OROZCO**  
**Ekonomialari feminista**

*Lainketen*  
*ekonomia eta*  
*beherapena*  
*alternatiba*  
*gisa*



---

Egun on guztioi eta eskerrik asko zuekin krisiaren analisi multidimentsional hau partekatzeko eman didazuen aukeragatik. Nire mintzaldian krisi honen dimentsio ekonomikoei buruzko xehetasun labur batzuk emango ditut, zibilizazioaren eta sistemaren krisi gisa kalifikatu dezakeguna, proiektu modernizatuaren osoaren krisi gisa, alegia. Ekonomia feministak dakarren proposamen nagusiak krisia merkatu-prozesuetatik ez behatzea planteatzen du, finantza-merkatuetan gertatzen denari arreta berezia eskainiz, eta hura bizitzaren jasangarritasunetik behatzea, pertsonen premia materialak eta afektiboak asetzeko prozesuak nola gertatzen –edo eragozten– ari diren hausnartzuz. Hori apustu analitiko eta politiko bikoitza da, zer gertatzen ari den ulertzeko nahiz alternatibak proposatzeko balio duena. Bertan feminismoak eta ekologismoa elkartzen dira, eta giza bizitzaren nahiz gizatiarra ez denaren zatiezintasuna jartzen da erdi-erdian. Hortik jaiotzen da, hain zuzen, beherapenez hitz egitearen –ekologismo sozialetik sortutako proposamen politikoa– eta zaintzak erdialdean izango dituen sistema sozioekonomiko bat eraikitzearen aldeko apustu bikoitza, horiek oinarrizko erreferentzia-puntu gisa hartuz. Hori feminismoaren proposamen politiko bat da.

## 1. *Krisi multidimentsionala bizitzaren jasangarritasunetik aztertuta*

Bizitzaren jasangarritasunetik aztertuta, krisia 2007ko finantza-eztandaren eraginez hasi ez zela baieztatu dezakegu; hura lehendik zetorren, eta hainbat ikuspegitatik ari ginen salatzen. Bizi-prozesuen krisi bat zen, oso larria. Hark krisi ekologiko global sakon bat hartzen zuen barne, biodibertsitatea, klima-aldaketa eta baliabide naturalen agortzea kolapsatuz. Hegoalde Globalean erreproduktzio sozialaren hainbat krisialdi antzematen ziren

---

dagoeneko. Kontzeptu zabal horrekin zera esan nahi genuen, pertsonen erreprodukzio materialaren itxaropenak asetzeko prozesuak guztiz porrot egin zuela, intentsitate desberdinetan izan arren: batzuetan oso modu larrian –adibidez, elikadura-krisien eta goseteen kasuan–, eta beste batzuetan ez horren modu larrian –hezkuntza, osasuna, etxebizitza eta abar eskuratzeko gaitasunik eza–. Iparralde Globalean gauzak zertxobait hobeto zihoazela zirudien merkatuen ikuspuntutik, baina han ere krisi sozioekonomiko larriak bizi genituen. Honako bi hauek bai behintzat: batetik, osasunaren krisia. Gorputzak eraikitako gizarte-motarekin eta bizi-metodoekin lotutako gaixotasunak jasaten ari ziren, eta horiek neurritz kanpo eragiten zieten emakumeei, hori ikusi nahi ez arren. Eta bestetik, zaintzen krisia. Ongizate fisikoaren eta emozionalaren eguneroko birsorkuntzarekin loturiko bizitzaren funtsezko dimentsio hori airean zegoen. Hemen, “lan” eta “familia” arloko bizitzak bateragarri egiteko zailtasunak agertu ziren, baita menpekotasunaren zaintzari dagokionez ere. Zailtasun horiek argi eta garbi mahaigaineratu zuten, emakumeak lekuz aldatzean, sistema osoa goitik behera mugitu zela, eta mota horretako gizarte batean, bizitza zaintzea ia ezinezko bihurtzen zela.

Hori guztia krisi gisa aitortzeko borrokatzen ari ginen. Borrokaren helburua ez zen hitza bera, hura definitzea baizik: zein da sozialki konpondu nahi dugun arazoa? Hau da, krisiaz galdetzean, zein arazori erantzun behar diogu? Bizitzaren jasangarritasunaren ikuspegitik, sistemarekin berarekin lotutako arazo asko genituela baieztatzen genuen.

Horretan ari ginen finantza-eztanda gertatu zenean, egoerak berehala eta inolako eztabaidarik gabe “krisi” izena hartu zuenean. Nolanahi ere, hasiera batean finantza-merkatuen pilaketa-prozesuen porrota izan zen, baina ez bizitza-prozesuen porrota. Zentzu horretan, ez zen “krisi” (bizitzarena) bat. Finantza-eztandari emandako erantzun politikoak, oster, bizi-prozesuen porrota eragin zuen, irabazi-tasak berreskuratzeko oso modu larrian egin baitzitzairen eraso herritarren bizi-baldintzei. Baliabide publiko ugari xedatu ziren bankuak


Crisis sistémica y multidimensionalà precedía al 2007, agravamiento



erreskatatzera, baliabide horiek beste esparru batzuei kenduz, hala nola, osasunari, hezkuntzari, zaintzen sistemari, garapen-lankidetzari, berdintasun-politikei eta abarrei. Hori dela-eta, kapitalaren arriskuak sozializatu ziren bizitzaren arriskuak pribatizatzearen eta indibidualizatzearen truke. Horrek are gehiago sakondu zituen lehendik zetozen krisiak: ekologikoa, zaintzena eta osasunarena. Are gehiago, erreproduzio sozialaren krisia abiarazi da krisi horretatik salbu zeudela uste genuen munduko beste leku batzuetan ere. Luze eztabaidatu genezake Iparralde globaleko erreproduzio sozialaren krisi horren inguruan, baina gutxienez hiru ezaugarri adierazi behar ditugu: lehenik eta behin, gora egiten dute bizitzako ezegonkortasun-egoerek –ez lan arloan bakarrik, bizitzako eginkizunen esparruan baizik, horiek zalantzarri bihurtzen baitira–. Bizi nahi den bizitza aurrera eramán ahal izateko arriskua orokortzen da, hura edozein momentutan porrotegin dezaketen kanpo-faktoreen menpe uzten baita. Bigarrenik, eta ezegonkortasunetik haratago, oinarritzko premiak estaltzeko ezintasun-egoerak orokortzen dira. Gero eta kolektibo eta subjektu gehiagok ematen dute ezegonkortasun-egoeratik bazterkeria-egoerara dagoen saltoa. Eta hirugarrenik, izugarri areagotzen dira gizarte-desberdintasunak, hipersegmentazio sozialeko prozesu bat gertatzen baita.


Lehendik zetorren krisia are sakonagoa da orain, finantza-merkatuetako pilaketa-prozesuen porrotari eman zaion erantzun politikoa dela eta. Egoera honen aurrean, lehen egiten ari ginen analisi sistematikoaren haria hartu behar dugu berriz ere. **Hazkundearen eta ekoizpenaren aldeko apustuaren kritikak, ekologismoaren eta feminismoaren aldetik**

Ikus dezagun, labor-labor, ekonomiaren ohiko ikuspegitik zer kritikatzin dugun. Haren arabera, sistema ekonomikoa aberastasuna sortzeko zirkuitu itxi bat da, eta bertan, enpresek ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituzte, eta familiak horiei esker bizi dira gainera. Horren truke, horiek merkatuan lan egin behar dute soldata irabazi eta ondasun eta zerbitzu horiek erosteko. Optika horren arabera, hobekuntzak merkataritza-esparru horren hazkundearekin eta merkatuko ondasun eta zerbitzu gehiagoren gero eta ekoizpen handiagoarekin du zerikusia, kontsumoa areagotzearekin, alegia. Ekoizpen-esparruetan haztea da sozietateen leit motiv delakoa. Gure bizitzak enpresen egoeraren araberrakoa dira: pilaketa-sistemek huts eginez gero, gauza bera gertatzen zaigu zirkuitu sozialei ere.




Ikuspegi horri bi kritika egin zaizkio funtsean: bat ekologismo sozialaren ikuspegitik eta bestea feminismoaren ikuspegitik. Ekologismo sozialak ekoizpena existitzen ez dela berresten du. Sistema sozioekonomikoa azpistema ire-

kia da, planeta itxi baten barnean. Ez dugu ezer ekoizten, lehendik zeuden materialak atera eta eraldatzeko energia erabiltzen baitugu. Materialak eta energia mugatuak dira: planetak ez du materialik trukutzen kanpoaldearekin, eta iristen zaigun energia bakarra eguzki-energia da, eta hura egiten dugun energia-kontsumoa baino askoz txikiagoa da. Prozesu horrek energia degradatuaren isurpena eta hondakinen sorkuntza eragiten du, eta horiek ere ez dira planetatik irteten, haren hobietan xurgatuz. Hondakinak erauzi, eraldatu eta sortzen ditugu, baina ez dugu ekoizten. Aberastasunaren ekoizpen mugagabearen sinesmena kasu batean bakarrik da egingarria, ustezko aberastasun baten pilaketaren neurketa artifizial batean oinarritzen dena: dirua, pilatzeko bitarteko gisa. Hazten ari garela dirudi, gero eta diru gehiago baitago, baina dirua adostasun sozial bat besterik ez da, hau da, gezur kolektibo bat. Bestalde, ekoizpenaren fikzio horrek mugen arazotik ihes egitea ahalbidetzen digu. Planeta mugatua da, energia eta materialak mugatuak dira eta agortu egiten dira, eta planetako hobiak ere bete egiten dira. Mugaz haraindiko etapa batean gaude, eta oro har, planetaren aurrezkietatik bizi gara, baina munduko biztanleriaren zati txiki bat beste alderdi handi bati dagokion planeta-zatiaz bizi gara. Horrek austeritate eta birbanaketa esparru bat ezartzen digu, mugarik gabeko ekoizpenaren eta hazkundearen ideiarri muga fisiko sendoak jarritz.



Feminismoetatik, ekoizpenarekiko eta hazkundearekiko kritika honako ideia honetatik abiatzen da: zirkuitu itxi hori ikusezin bihurtu den esparru ekonomiko batean oinarritzen da, zaintzen ekonomian, hain zuzen. Ezkutuko esparru horri izen ugari eman diezazkiokegu: ordaindu gabeko lanak, erreprodukzioa... Zaintzen terminoa erabiltzen dugunean ez dugu egoera jakin batzuen zaintza-jarduera zehatzez bakarrik hitz egiten –mendekotasunaren zaintzez, adibidez–, bizitza jasangarri bihurtzeko merkatuek eta Estatuak egiten ez duten guztia egiten ari diren lan- eta jarduera-multzo amorfoaz baizik. Bizitzak aurrera egitea ahalbidetzen duen merkatuak baino gertuago dagoen zerbaitez hitz egiten ari gara. Osasun-kostuak txikiagotzeko ospitalizazio-egunak murrizten badira, gaixoa etxean zaintzen da. Eskola-laguntzako eskolak murrizten badira, laguntza hori etxean eskaintzen da. Hondakinen hiri-kudeaketarik ez badago, zaborra etxeko patioan bertan erretzen da. Ura kanalizatzen ez bada, etxean antolatzen gara ur bila iturrira joateko... bizitzak aurrera jarraitzea ahalbidetzen duten jarduera guztiak dira.



Hori da ekoizpenaren ezkutuko beste alderdia: erreprodukzioa, hura gabe ez bailitzateke merkatura joateko jenderik egongo. Hausnarketa horietatik

---

abiatuta, pertsonak merkatuetan oinarritzen ez gara baiezatu dezakegu, horiek etxebizitzetako bizitza sostengatzearen menpekoak baitira. Horren azpian oinarritzko ideia bat dago: kapitalaren pilaketa-prozesuen eta bizi-jasangarritasunaren arteko egiturazko arazoa. Arazo hori erraz hautematen da zaintzen esparrutik. Lan-merkatuak norberaren zaintzarik behar ez duten eta beste inor zaintzeko erantzukizunik ez duten pertsonak bilatzen ditu, hau da, merkatuan txertatzeko eta enpresaren premiei erantzuteko prest dauden pertsonak. Hori da, hain zuzen, txanpiñoi-langilearen irudia, ezerezetik agertzen dena eta, fabrika edo bulegoa ixten denean, desagertu eta inora joaten ez dena; bizitzeko behar duen guztia merkatuan aurkitzen du. Halere, enpresan dagoen bitartean gauzatzen ez dituen zaintza-eginkizunetaz eta biztanleria osoaren zaintza-eginkizunetaz arduratzen diren beste pertsona batzuk daudelako bakarrik existitzen da langile-mota hori, txanpiñoi-langilearenak berarenak barne: etorkizunekoak (txikiak diren bitartean zaintzea), gaixotzen diren eta zahartzen diren zaintzetan arduratzen direnak. Enpresaren eta bizitzaren premiak kontraesankorrak dira. Onenera ere, merkatu-prozesuentzat beste xede bat lortzeko bitartekoa besterik ez da bizitza, pilatzeko bitarteko bat, alegia. Beste batzuetan askoz errentagarriagoa izaten da bizitza suntsitzea hura sortzea baino. Merkatuen pilaketa-logikan oinarrituta bakarrik ulertu daiteke elikagaiak esportatzen dituzten herrialdeetako goseteak.

Bizitzaren eta pilaketaren arteko tentsioa latente dago beti. Galdera honako hau da: bi prozesu horietatik zein aukeratzen dugu kolektibo gisa? Galdera horren aurrean, merkatu kapitalistak epizentroan jarri ditugun gizarteetan bizi gara baiezatu dezakegu. Merkatu-pilaketaren logika jarraitzen dugu zer, nola eta zenbat ekoitzi, denborak eta espazioak nola antolatu, eta abar erabakitzeko orduan. Krisiaren eraginez, orain inoiz baino argiago ikusten da hori. Pilaketa-prozesuak porrot egin du eta Estatuak prozesu hori berreskuratu nahi du, bizitzaren aurka eraso eginez.

Baina bizitzak aurrera jarraitu behar du. Gizarte gisa pilaketa-prozesua ber-

---

matzearen erantzukizuna hartzen badugu, nor arduratuko da bizi-arriskuak kudeatzeaz eta bizitza sostengatzeaz? Erantzukizun hori pribatizatuta dago, etxeetan, eta ez egitura kolektiboen bitartez kudeatuta. Ardura hori emakume egin da, emakumeei esleitzen baitzaie zaintzaren etika erreakzionarioaren bitartez; gainera, besteen ongizatea bermatuz emakume (on) bihurtzen zara, norberaren bizitzaren kontura bada ere. Eginkizun hori ikusezin bihurtu da. Ez dugu lan gisa hartzen, ezta ekonomia gisa ere; ezkutuan uzten dugu, azkenean, hori ezkututzeak egiturazko tentsio hori ebazten ari den lekua ez ikustea ahalbidetzen baitigu. Nola onartu dezakegu bizitza mehatxatuta dagoen sistema batean bizitzea? Zergatik dago pilaketa-prozesuen eta gutxi batzuen bizitzaren zerbitzura jarrita? Ikusten ez dugulako onartzen dugu hori. Gatazkaren aurrean begiak ixtea eta politikarik ez egitea aukeratzen dugu.

2.

## *Bizitza erdialdean: zer bizitza eta nola? Beherapen feminista*

Bi ikuspuntu horietatik, helburu sozialak ezin du, inola ere, hazkundera eta ekoizpena berreskuratzea izan. Ez dugu sistema hierarkiko batean txertatzeko aukera-berdintasuna bilatzen, horretarako, ezkutuko subjektuak eta langileak behar baitira, horiek lehenesten ez diren oinarritzko premiei erantzuteko.

Zein helbururen aldeko apustua egin behar dugu? Bizitzaren jasangarritasuna erdialdean jarri behar dugu. Horrek aldi berean bi galdera egitea bultzatzen gaitu, horietako bat bera ere ezkutatu gabe. Lehenik eta behin: Zein bizitzaz hitz egiten ari gara? Zein da bizitzea merezi duen bizitza? Etengabe lan-merkatuan egoteko odolusten den hori? Lan-merezimenduen bidez errealizatuta sentiarazten zaituen hori? Edo senitartekoak zaintzeagatik bere

buruaz ahazten den ama sakrifikatuarena? Bizitzea merezi duen bizitzaren kontzeptua sistema maltzur horretan oinarrituta dago. Bizitzea merezi duen bizitzaren nozioa birplanteatu behar dugu. Bigarren galdera honako hau da: Zein egitura erabiliko ditugu bizitzea merezi duen bizitza hori kudeatzeko? Zentzu horretan, hiru baldintza azpimarratu behar dira. Lehenik eta behin, bizitza sostengatzearen erantzukizunak kolektiboa izan behar du. Une honetan, erantzukizun hori pribatizatuta, emakumetuta eta ezkutatuta dago. Horrexegatik, kolektiboen esku utzi eta demokratizatu egin behar dugu. Bigarrenik, ongi bizitzeak unibertsaltasun- eta singularitasun-terminoetan bizitzea esan nahi du. Biztanleriaren zati batek ezin du beste zatiaren truke bizitu. Era berean, ongi bizitzearen ideiak oso desberdinak izan daitezkeela aitortu behar da. Desberdintasunak errespetatu behar dira. Eta hirugarrenik, benetan eskura ditugun materia- eta energia-fluxuetara mugatu behar dugu, planetaren muga fisikoak aintzat hartuta.



Objetivo: ¿ igualdad para insertarse en el ámbito de la producción?

ABRIR DOS PREGUNTAS

¿QUÉ VIDA?

¿Qué es una vida que merece la pena ser sostenida?


¿CÓMO?

¿Cómo poner sus condiciones de posibilidad?

- Responsabilidad colectiva
- En términos de universalidad y singularidad
- Con los flujos materiales y energéticos realmente disponibles

Bi galdera horiei dagokienez, eta horiek aldi berean jorratuz, hainbat esparrutan lan egiten ari garela esan behar da; dena den, beharpenaren proposamena eta zaintzen ekonomia erdialdean jartzen duen proposamen feminista mahaigaineratu nahiko nuke.

Beharpenaren proposamenari dagokionez, merezi duen bizitzaren kritikak zera dio, ongi bizitzeak ez duela merkataritza-kontsumoaren mugarik gabeko gehikuntza esan nahi. Ongi bizitzea beste zerbaite da. Eta orduan, zer da ongi bizitzea? Feminismoen aldetik, ongi bizitzeari dagokionez izan ohi dugun nozioak buruaskitasunari erantzuten diola esan dezakegu, norbakoak merkatuan txertatuz, merkatuko kontsumoaren eta enpleguaren bitartez. Pentsioen pribatizazioaren eta beste arlo askoren azpian kokatzen den buruaskitasunaren ideia hori merkatuan dauden ustezko subjektu buruaski horiek sostengatzen dituzten lan guztiak ezkutatuta bakarrik sostengatzen da. Buruaskitasunak ezkutatu egiten du bizitza zaugarria dela eta, zaintzen ez bada, aurrera ateratzen ez dela. Horrez gain, bizitzaren zaintza denon artean gauzatu behar dela diogu. Independentek gara, etengabe eman eta jasotzen dugu. Gaur egun, ezkutuan uzten ditugun fluxu asko daude, eta elkarrekiko menpekotasuna ustiapen-terminoetan ebazten da. Hortik abiatuta, hainbat galdera bururatzen zaizkigu: nola ulertu bizitza buruaskitasun maskulintuari uko eginez, autonomiaren aldeko apustua eginez (feminismoaren eskaera utziezina), baina ezinbestekoa den elkarrekiko menpekotasuna aitortuz?



Beharpenaren aldeko apustuak, bizitza sostengatzeko moduari dagokionez, behera egitea esan nahi du: pilaketa-logikaren esparruetan gertatzen diren prozesuak murriztea. Merkatu kapitalistaren esparruak murriztea, eta materialen eta energiaren kontsumoa murriztea. Feminismoen aldetik, zentzu horretan gutxiagotu behar dela esango genuke, baina, non eta nola kudeatzen dugu bizitza? Gure apustua erantzukizun kolektibo bat eraikitzea izango litzateke, eta ez zaintzei dagokienez bakarrik (ezinbestekoa da horiek sozializatzea), bizitza sostengatzen duten eta merkatuaren bidegabekeriak konpontzen dituzten jardura guztiei dagokienez baizik. Pilaketaren logikatik mugitutako eremuetako baliabideak kentzea izango litzateke gure proposamena (baditugu horretarako tresna politikoak, hala nola, zerga-erreforma, zorraren kontu-ikuskapena, zerga-iruzurraren aurkako borroka, eta abar), horrela, horiek bizitza sostengatzearen erantzukizuna kolektibo egiten duten eta hura benetan demokratizatzen duten beste erakunde batzuetan zirkulatzen hasi daitezten. Ez dugu etxeetan bizitza ikusezin mantendu dadila nahi. Horretarako, beste formula sozioekonomiko batzuk eraiki behar dira elkarrekikotasun-ideia horren inguruan, etxeak eta etxebizitzak demokratizatuz. Etxebizitzak egitura antidemokratiko gisa hartzen dituen eztabaida erdi-erdian jarri behar den eztabaida ekonomiko bat da. Hemen, harri nagusietako bat zaintza-eskubidearen ideia izango litzateke, zaintza hura jasotzeko nahiz zaindu nahi den edo ez erabakitzeke eskubide multidimentsional bat baita, elkarrekiko menpekotasunari dagozkion terminoetan. Hori guztia ikuspegi global batetik planteatu behar dugu. Horrenbestez, Europako feminismoak ezin du bere burua erreferentetzat hartu eskubide- eta askatasun-terminoetan, hegoaldeko globalekoekin etengabe lotuta egon behar baitugu. Gertatzen zaigunaren esperientziak ulertzeko, munduko beste leku batzuetan duela hogeitaz edo hogeitaz hamar urte gertatutakoa aztertu behar da, gaur hemen abian jartzen ari direnen antzeko programa neoliberalak ezarri baitziren horietan.

Aldaketa geldiezin da, saihestezina. Justizian eta zuzentasunean oinarrituta, edo merkatu libreko irizpideen arabera gobernatu nahi dugun erabaki behar dugu, hori da kontua. Horretan gaude. Eskerrik asko.

---

**GLORIA BONDER**

**FLACSOko (Argentina)  
Genero, Gizarte eta  
Politika Arloko  
zuzendaria**

*Informazioaren*

*eta Jakintzaren*

*Gizartearen sorrera:*

*erosotasunetik*

*jabetze*

*transformatzailerara*



## *Jarrera*

Azken hamarkadetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) etengabeko berrikuntza eta barneratzea planetako eskualde guztietan garai-aldaketa bat nola eragiten ari den deskribatzen eta azaltzen saiatzen diren azterlan, hitzaldi, txosten eta aitorten ugari egin dira.

Planteamendu horietako askotan adierazten den moduan, IKTek, eta bereziki Internetek, funtsezko eginkizun bat betetzen dute gizarteen ekonomia, gizarte eta kultura arloko garapenari, latitude desberdinetako pertsonen adierazpen-eta komunikazio-aukeren mugarik gabeko zabalkuntzari, eta informazioa, berrikuntza eta, batzuetan, ezaguera berriak eskuratzeari dagokienez.

Jarrera “tekno-euforiko” edo “utopiko” horietatik, IKTak ekonomia eta gizarte arloko arazoak konpontzeko tresna ahalguztidun gisa hartzen dira, indarrean diren garapen-ereduek ebatzi ahal izan ez dituztenak. Pobrezia gainditzeko eta kontingente pribatu askok ondasun ekonomiko, kultural eta sinboliko batzuk eskuratzeko dituzten zailtasunei aurre egiteko arazoaz ari naiz, hain zuzen.

Halere, baieztapen hori zalantzan jarri izan da eta zalantzan jartzen da oraindik ere, hark duen gizarte-aldaketekiko ikuspegi teknizista eta deterministagatik bereziki; izan ere, aldaketa horiek oso ekimen desberdinen ekarpena behar dute, oso konplexuak izateaz gain.

Horrenbestez, IKTak ez dira gizarte-sektore guztietako gizon eta emakumeen eskubide-berdintasuna lortzeko eta horien ahalduntzea eta erabateko partaidetza bermatu ahal izateko baliabideak eskuratzeko “errezeta magikoa”, eta ez dute ahots, iritzi eta proposamen eraldatzaile guztiei irekitako agora birtualaren promesa betetzen.

---

IKTen ikuspegi fetixista hori arazo bihurtzeak ez du esan nahi beste muturreko alderdi "tekno-pesimistan" edo "distopikoan" erori behar denik; izan ere, IKTek kultura- eta hizkuntza-aniztasuna suntsiarazten dutela, ikaskuntzarako beharrezkoak diren prozesu kognitibo, afektibo, lotesle eta emozionalei eragiten dietela, desberdintasun atzeraezinak sortzen dituztela, eta haur eta gazteen harremanetan eta jarreretan modu negatiboan eragiten dutela ulertzen du ikuspegi horrek.

Zentzu horretan, IKTen ia latitude guztietako hedapena gero eta kontsumitzaile gehiagorengana iristeko premia eta helburua duen industria gero eta zabala-go baten interesekin hertsiki loturik dagoen prozesu bat da, gure ustez. Dena den, IKTen hedapen-ondorioekin gertatuko dena beste faktore batzuekin loturik dago: batetik, eskualde, nazio eta tokiko ekonomia eta gizarte arloko erabaki politikoak ditugu, eta bestetik, IKTen erabiltzaileek ingurune digitaletan herritar gisa dituzten eskubide eta erantzukizunen kontzientzia hartu behar dute.

Dokumentu honen bitartez, IKTak definitzearen garrantziari buruz hausnartuko dugu lehenik eta behin; horrez gain, haren hedapena osatzen joan den gizarte-paradigma berriaren ezaugarriak zehaztuko ditugu. Fenomeno horrek eragindako aldaketen konplexutasunean barneratzeaz gain, gizon eta emakumeak ingurune horietan nola txertatuta dauden ulertzeko eta horien erabateko parte-hartze aktiboa, sortzailea eta proposamen-egilea lortzeko aukerak ulertzeko pistak eskainiko dizkigu karakterizazio horrek.

Gero, emakumeek sare sozialetan duten ustezko protagonismoa aztertuko dugu, betiere horiek pertsonen arteko eremu estrategikoak direla, eta bereziki, dinamika eta gizarte, herritar eta politika arloko loturak sortzeko eremu estrategikoak direla kontuan hartuta.

Azkenik, zenbait hausnarketa partekatuko ditugu emakumeek ingurune horietan parte har dezatela lortzeko estrategiak ikusteko, eta ez etorkizuneko

---

munduaren bertsio bateko "gonbidatu" gisa, beren ideien eta eraikuntzaren protagonista gisa baizik.

## 1. *Informazioaren Gizartea edo Jakintzaren Gizartea: hori al da kontua?*

Hasieran adierazi dugun moduan, IKTen teilkatzea eta Informazioaren Gizartean edo Jakintzaren Gizartearen sorrera ukazina da, eta dokumentu batzuetan, horiek sinonimo gisa erabili izan dira, modu okerrean, noski. Hortik esanahiak eta ondorioak argitu beharra.

Lehenik eta behin, IKTak garapen zientifiko eta teknologikoaren bilakaera "naturalik" datozen tresnak ez direla esango dugu. McKenzie eta Wajcman-en hitzetan:

Teknologia aldatu bakarrik egiten dela barne hartzen duen ikuspegiak, zientziaren garapenarekin batera nahiz bakarrik, aldaketa teknologikoarekiko jarrera pasiboa sustatzen du. Aldaketa horri nola egokitzen garen azpimarratzera behartzen gaitu, hura nola bideratu edo hari nola forma eman galdetu beharrean<sup>1</sup>.

Jarrera horiek nolabaiteko ikuspegi "fetixista" pizten dute, eta IKTei beren kabuz errealitatearen eremu guztietan funtsezko aldaketak eragiteko gaitasuna esleitzen diete; jakintza bihurtzen den informazioa igortzeko ahalmenak –bitartekorik

---

(1) MCKENZIE D Y WAJCMAN J. (1999). Introductory essay: the social shaping of technology. In McKenzie D and Wajcman J. *The Social Shaping of Technology* (2nd ed) Berkshire: Open University Press.

---

gabe- eta ordena sozial eta politiko inklusibo eta horizontal bat sortzeko potentzialak alde batera uzten dituzte horiek gizartean duten eragina ulertzeko alderdi gakoak.

Hori dela-eta, ICTak ingurune berri baten euskarri eta dinamizatzaile gisa ulertzea proposatzen dugu, esparru sozial, ekonomiko, kultural eta partaidetza herritar eta politikoan elkarrekintza berriak sortzen diren ingurune batean.

Daniel Cabreraren hitzetan, ICTak "alegiazko matrizeen esparruan lortu nahi diren eta lortu daitezkeen errealitate gisa sortzen diren gailu, hitzaldi eta erakundeen multzo heterogeneoa dira<sup>2</sup>; horiek gaur egungo ordena soziala legitimatu dezakete, eraldatzeko premiak bideratuko dituen dimentsio utopiko bat eskaintzeaz gain"<sup>3</sup>.

Illo berean mantentzen da Shila Vilker ere. Haren arabera, sarea "ez da bitarteko bat, ez da euskarri bat, eta hori horrela da, biztanleak erabiltzaile gisa definitzen badira ere".<sup>4</sup> Internet eta ICTak jarrerak nahiz sentitzeko, hautemateko, ezagutzeko edo pertsonekin harremanetan jartzeko modu berriak moldatzeko gai dira, eta beraz, "ingurune" berri bat bihurtu dira. Hala, "mota askotako ilusioekin berregiten du mundua: hautazko afinitateena, nahitako kooperazio sutsuarena, indartutako berezitasunena, hau da: komunitatea eta konfiantza sortzen ditu berriz ere, baita berezitasuna bera ere".

---

(2) Haren definizioan, "alegiazko" kontzeptua irudimenarekin eta ahalmen sortzailearekin lotzen da, subjektibotasuna nahiz gizarte-eremua sortzen dituen, ordezkapen, afektu eta desioen bidez sortua (Cabrera Daniel, 2004).

(3) CABRERA, Daniel (2006): "Lo tecnológico y lo imaginario. Nuevas tecnologías como creencias y esperanzas colectivas. Biblos Arg. Buenos Aires.

(4) VILKER, Shila: La red como un ambiente. Comunidad, libertad, seguridad y sus anversos. Artefacto aldizkaria. Pensamiento sobre la técnica.

---

Definizio horiek aztertu ostean, botere-harremanak ingurune horietatik kanpo geratzen ez direla baieztatu dezakegu, alderdi horiek jabetza intelektualarekin, informazioaren eta datuen erabilerarekin, horien eginkizun ekonomiko, politiko, ideologiko, hezitzaile eta sozializatailearekin lotuta baitaude; gainera, gobernuak, kooperazio-erakundeak, sektore pribatua, akademikoa eta sozietate zibileko erakundeak interpelatzeko dituzten ekintza publikoaren eta politiken premiazko gai bihurtu dira bizitzaren esparru bakoitzean eragiten dituzten ondorio horiek.

Beste ikuspegi ulerkorrago batzuek IKTak "Informazioaren Gizartea", "Jakintzaren Gizartea", "Ezagutzaren Ekonomia", "Gizarte Sarea" eraikitzeke esparruan aztertzea proposatzen dute.

Duela urte batzuk ohartarazten hasi ginen bezala, izendapen horietako bakoitzak pentsamendu-ildo bati erantzuten dio, errealitatearen aurpegi zehatz batzuk mugatzen ditu, eta beste batzuk ezkututzen edo txikiagotzen ditu, askotan bereizi gabe erabili edo elkarrekin lotzen badira ere; horiek bizi garen testuinguruetako interpretazio-ezaugarri eta -gakoei dagokien hegemoniaren eraginez eztabaidatzen dute, horien orainaldia deskribatuz eta etorkizuna aurreratuz<sup>5</sup>.

Momentura arte, "Informazioaren Gizartea" eta "Jakintzaren Informazioa" nozioak<sup>6</sup> izan dira hedatuenak, eta aldi berean, eztabaidatuenak.

---

(5) BONDER, Gloria (2008): *Innovar para la Igualdad: Las mujeres en la construcción de la Sociedad del Conocimiento*. "Berdintasuna Berrikuntzan, Berrikuntza Berdintasunerako" SARE Nazioarteko Kongresurako prestatutako lana. Espainia.

(6) Gai honetan aitzindaria den Manuel Castells jaunaren hitzetan, honako hau esan nahi du Jakintzaren Gizartek: "(...) informazioaren prozesamenduan, jakintzaren sorkuntzan eta informazio-teknologietan oinarritutako teknologiaren iraultza dela-eta, jakintza sortu eta informazioa prozesatzeko baldintzak goitik behera aldatu diren gizartea". Castells, Manuel (2002): "La dimensión cultural de Internet", UOC. Eztabaida kulturalak. Espainia.

---

García Canclíniren arabera<sup>7</sup>, lehenengo formula nahiago dutenek “aurrerapen eta eraldaketa zaharberritzaileak informazio-industrializazioaren eta horien erabilera sistematikoaren bidez hornitzen direla uste dute, horrela, ekoizpen-prozesuak berregituratzeko, ekoizpenen kostua txikiagotzeko eta datuak prozesatu, biltegitratu eta igortzeko gaitasuna modu esponentzian areagotzeko”<sup>8</sup>.

Bestalde, honako hau dio UNESCOk landutako “Jakintzaren Gizarteetara Bideratzeko Txostenak”: “Jakintzaren gizartei dagokien nozioa aberasgarriagoa da, eta gainera, gehiago sustatzen du autonomia teknologiaren eta konexio-gaitasunaren kontzeptuak baino; izan ere, horiek oinarritzko elementu bat osatzen dute, askotan, Informazioaren Gizartei buruzko eztabaidetan. Teknologiari eta konexio-gaitasunari buruzko alderdiek sarean osatutako unibertsoaren gobernantza eta azpiegiturak azpimarratzen dituzte. Funtsezko garrantzia izan arren, ez lirateke helburu gisa hartu beharko”<sup>9</sup>.

Beste hitz batzuetan, baieztapen horrek argi eta garbi uzten du “Jakintzaren Gizarteak” xede bat direla oraindik ere; hura lortzeko, aldaketa ugari osaturiko

---

(7) GARCÍA CANCLINI, Néstor (2004): *Diferentes, Desiguales y desconectados*, Bartzelona, Gedisa argitaletxea.

(8) Horrekin lotuta, bigarren mundu-gerraren ostean garatzen hasi eta 70eko hamarkadaren ostean instituzionalizatu zen Informazioaren Gizartearen adierazpenak “datuaren” balorizazioari jarraipena ematen diola ohartarazten digu Armand Mattelart jaunak, mendebaldeko modernitatearen proiektuan eta proiekturako, hain zuzen. Zentzu horretan, teknologia berriek eta informazioaren nozio garaikideak arrazoi modernoaren ikuskera heredatu dute; hura lotura matematikoen irizpide logikoetan oinarriturik dago, zenbatu eta neurtu daitekeena gizartearen egokitasun-arau eta unibertsaltasun-parametro gisa gailenduz. Mattelart, Armand (2004): La Sociedad de la Información: La retórica en acción, América Latina en Movimiento aldizkariaren 385-386. zenbakia, argitalpen berezia, Ameriketako Foro Soziala, ALAI, <http://alainet.org/docs/7444.html>

(9) Jakintzaren Gizarteetara Bideratzeko UNESCOren txostena (2006). UNESCO edizioak.

---

ibildide bat egin behar da, baina aldaketa horiek teknologiak baino haratago doaz, eta gizarte eta hezkuntza arloko kapitalarekin eta genero-ordenarekin lotutako alde zurretiko baldintzei dagozkie bereziki.

Zentzu horretan, Informazioaren Gizarte inklusibo eta parte-hartzailearen sorrerak hertsiki loturik egon behar du, aldi berean eta modu sortzailean, oro har gizarte-berdintasunerako eta bereziki genero-berdintasunerako funtsezko alderdietan eragiten duten beste erronka batzuekin: autonomia ekonomikoa, aukeren zabalkuntza, zaintzak eragiten dituen erantzukizunen berdintasunezko banaketa, eskubideen ezagutza eta herritarren partaidetza mundu “errealan” nahiz digitalean, historian zehar kanporatuta egon diren sektoreen partaidetza soziala eta politikoa bezala.<sup>10</sup>

Hausnarketa horiek garrantzi berezia dute gizon eta emakumeek IKTak erabiltzen dituztela eta, batez ere, horietaz jabetzen direla ulertzeko, horiei zentzua emanez eta, modu adimentsuan eta estrategikoan, horiek beren bizi-proiektuekin eta komunitateko parte-hartze aktiboarekin lotuz<sup>11</sup>.

---

(10) BONDER, Gloria (2012): *TIC y género en contexto. Reflexiones desde América Latina*. Telos aldizkaria, 92. zk., iraila. Espainia.

(11) BONDER (2012): Op. cit.

---

## 2. *Emakume latinoamerikarrak Informazioaren/ Jakintzaren Gizartean: inklusiotik partaidetza transformatzailerera*

IKTek eskainitako esparruetako emakumeen erabateko partaidetzak nazioarteko hainbat erakunde eta ikerlariren arreta bereganatu du; izan ere, horiek badakite baliabide horien erabilera, ondasun publikoak diren neurrian, eskubide eta genero-justizia kontua dela (informazio- eta komunikazio-eskubidea).

1995ean, **Emakumearen Nazioarteko IX. Konferentziaren** (Pekin, 1995) Ekintza Planeko J puntuaren bidez kezka hori helarazi zen, bertan komunikabideekin eta IKTekin loturiko bi helburu estrategiko txertatzean. Horietako batek emakumeen partaidetza eta sarbidea areagotzea du helburu, komunikabideen eta komunikazio-teknologiaren bidez egiten diren adierazpenei eta hartzen diren erabakiei dagokienez (J.1 Helburu Estrategikoa). Bigarrenak, aldiz, horiek hedabideetan duten ordezkaritza estereotipatu gabea sustatzea du helburu (J.2 Helburu Estrategikoa).

Hausnarketa horiek ez dute inolako indarrik galdu. Generoaren esparruko zenbait ikerlari- eta aktibista-taldek aurkeztu zituzten **Informazioaren Gizartearen Munduko Goi Bileran** (Geneva 2003-Tunisia 2005).

**Quitoko Akordioan** ere hartu dira kontuan, Latinoamerikako eta Karibeko Emakumeari buruzko Hamargarren Eskualde Konferentziaren emaitza (Quito, Ekuador, 2007ko abuztuak 6-9); horiek IKTei edo Informazioaren Gizarteari erreferentzia zuzena ez egin arren, gomendioen artean honako proposamen hau txertatzen da: "Komunikabideetatik eduki sexistak, estereotipatuak, diskriminatzaileak eta arrazistak erazteko politika publikoak hartzea –legeak barne, ahal denean– eta horiek emakume eta gizonen arteko berdintasun-harremanak eta -erantzukizunak sustatzeko duten funtzioa estimulatzea".

Aurrerapen horiek emakumeen aukera-eta eskubide-berdintasunaren hitzaldiaren barnean kokatu daitezke. Beste ikuspegi bat Nancy Fraser andrearen<sup>12</sup> proposamenen oinarritzen da; haren arabera, **ondasun eta baliabideen bidezko banaketa ezinbestekoa da emakumeak ahalduntzeko**, eta beraz, **emakumeen autonomia ekonomikoa, politikoa eta fisikoa** lortzeko. Genero-justizian oinarritzen den jarrera horrek zera planteatzen du, IKTen sarbidea eta, batez ere, erabilera estrategikoa oinarritzeko baldintzak direla garapen inklusiboa eta jasangarria lortzeko.

Kontzeptu- eta politika-esparru horrek agerian uzten du "**generoaren bretxa digitalaz**"<sup>13</sup> hitz egitea –IKTen sarbideari dagokionez gizon eta emakumeen artean dagoen desberdintasuna, gailu teknologikoen erabilerrari, eta bereziki, Internet-erabilerrari dagokionez– nahikoa ez dela.<sup>14</sup> Hortik datoz, hain zuzen,

---

(12) FRASER, Nancy (1997). *Iustitia Interrupta. Reflexiones críticas desde la posición "postsocialista"*. Bogotá: Siglo del Hombre Editores – Uniandes. Kolonbia.

(13) OCDE (2002) erakundeak hiru esparru aipatzen ditu: sarbidea, erabilera eta inpaktua.

(14) Hainbat ikerlariren ustez, desberdintasun hori zuzenean lotuta dago bizitzako sozialeko beste alderdi batzuekin, hala nola, hezkuntzarekin, etniarekin, eremu geografikoarekin eta generoarekin (adibidez, Cullen, 2001; Warschauer, 2003; Mossberger, eta beste batzuk, 2003; OSILAC, 2007; Hilbert, 2010).

## **generoaren esparruko brexa digitalak, ikuspegi plural batetik**

(Bonder, 2006<sup>15</sup> eta 2008; Castaño 2008<sup>16</sup>).

Gero eta atxikipen gehiago dituen jarrera hori bi generoek aukera berak izateko premian oinarritzen da, eta ez kalitate oneko banda zabaleko konexio eta ekipamenduak nahiz ICTak erabili ahal izateko orduan bakarrik, baita erabilera estrategiko eta aurreratuetarako behar diren gaitasunak garatzeko, edukiak sortzeko, eta edukien sorreran nahiz ekoizpen teknologikoan modu aktiboan parte hartzeko orduan ere. Hezkuntzaren, diru-sarreraren, hiri- nahiz landa-izaerako egoitzaren, kidego etnikoaren, arrazaren eta belaunaldiaren gisako aldagaiak are gehiago baldintzatzen dute tarte horien existentzia eta garrantzia, eta aldi berean, genero arteko desberdintasunak nahiz norberaren barneko desberdintasunak ezkutatzen dituen ikuspegi homogeneousatzaile bat saihestu beharra ohartarazten digute. Ildo horretan kokatzen da, hain zuzen, Martín Hilbert jaunak egindako azterlan bat, honako titulu hau duena: *“¿La brecha digital de género o el empoderamiento tecnológico de las mujeres en los países en desarrollo?”*<sup>17</sup>.

Hark ikuspuntu tekno-fobiko izendatzen duena saihestea eskatzen du, emakumeentzako politika estimulagarrien oinarri gisa. Hau da, baliabide horiek erabiltzeko gizonak baino gaitasun edo motibazio gutxiago dutela pentsatzen denean. Horregatik, generoen arteko tarte digitalak ulertzeko beste modu bat proposatzen du.

2005 eta 2008. urteen artean ekoiztutako 12 herrialde latinoamerikarretako

---

(15) BONDER, Gloria (2006), “Equidad de género y cultura de la innovación colaborativa: nutrientes para fortalecer la sociedad del conocimiento”, 2006ko Nazioarteko Know How Konferentzian aurkeztutako dokumentua, Tejiendo la Sociedad de la Información: una perspectiva multicultural y de género, PUEG – UNAM, Mexiko Hiria, abuztuaren 23tik 25era.

(16) CASTAÑO, Cecilia (2008), La segunda brecha digital, Madril, Cátedra.

(17) 2011ko azaroan Women’s Studies International Forum-ean argitaratua.

---

eta 13 herrialde afrikarretako informazio estatistikoa abiapuntutzat hartuta, desberdintasun horiek determinatzaile exogenoen arabera direla baieztatzen du, nolabait esatearren, IKTen arabera; horrela, hezkuntza, enplegu eta diru-sarreraren esparruko gizarte-baldintza desberdinak aipatzen ditu: “aldagai horiek kontrolatzen direnean, emakumeak gizonak baino erabiltzaile aktiboagoak dira tresna digitalei dagokienez”. Horrek IKTak erabiltzeko aukera eskaintzearen garrantzia azpimarratzen du, horiek garapen-bidean dauden herrialdeetako genero-desberdintasunak lehenagotzeko aukera nabarmena eskaintzen baitute.

Hori oso interesgarria da emakumeak Informazioaren Gizartean txertatzeko ahaleginak egiten ari diren politiken eta programen proposamenei buruz berriz pentsatzeko, gizartean duten lekua eta bizi-baldintzak kontuan hartu gabe, edo desberdintasun-korapiloak ebazteko neurriak sustatu gabe. Nolanahi ere, artikulua honetan ez da alderdi bereziki garrantzitsu bat jorratzen: IKTen neutraltasunik eza, genero-terminoetan.

Beste ikuspuntu batetik, Marisela Montenegrok<sup>18</sup> honako hau ulertzearen garrantziaz hitz egiten du: “jakintzaren gizarteak aberastasun ekonomikoa eta berdintasun soziala bermatzen ditu, baina horren truke, ekoizpen-eskakizun berrietara eta aberastasunaren banaketara egokitu behar dugu.

Generoari dagokionez, haren jarrera irmoa da, eta emakumeen barneratze digitala sustatzen duten eta desberdintasun digitalaren amaiera aldarrikatzen duten, baina aldi berean, eremu horietan adierazten eta ekoizten diren gizarte patriarkalaren eta menperatze kapitalista postindustrialaren ardatzei aurrea hartzen ez dieten politiken eta programen inguruan ohartarazten gaitu.

---

(18) MARISELA MONTENEGRO MARTÍNEZ eta JOAN PUJOL TARRÉS (2012): Reflexiones para una articulación tecnofeminista en la sociedad del conocimiento. *Teknocultura* aldizkaria. 9. bol., 2. zb. Eskuragarri hemen: <http://teknokultura.net/index.php/tk/article/view/109>

---

Kontua ez da emakumeek ondasun sozial horiek guztiz erabili ahal izateko eskubideari uko egitea, baina xede hori ez da nahikoa, eta ahalegin hori guztia "desberdintasun sozialaren ohiko faktoreak ezkutatzeko kezko hesi bat" bihurtu daiteke. Horiek emakumeek eta gizonek gizartean duten kokapena baldintzatzen duten eta emakumeak IKTen erabiltzaile gisa txertatzean ebatzen ez diren faktoreak izango lirateke, zalantzan jarri ere egin ez diren genero-kodeetan eta ahalmen ekonomiko eta politikoetan oinarritu izan direnak.

## 2.1 Emakumeak IKTetan, zifratan

Emakume latinoamerikarrek Informazioaren Gizartean duten partaidetzari buruzko informazio estatistikoari dagokionez behin eta berriz egin den eskaera emaitzak ematen hasi da pixkanaka.

2010ean, nazioarteko comScore aholkularitzak *"Mujeres en la web. Marcando Tendencias en Internet"* izeneko txostena egin zuen. Haren aurkikuntza nagusiek arestian adierazi diren zenbait hausnarketa berresten dituzte eta aztertzeke modukoak diren beste batzuk eskaintzen dizkigute.


Mundu osoan, emakumeek Interneteko erabiltzaile guztien (18 urtetik gorakoak) % 45,7a osatzen dute eta gizonek, ordea, % 54,3a. Dirudenez, tarte hori gainditu egingo da epe motzean, eta herrialde batzuetan emakumeek gehiengoak osatzen dute dagoeneko.

Iparramerika da zenbateko altuenak dituen herrialdea, bertan % 50,4 baitira emakume erabiltzaileak; haren atzetik Latinoamerika (% 48,1), Europa (% 47) eta Pazifikoko Asia (% 42,4) ditugu. Bestalde, indize horietatik urrun ditugu India (% 28) eta Indonesia (% 35).


Horiek erabiltzen hasi ostean, zenbat denbora dute on line egoteko? Txosten horren arabera, 15 urtetik gorako emakumeek gizonek baino % 8 ordu gehiago

xedatzen dituzte. 2010eko apirilera, mundu osoko batez bestekoa 24,8 ordukoa izan zen, hilean, emakumeen kasuan, eta 22,9 ordukoa gizonen kasuan.


Zer jarduera gauzatzen dituzte? Plan Metrix-ek hedatutako datuen arabera, emakume helduen % 56 inguruk beste pertsona batzuekin harremanetan jartzeko erabiltzen dute Internet (gizonen kasuan, % 46k). Horien online jarduera kutunenak sare sozialak, berehalako mezularitza eta posta elektronikoa dira, eta horrek ez gaitu batere harritzen:



Audiencia Global (+15, accediendo a Internet desde Hogar o Trabajo), Abril 2010  
Fuente: Media Metrix Worldwide



Audiencia Global (+15, accediendo a Internet desde Hogar o Trabajo), Abril 2010  
Fuente: Media Metrix Worldwide



Audiencia Global (+15, accediendo a Internet desde Hogar o Trabajo), Abril 2010  
Fuente: Media Metrix Worldwide

Eskualdeen araberako konparazioa egitean, latinoamerikarrak gailentzen dira posta elektronikoaren nahiz berehalako mezularitzaren erabileran, eta sare sozialei dagokienez ere europarrengandik puntu gutxira daude. Beste datu interesgarri bat honako hau izan daiteke: lehenengo horiek dira jarduera-mota horietara ordu gehien xedatzen dituzten emakumeek (konektatuta igarotzen dituzten orduen % 52).

Lehen begiratuan pozgarriak diruditen zifra horiek azterketa arretatsua egitea merezi dute. Duela urte batzuk, emakumeen blogak ugaritu izanak eta Facebook nahiz antzeko guneen gero eta erabilera handiagoak gizarte digital berri bat azaleratzen ari ote zen pentsarazi zigun, subjektuak aitortzeko, komunitate-mailako esparru eta egitasmoetan parte hartzeko, eta herritartasun aktiborako irrika handiagoa izango zuena (Bonder, 2008).

---

Erantzunen bilaketak eta emakumeen sare sozialetako partaidetza gero eta handiagoak eraginda, espazio horietan zer gertatzen den eta lehentasun horiek azaldu ditzakeen arrazoiak aztertzen hasi ginen.

Azterlan askok partaidetza handiago hori ekipamendu-kostuen merkatzeari, banda zabalaren txertaketari eta, bereziki, telefonia mugikorraren hedapenari eta gailu horietatik sare sozialetara sartzeko gaitasunari esleitu arren, azalpen horrek fenomeno konplexu baten alderdi bati bakarrik erantzuten dio, hark ordena sozialeko, kultureko eta subjektiboko beste baldintza asko baititu.

Badakigu, esaterako, emakumeek gehiengoa osatzen dutela Facebook-en (% 51)<sup>19</sup> eta Pinterest eta FLICKr programen gisako argazki-guneetan (% 53, gutxi gorabehera). Ama direnen artean, 10etik 7k beren seme-alabak dauden sare sozialetan parte hartzen dute. 10etik 8 lagunekin eta senitartekoekin harremanetan jartzeko konektatzen dira, % 44 izapideak bizkortzeko eta % 32 informazioa eskuratzeko.

Zoritxarrez, ez dugu hezkuntza-mailaren, bizitoki-eremuaren (hiri- edo landa-izaerakoa) eta baldintza sozioekonomikoaren arabera desberdintasunak islatzen dituen daturik, baina emakumeek genero-ereduetan oinarritutako interesak eta portaerak ekoitzi ohi dituzte Internet eta sare sozialen erabileran. Colom-en arabera (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa), "gizonezkoek erabilera instrumentalagoa egin ohi dute, eta emakumeek, aldiz, erabilera espresiboagoa. Beste modu batera esanda, gizonek (...) objektu baten zerbitzura jartzen dute beren nortasuna, beren izateko modua, eta emakumeek, ordea, balio gehiago ematen diote emozioen adierazpenari, komunikazioari, horiek duten balioetatik, eta ez helburu bat lortzearen"<sup>20</sup>.

---

(19) Informazio gehiago: <http://www.forosperu.net/showthread.php?t=291562>

(20) PÉREZ FRAGA, Cristina (2012): *Nosotras 2.0. Mujeres y Redes Sociales*.

---

Ekarpen horien erabilgarritasuna ukatu gabe, gure ustez datu gehiago behar dira gune eta erabilera horien **kantitatea, iraunkortasuna/jasangarritasuna eta dinamismoa** adierazteko.

Era berean, gehiago aztertu behar dira horiek **gizartekoitasunean eta lan- nahiz hezkuntza-aukeren gehikuntzan eragiten dituzten ondorioak**, baita sare sozialek gizartean ordezkatzeko dituzten moduak eta ulertzeko moduak nola aldatzen diren ere.

Sare Behatokiak (3. multzoa) egindako azterlan batek frogatu zuen moduan, sare sozialak indar gehiagorekin hedatzen hasi zirenean (2008), erabiltzaileak erakarrita sentitu ziren gune berri horiek eskaintzen zieten esploratzeko aukera, pertsonen arteko lotura berriak sortzeko aukera eta piztutako jakin-mina dela eta. 2009. urtearen erdialdera aldera, sareak beste komunikazio-tresna baten gisa hartzen hasi ziren. Datu horrek badu bere garrantzia, gaur hor dauden emakumeek bihar funtzionalagoak eta atseginoagoak iruditzen zaizkien beste bitarteko batzuk aukeratu ditzaketela erakusten baitigu.

Erabiltzaileak erakartzen dituzten motibazioak askotarikoak dira; adierazi dugun azterlan horren arabera, aktibo mantentzen direnek jolaserako plataformak izan daitezela baloratzen dute batik bat, ahalegin gutxi eskatzen duten eta, aldi berean, gauzak kontatzeko/argitaratzeko eta beren kontaktuak eta edukiak areagotzeko aukera eskaintzen dieten plataformak izan daitezela, alegia.

Bestalde, profil-kopuru esanguratsu bat erabilpenik gabe geratzen da, batik bat horiek sortu dituztenek komunikazio-bide horiei erabilerarik ikusten ez dietelako, eta gainera, bere pribatutasuna arriskuan jarri dezaketelako; horietako askok eszenatoki nahasgarritzat jotzen dituzte, "(...) elkarrizketa, gai, irudi eta abarrez kargatuak...".

Bi talde horien baterako existentziak zera esan nahi du, oraindik ere sare sozialei

---

buruz jakiteko asko falta bada ere, emakumeen parte-hartze kualitatiboaren igoera ez dela, *per se*, autonomiaren eta/edo ahalduntzearen adierazle bihurtzen.

Komunikazio-bideen hedapenak ez du esan nahi beren eskaerei entzuteko kanal harkorragoak sortu behar direnik. Bitarteko hauen bidez beste latitude batzuetako taldeekin interrelazioak hobetzea, estrategia desberdinen ikaskuntzaz elikatzea eta beren interes eta proposamenen ikusgarritasun handiagoa lortzea lortu duten emakume-sare ugari egon arren, oraindik ere oso gutxi dakigu salto kualitatiboa eman duten eta parte hartzeko eta eragiteko modu berriak asmatu dituzten esperientziei buruz. Oro har, dagoeneko “harremanetan” edo “konektatuta” dauden pertsonen arteko komunikazioa eta elkarreragina hobetzen dute.

Dena den, hori txanponaren alde bat besterik ez da, Espainiako ikerlari-talde ezagun batek egindako *Nosotras 2.0 Mujeres y Redes Sociales* dokumentuan adierazten den bezala<sup>21</sup>:

“Gune berri hori errealitate patriarkalaren hedapen hiperboliko eta teknifikatu bat dela ikusi dugu. Dena den, haren konfigurazio horizontalak eta hierarkiarik gabeak *ihes-guneak* sortzea ahalbidetu du, eta horrek mugimendu politiko, sozial eta kultural ugari egoteko eta proiektatzeko balio izan du (...). Hor ditugu feminismoa, emakumeen mugimenduak eta emakumeek protagonizatutako beste zenbait proiektu pertsonal. 1985ean, Donna Haraway feministak dominazioaren informatika salatu zuen bere *Cyborg Manifestuan*, ‘aro berriak eragindako tekno-liberazioa’ ospatzen zuen aldi berean”.

Zentzu horretan, Sonia Reverter Bañón andreak oso atsegina ez den ikuspegi bat agertzen du *“Ciberfeminsimo: de virtual a político”* izeneko artikuluan; haren bidez, feminismoaren erasoak aztertu nahi izan ditu ingurune birtualetan, betiere *“aurreko hamarkadako borroka dikotomikoa gainditzen saiatzen den*

---

(21) PÉREZ FRAGA (2012): Op. Cit.

---

*jarrera kontuan hartuta, bertan (feministak) ongi lerrokatzen baitziren hitzaldi utopiko nahiz ez-utopiko batekin”.*

Beste termino batzuetan, teknoeuforikoak kritikatzeko, hau da, teknologia genero-kodeak desegiteko eta eraldatzeko, subjektiboki berrasmatzeko eta hitzaldi emantzipatuak eta emantzipatorioak artikulatzeko baliabide gisa hartzen zutenak, baita IKT horien aurrean jarrera ezkorrak eta alarmistak hartzen zituztenak ere, genero-hierarkia aldaezinen ekoizpenean horiei botere ahalguztiduna eta determinatzailea esleituz.

Bere ustez, ziberfeminismoa oso modu heterogeneoan mugitzen ari da, oso norabide desberdinetan. Web-gune formal samarren bitartez nahiz erakunde sozial edo estatal, instalazio artistiko, eztabaida, bideo, net art, hacker, programa akademiko, blog unipertsonal edo talde-blogen bitartez; gainera, horiek arrazoi desberdinengatik eta feminismoaren oso kontzeptu desberdinetatik sortu dira, jardura politiko feminista bera bezain zabala. Bere artikuluko baieztapen probokatzailenetako batek mugimendua kulturaren, estetikaren eta subjektibotasunaren esparrura hedatu dela da, hark duen izaera politiko bera saihestuz edo alde batera utziz.

Egoera horren aurrean, **ziberfeminismo soziala<sup>22</sup> izendatzen duena sustatzea proposatzen du**. Hau da, borroka politiko eta gizartea eraldatzeko eginkizuna propiotzat jotzen eta eraikitzen duen mugimendua<sup>23</sup>.

---

(22) Mònserrat Boix andreak dioenarekin bat etorriz.

(23) Jarrera hori ez da berria. Brief Mafia Wilding jaunak, esaterako, ziberfeminismoa ohiko gaietatik haratago joan beharra planteatu zuen 2002. urtean, horrela, arrazaren eta teknologiaren arteko elkarguneei, arraza-aurreiritzien eguneratzeari, sexuaren eta generoaren eraldaketari (teknologiaren bitartez), heterosexismoari, eugenesiari eta nahitaezko amatasunari eta laguntza bidezko ugalketari buruz iritzia eman eta gai horiek lantzeko. Gainera, ziberespazioan aktibismoa benetako bizibaldintzekin konektatzeko zailtasunak azpimarratu zituen.

Hausnarketa horiek jarraian erantzungo dugun galdera planteazten digute.

3. *Ba al dago arriskurik informazioaren gizaratean, edo ingurune hori ere arrisku globaleko gizaratea da<sup>24</sup>?*

Problematika hori generoaren ikuspegitik jorratzen denean, edo are zehatzago, emakumeen segurtasunaren edo horien eskubideak betetzearen esparruko arriskuak lantzen direnean, honako hauek izaten dira kezka nagusiak: hizkuntza sexista, estereotipoak sortu edo pertsonen duintasunaren aurka eraso egiten duten edukiak eta irudiak, eta genero-patroieta oinarritutako indarkeria-adierazpenak, besteak beste.

Hausnarketa horiez gain, gure ustez oso garrantzitsua da bi generoak barne hartzen dituzten –modu desberdinean izan arren– egiturazko alderdiak kontuan hartzea. Honako hauek, esate baterako:

- Herralde eta eskualdeen garapenerako aukeretan eta modalitateetan eragindako ondorioak.
- Copyright-etik (Interneten) eratorritako informazio-erabilgarritasunaren inguruko ondorioak eta horrek eragindako kostuak (lineako baliabideak erabili ahal izateko ordainketa).

---

(24) BECK, Ulrich-ek (2006) proposatutako kontzeptua. La sociedad del riesgo: hacia una nueva modernidad, Paidós. Espainia.

- Sareko arkitektura politikoa, datu pertsonalen pribatasuna, anonimatua eta intimitatea errespetatzen ez dituelako.
- Sarearen eta informazioaren kontrola herrialde eta korporazio jakin batzuen aldetik.
- Legearen eta politiken zeregina, industria jakin batzuek babesten baitituzte taldeen ekoizpen sortzailea eta botere hegemonikoekiko independenteak diren sareak estimulatu beharrean; gainera, ez dituzte eduki sexistak, homofobikoak, arrazistak eta diskriminatzaileak saihesteko mekanismorik aplikatzen sistematikoki.
- Eduki jakin batzuen sortzaile, ekoizle (gehienak gizonezkoak) eta kontsumitzaile pasiboen (gehienak emakumeak) arteko hierarkiaren sorkuntza edo birsorkuntza, horien ikusgaitasun eta bolumen handiagoagatik, legitimatu, baliozko eta unibertsal gisa hartzen baitira, kultura-, hizkuntza- eta genero-aniztasuna alde batera utziz.
- Teknologia berriaren kontsumo-sustapenaren azelerazioa, merkatu-interesak eta informazioaren edo jakintzaren deskreditazioa dela-eta, berrikuntzaren esparruan zehar gisa kategorizatua.

Gure helburua ez da zerrenda amaitu bat eskaintzea, ebazten ari diren eta denbora igaro ahala sortzen ari diren problematikak kontuan hartuko dituen ikuspegi kritiko eta eraikitzaile bat sustatzea, alegia.

Zentzu horretan, eta gaur egun bizi dugun egoeran kokatuz, interesgarria litzateke Sherry Turkle andrearen azterketari erreferentzia egitea, Internet fenomenoaren azterketa psikosozialari eta hark lineako harreman eta nortasunen konfigurazioan duen eraginari dagokionez aitzindaria. Bere azken liburuan, *“Solos juntos”*, hausnarketa sakona eta zorrotza egiten du IKTen erabilerak gure subjektibotasunean, sentimenduetan eta bizitzeko eta harremanetan jartzeko moduetan eragin dituen aldaketa batzuei buruz; era berean, esaldi probokatzaile bat botatzen du: **“Elkarrekin egoteko modu berri batera ohitzen ari gara, bakarrik egotera”**. Bere iritziz:

---

“Etengabe konektatuta gaude. Adiskidetasunaren eskakizunak jasan beharrik izan gabe lagunartean gaudela iruditzen zaigu, baina egiaz, eta bakarrik egoteko beldurra izan arren, kontrolatu egin ditzakegun harremanak elikatzen ditugu, harreman digitalak, alegia. Baina oraindik garaiz gaude teknologiarekin dugun bizikidetzaren hori aldatzeko. Bakartasunaren balioa ikasi behar dugu berriz ere”<sup>25</sup>.

#### 4. *Norabidea seinaleztatzen*

IKTak ez dira neutroak generoari dagokionez; horien ideagintza nahiz ekoizpena, eta horiek eskaintzen dituzten inguruneak eta dinamikak genero-kodeetan oinarrituta sortu dira eta genero-generoak sortzen dituzte.

Ikuspegi hori sostengatzeak ikuspegi instrumentalista eta determinatzailea saihestea eta hura zalantzan jartzea ahalbidetzen du; izan ere, ikuspegi horrek emakumeak mundu digitalean txertatzea, horiek erabiltzen dituen emakume-kopurua neurtzea eta, batzuetan, emakumeek egiten dituzten IKTen erabilerak aztertzea du helburu.

Gure proposamenak, aldiz, abiapuntu gisa bakarrik hartzen ditu datu horiek, eta honako galdera hauei buruzko pistak aurkitzen saiatzen gara: zein erronka hartu beharko genituzke gure gain, emakumeek IKTak eskuratu, ingurune horietan ahaldundu eta, horien bitartez, berdintasun, askatasun, produktibitate, sormen eta partaidetza handiagoa lortzeko promesak bete ahal izateko?

---

(25) TURKLE, Sherry (2012): Konektatuta, baina bakarrik? TED, eskuragarri hemen: [http://www.ted.com/talks/sherry\\_turkle\\_alone\\_together.html](http://www.ted.com/talks/sherry_turkle_alone_together.html)

---

Horrek ez du esan nahi emakumeek ondasun sozial horiek erabili behar ez dituztenik. Baina horiek erabiltzeko orduan hainbat neurri hartu behar dira, emakumeak patroï patriarkaletan oinarritutako eta horien partaidetzarik gabe landutako teknologien eta edukien kontsumitzaile-belaunaldi berria besterik izan ez daitezen.

Esandakoaz gain, ahalegin handia egin behar da IKTen eta Informazioaren Gizartearen inguruko aplikazioetan, edukietan eta hitzaldietan nagusitzen diren genero-ordezkaritzak hauteman eta horiek arazo gisa hartzeko; era berean, horien konexio-gaitasunak eta horizonte-zabalkuntzak eragin dezakeen lilura saihestu behar da, horrela, horietan nagusitzen diren ahalmen-harremanak eta ezartzen dituzten mugak argi eta garbi ikusteko.

Beste hitz batzuetan esanda, emakumeek Informazioaren Gizartean egin behar dugun ibilbideak borroka feministak historian zehar egonkortu duen ondare intelektualaz eta politikoaz baliatu behar du, hau da, jakintzaren eta erakunde nahiz praktika sozialen eremu guztiak barne hartu behar ditu, ordena patriarkala sostengatzen duten botere ekonomiko, politiko eta sinbolikoen bilbea desnaturalizatuz eta hura agerian utziz. Mugimendu horren bidez, emakumeek bide berriak ireki zituzten, eta horrela, identitate-erreferente berriak, jakintzaren paradigmatik errotik eraldatzen dituzten nozioak eta interpretazioak eta nolabaiteko ordena sinbolikoa sortu ziren, politika emantzipatzaileen proposamen ugari sortzeaz gain.

Bide horretan emandako aurrerapausoak ospatu behar ditugu, baina aldi berean, genero-ordena eremu tekno-kulturaletan irudikatzen den moduekiko arreta mantendu behar dugu, mundu hori berdintasunean oinarritzen dela eta inklusiboa eta errealizazioaren eta aurrerapenaren sinbolo dela esan arren.

---

Boaventura de Souza Santos jaunarekin bat etorri, **“arrazoi arduragabeak”**<sup>26</sup> gainditu ez gaitzala da helburua, hau da, teknologien potentziala ahalik eta gehien ustiatzeko buru-argitasuna eta pasioa berritzea, **horiek eraldatzeko eraldatuz.**

---

(26) DE SOUZA SANTOS, Boaventura (2000): Crítica de la Razón Indolente. Contra el desperdicio de la experiencia. Bilbo: Desclée de Brouwer argitaratzailea.

---

**WASSYLA TAMZALI**

**Aljeriar feminista,  
idazlea eta UNESCO  
erakundeko  
Emakumeen  
Eskubideetarako  
zuzendari ohia**



---

HGaur, aspaldi honetan ikusi gabe neukan Buenos Airesko Gloria Bonder-ekin bildu naiz berriro. Elkarrekin lan egin genuen, duela 20 urte baino gehiago, feminismo gaietan. Berrelkartu garenean, oso esperientzia desberdinak eza-gutu eta urrutiko kontinenteetan bizi izan arren, kezka eta galdera berberak ditugu, eta orain 20 urte eten genuen eztabaida zaharrari heldu diogu berriro, gai berberaz mintzatzeko: feminismoaz.

Ongi dakigu mundua aldatu dela; joan diren 20 urteotan, areto honetako feminista askok bezala, egoera berriei aurre egin behar izan diegu. Baina, nolabait ere, prestatuta geunden, gure esperientzia feministari esker, auzi berriei erantzuteko; gainera, bizi garen mundu honek, gaur bestelakoa bada ere, zoritxarrez, oraindik aldatu ez diren hainbat ezaugarri ditu emakumeei dagokionez. Mundua ez da aldatu jendeak uste adina, emakumeentzat behintzat. Arabiar munduaz ari garenean, oharpen hau are harrigarriagoa gertatzen da. Alde batetik, esan dezakegu herrialde arabiarretako egoera politikoa «iraultzak» dei genitzakeen gertakari sakon eta bortitzen bultzadaz eta eraginez aldatu dela. Baina esan dezakegu, orobat, beste alde batetik, emakumearen egoerari dagokionez, galdera berberen aurrean gaudela, baina orain beste modu batera planteatuta. Konexio-elementu bat ote da emakumea aldaketa horietan guztietan zehar?

Utzi dezagun hori orain alde batera, eta azter dezagun herrialde arabiarretako gaurko egoera. Herrialde hauetako feministek egoera eta galdera berriei egin behar diete aurre. Zer gertatu da? Zer ari da gertatzen? Zein da emakumeen lekua eta rola arabiar iraultzetan?

Esan dezagun alde zehar ez dela mugimendu feminista izan arabiar iraultzetako protagonista nagusia; egiari zor, aitortu behar da, ordea, emakumeen mugimenduak partaide izan direla aldaketa horien aurretik izan diren eta iraultzak eragin dituzten gizarte-mugimenduetan.

---

Kontzientzia politikoa hartze horretan argi dago rol jakin bat jokatu duela pentsamendu feministak. Feminismoak sekretuan, isilpean lan egin du arabiar gizarteetan. Gaur egun, alderdi islamisten loratze honen aurrean esan dezakegu arabiar emakumeek beren eskubide eta askatasunaren alde daramaten borroka oso presente dagoela; are gehiago, funtsezko elementua da borroka hori, emakumearen paperak erabakiko baitu munduaren bi ikuskeraren arteko aldea: ikuskera moderno eta laikoa, batetik, eta ikuskera kontserbadore eta erlijiosoa, bestetik. Horregatik, arabiar iraultzak lehertu ziren unetik, feminista guztiak borrokaren lehen ilaran kokatu ziren. Iraultza horietan parte hartu zuten emakume guztiek ez zituzten emakumeen eskubideak aldeztu, egia da, baina feministek oso paper aktiboa jokatu dute iraultzetan.

Ez zen mugimendu feminista izan arabiar iraultzak piztu zituena, ez-eta herrialde horietako mugimendu demokratiko eta laikoak ere. Iraultza agintean dagoen boterearen aurka egiten da. Lehen ekintza iraultzailea zapalkuntzari kontra egitea da, gogaituaren gogaituz –hortik dator Tunisiako lema: «Dégage» (Ospa!)–; gero hasten dira antolatzen joko eta desafio politikoak. Tunisian eta Egipton kontrairaultzek irabazi zuten iraultzaren bigarren ekitaldia. Baina historiari irakatsi digu iraultzen ostean beti etortzen direla kontrairaultzak.

Hori kontuan izan behar da gaur gertatzen dena aztertzeko orduan. Horrela izan ezean, desengainu handi bat sentituko dugu eta gertakari garrantzitsu bat behar bezala ez ulertzeko arriskua izango dugu.

Gaur goizean, irekiera-ekitaldian, elkartasun kosmopolitaz mintzatu gara. Arabiar iraultzak lagungarri izatea espero dut arabiar munduan zer gertatzen den hobeto konprenitzeko. Zeren esan behar da, eta deitoratu, arabiar mundua eta, musulmanena oro har, aparteko mundu bat bezala hartu izan dela beti. Ez dira ulertzen saiatu; uste izan da beste arau batzuen pean funtzionatzen dutela. Beste planeta batean baleude bezala, eta berorien azterketarako ezagutzaren eta adimenaren legeek balio ez balute bezala.

---

Eskatzen zaiena da –haien politikaz ari naiz– ez dezatela arriskuan jarri mendebaldeko zibilizazioa. Han gertatzen diren askatasunaren aldeko borroka, nazioarteko egonkortasuna mehatxatzen ez duten bitartean, ez dira ezinbestekotzat hartzen, adibidez, Europa ekialdekoak hauteman ziren bezala. Mendebaldeak hobeto ulertzen ditu korrante erreakzionarioak –mugimendu islamistak, kasu, beren desberdintasuna aldarrikatzen dutenak: «Gu zuetatik desberdinak gara»–, eskubide unibertsalen alde borrokatzen diren mugimendu aurrerakoiak baino. Bai mendebaldarren eta bai islamisten argudioen oinarrian dagoen desberdintasunaren kontzeptu horrek –kosmopolitismoaren eta unibertsaltasunaren ideiaen kontra dagoena– birrinduta uzten ditu elkartasun eta enpatia bulkadak. Hegoaldeko herrialdeetako demokratei eta feministei ez zaie sostengurik ematen, eta hori baino larriagoa, ez zaie beren herrialdea ordezkatzeko eskubiderik aitortzen.

Sostenguaz ari naizenean, ez naiz herrialde horietako indar aurrerakoiei laguntza materiala emateaz ari, hori ez litzateke eraginkorra –kalterako litzateke, segur aski–, iraultzak, izan ere, modu endogenoan egiten baitira beti. Nazioko indarrak izan behar dute iraultza aurrera eramango dutenak. Baina ni abandonatze intelektualaz ari naiz. Gu, arabiar feministak, abandonatuak sentitzen gara; baztertu egiten gaituzte mendebaldeko herrialdeetako indar politikoek, baita mendebaldeko zenbait feministak ere. Espainia egon da abandonatze horren erdi-erdian, emakumeen mugimendu islamistak sostengatu eta babestu baititu, mendebaldean harrera hobea izateagatik beren buruari «feminismo islamikoa» deitu dioten horretakoak, hain zuzen. «Feminismo islamikoa», zeinaren helburu bakarra Magrebeko eta arabiar herrialdeetako feministei zilegitasuna kentzea baita, Islama kritikatzeko dutelako, Bartzelonan sortu zen.

Mendebaldeko feministek feminismo islamikoa babesten dutenean ez dituzte beren azterketa-tresnak erabiltzen, diskurtso patriarkala deseraikitzeke erabili dituzten tresna horiek. Nik hor arrazakeria modu maltzur bat ikusten dut,

---

eskuin muturreko mugimenduak elikatzen dituen arrazakeria bezain bortitza. Baztertu eta bakartu egin gaituzte mendebaldeko pentsamenduaren bihotzean, ukatu egiten baitigute gure gizarteen izenean hitz egitea. Hain larria ez balitz «atzerriko» emakumeei entzun behar izatea atzerritarrak garela geure gizarteetan, barregura emango luke!.

Azken hamar urteotan, arabiar feministak borroka mingarri batean murgilduta egon dira, izan ere, unibertsaltasun-eskubidea aldeztearren, askotan, feministen eta ezkerreko intelektualen kontra egin behar izan baitute. Guretzat ez ziren arazo akademikoak edo «intelektualak», baizik eta egoera zehatz bati lotutakoak. Ezagutzaren erakundeen muin-muinean borrokatu behar izan dugu ideia horren defentsan, pentsamendua «sortzen» den lekuan bertan. Kontuan izan behar baita feminismo islamikoa prestigio handieneko erakundeetan txertatu dela: gizarte-zientzietako ikerketa-zentroetan, Parisko unibertsitateetan, «emakumeei» buruzko azterketa-planetan edota Zientzia Politikoaren Institutuan. Argitalpen serioenetan islatu dira analisi horiek, nahiko maila eskasekoak, bide batez esanda, beste zerbaiti buruzkoak izan balira inoiz argitaratuko ez zirenak. Baina arabiar emakumeak eta feminismo islamikoa ate guztiak irekitzeko gai diren giltzak dira.

Esate baterako, Frantzia, Espainia, AEB edo Erresuma Batuko gizarte zientzietako zenbait emakumezko ikerlarik aurrekontuak eta postuak aurkitu dituzte antolakunde akademikoetan. Emakume horiek izan dira «feminismo islamikoa» arrazionalizatu dutenak, ikuspegi ideologiko eta alderdikoi bati etiketa zientifikoa jarri diotenak. Leninek esana da sobietar erregimena babestu zuten intelektual frantsesengatik: «Tentel erabilgarriak dira». Islamistek antzeko zerbait esan bide dute mendebaldeko intelektual horiengatik; izan ere, duela hainbat urte eurek eraikitako feminismoa zeharo ahaztu baitute. Bereziki larria da traizio hori, ez baita jolas intelektual bat, noiznahi bere horretan utzi eta lehengora itzultzea baimentzen duen abentura intelektual soil bat. Gerrarako makina bat dago atzetik; mendebaldekotzat identifikatzen

---

diren ideien eta horien sinbolo jasanezin diren emakumeen kontrako gerra-makina bat. Gerra-makina hori ez da jolas intelektual bat, boterea eskuratu nahi duen makina bat baizik, herrialde arabiarrek eta musulmanak erregimen erlijioso fundamentalisten pean jarri nahi dituen; horrexek bermatuko luke, haien iritzian, herrialdeen zoriona, eta mugimendu horretan parte hartzen duten mendebaldeko emakume intelektualen aburuz, herrialde horietako emakumeen zoriona lekarke. - Musulmanak izan edo ez, zeren, bistakoa denez, dotrina fundamentalistaren arabera, lege bakarra aplikatzen baita: Sharia.

Islamisten eta feminista islamikoen proiektua Jainkoaren erreinua lurrean gauzatzea da. Eta Jainkoak lagunduko digu horretan, diote. Hauteskundeetan izan dituzten garaipenak lirake Jainkoarekiko itun horren froga. Argi dago herriari zuzendutako mezua dela, baina Europako zenbait intelektualek bere egin dute distantziarik hartu gabe. Islamistak ez dira Tunisiako eta Egiptoko hauteskundeak Jainkoak lagundu dielako irabazi dituztela uste izateko bezain ergelak. Oso ongi dakite zenbat diru kosta zaien. Frantziako France Culture irrati ezaguneko «Petrarcaren topalekuak» irratsaio prestigiotsuan entzun nion arabiar herrialdeetako «ikertzaile eta espezialista» bati: salafistek (islamista erradikalak) honako hau esan omen zioten Tunisiako hauteskundeen ostean: «Jainkoak nahi izan bagintu, % 5 gehiago emango zigukeen hauteskundeetan». Horren ideia ergelak zabaltzeko, aditu honek –Tolosako (Frantzia) Unibertsitateko irakaslea da–, edo pertsona horiek tontotzat hartzen zituen edo arrazismo intelektual itzela erakusten zuen. Ez da adibide txarra Mendebaldetik arabiar herrialdeak nola ikusten diren ohartzeko.

Gure mahai-inguruaren aurkezpenean, moderatzaileak erlijio-askatasuna eta emakumeen askatasuna kontrajarri ditu. Batak bestea eragotziko luke eta, egoera horretan, zer egin emakumeen eskubideekin? Hori esan nahi zuela ulertu dut. Emakumez mintzatzen garenean aurkitzen ditugun paradoxa ugarietako bat ote dugu? Nik beste galdera batekin erantzungo nuke: Egokia

---

al da galdera horrela planteatzea? Zeren, erlijio-askatasunaz ari garenean, nork bere erlijioa praktikatzeko askatasunaz ari gara, eta hori aldeztu beharreko askatasuna da. Baina, esanahi bera ematen al zaio askatasuna hitzari emakumeen askatasunaz ari garenean? Erlijioaz mintzatzean, ez al litzateke zuzenagoa sinestunen kontzientzia-askatasuna eta emakumeen askatasuna kontrajartzea?

Nahiz eta erlijio-askatasuna eta emakumeen askatasuna kontrajartzea, nire ustez, eztabaida bide okerretik planteatzea izan.

Erlijio-askatasunari buruz esango nuke erlijioa ez dagoela, printzipioz, askatasuna, feminismoa edo demokrazia sortzeko egina. Erlijioa beste erregistro batean dago.

Eta ez dago erregistro batetik bestera horrela pasatzerik, pertsonen (emakumeen) askatasunetik erlijioa praktikatzeko askatasunera. Baina galde dezakegu, edo sinestunei galde geniezaieke, zer askatasun duten beren dogmaren barruan. Hori islamisten argudioa baino garrantzitsuagoa da; erlijio-askatasuna da, esaten dute, hitz-jokoa eginez. Emakumeen askatasunaz hitz egiten dugu eta islamistek eta feminista islamikoek erlijio-askatasuna erantzuten digute; emakumeen askatasunaz mintzatzen gara eta «feminista islamikoek» ihardesten digute: «Alienatzeko aske gara». Gorren arteko elkarrizketa da.

Islamistek, oro har, saihestu egiten dute askatasunaren gaia Islamaren barruan. Zer da askatasuna dogma islamikoan? Esan dezagun lehenbailehen: ez dago askatasunik norbanakoarentzat erlijio musulmanean nagusi den dogmaren definizioaren arabera. Ez dago sinesteko edo tradizio islamikoa interpretatzeko askatasunik ere. Ortodoxia islamikoan, eta berorri baizik ez zaio zilegitasunik aitortzen, kontzientzia-askatasuna heriotzarekin zigortzen da; baita pentsamendu-askatasuna ere, apostasia-ekintza gisa hartzen baita.

---

Fatwa askotan eskatu izan da heriotza bestelako Islam bat interpretatzen edo azaltzen ausartu diren intelektualentzat. Esate baterako, 1990eko hamarraldian, Egipton, fatwa batek heriotzara eraman zuen soziologiako irakasle bat emakume izatearen ikuspegitik erlijioa interpretatzen ausartu zelako. Apostasia delituaren errudun deklaratu zuten. Norbaitek ez badu erlijioa praktikatzen den bezala sinesten, apostata bat da. Ezein kritika edo ebaluazio-saiakeretatik bakarturik, kontribuzio intelektual orotatik isolatuta, izuaren tresna politiko bihurturik, Islama, erlijio gisa, arriskuan dago. Portaera-dotrina bat bihurtu da: zer den Zilegi eta zer Debeku, horretan oinarritzen da; bere xedea herriak kontrolatzea eta esklabo bihurtzea da.

Joera hori hain erraz txertatu bada eta gure gizarteek ia fanatismora heltzen den grinarekin onartu badute, arrazoi politikoengatik izan da, ez arrazoi erlijiosoengatik. Erlijioa ez dator zerutik. Aldiz, gizartearen proiektu politikoei estu-estu lotuta dago. Islama eta erlijio guztiak. Horrela hobeto ulertuko dugu duela mende erdi luzetik hona –deskolonizazio garaietatik– mendebaldeko potentzietatik askatutako herrien boterea konfiskatu duten klanek gobernatutako herrialde ez demokratikoetan bizi diren emakume arabiar eta musulmanen egoera. Herrialde horiek gehienak aberatsak dira. Arabiar mundua, oro har, mundu aberatsa da, modernoa, sinetsarazi nahi digutenaren kontrara. Penizilina, C bitamina, zigarretak, irratia, telefonoa, Facebook, eta abar aurkituko ditugu herri horietan; ez dago esaterik, hortaz, herrialde modernoak ez direnik. Modernotasun hori emakumearen mendekotasunaren paraleloan garatu da, paradoxikoa dirudien arren. Erregimen autoritarioentzat familiei eta emakumeei egoera horretan eustea da gizartea politikoki kontrolpean edukitzeko modurik onena. Gizarte horiek erlijioaren inguruan antolatuta dira, nazionalismo identitarioaren inguruan, horrela botere politikotik urrunago egoteko.

Gloria Bonder-ek bere aurkezpenean esan du ez dagoela tradizio demokratikorik arabiar herrialdeetan. Hori egia da, baina ez da ahaztu

---

behar herrialde horiek, beren eliteen bitartez, 50eko hamarralditik gutxienez, mugimendu moderno, libertario eta marxistekin harremanetan egon direla. Diktadura post-kolonialetara iritsiko bazen, mugimendu horiek ezabatu beharra zegoen, kartzelara sartu edo erbestera bultzatu beharra. Herrialde horien historia erresistentziaren historia da. Magrebeko eta arabiar herrialdeetako mugimendu nazionalistak laikoak ziren, marxistak. Askatasun eta modernotasun ideia hauek gure kolonizatu egoeratik mundu modernoaren kontra egindako borroka bortitzetik ikasi ditugu. Beren arma propioekin borrokatu gara kultura horren kontra; kultura horretatik gatoz.

Kolonizazioaren seme-alabak gara; Magrebeko eta arabiar herrialdeak askatu zituzten mugimendu nazionalistak errotuta daude mendebaldeko pentsamenduan. Herri kolonizatueta elite nazionalistak gara; zibilizazio kolonizatzaileen aurka zibilizazio horien arma berekin borrokatu ginenak. Baina, pixkanaka, nazionalismo hori irentsi egin du nazionalismo erlijiosoak eta identitarioak. Nazionalismo identitario uholde hori 70eko hamarraldian garatu zen, 80koan guztiz nagusitzeko: orduan amaitu ziren ideologia aurrerakoiak. Hala, pentsamendu modernoak amore eman zuen pentsamendu erlijiosoaren eta nazionalismo identitarioaren mesedetan. Herrialde arabiar guztietan errepikatu da hori. Eta garaileek berriro idatziko dute historia, herri horien oraina eta frantsesak eta ingelesak joan ondoren etorritako botere autoritario, diktatorialak justifikatzeko.

Tunisiako herria eta Egiptokoa altxatu egin ziren; baita amesgaizto post-kolonialetik esnatu ere. Gaur egun, arabiar munduan, zalantzan jartzen dira 50 urteko zilegitasun gabeko erregimen horiek. Horrenbeste denbora agintean egon badira izan da, independentziaren momentuan, elite horiek iritzi izan ziotelako lehentasuna eman behar zitzaiola herrialdeen hezkuntzari eta garapenari, askatasun eta berdintasun ideiei lehentasuna eman ordez. Emakumeen auzia, beti gertatzen den bezala, gerorako utzi zen. Gero konpontzekotan. Baina ez ginen ohartu botere horiek besteok mendean

---

edukiz mantenduko zirela agintean, eta ez zutela inoiz interesik izango demokraziaren jokoan sartzeko. Arabiar iraultzak ideia nazionalistaz kutsatu gabeko gazteek egin dituzte. Modernotasuna, benetakoa, gizabanakoaren askatasuna aitortzean oinarritzen dena, areriotzat zeukaten boterean zeuden –eta bere garaian konfiantza eman genien– erregimen haiek. Demokraziaren porrot programatu hori gure pentsamenduaren porrota izan da.

Ez gara feministak, demokratak, edo laikoak izan iraultza egin dutenak, baizik eta gazteak, zutik jarri eta «nahikoa da!» esan duten mutil eta neska horiek. A zer ikasgaia! Mediterraneoaren hegoaldeko herrialdeetan lehen aldiz, gizonak eta emakumezkoak izan dira mugimendu politiko eta sozial baten aktore printzipalak. Bagenekien zer zen lurralde bat askatzea, baina ez genekien norbanakoaren askatasuna zer zen. Gure pentsamendua deskolonizazioaren eta liberazioaren bitartez eratu zen, ez genekien ezer askatasunaz.

Askatasuna deseraikitzea da; liberazioa, berriz, helburu xume, garbi eta kolektibo batzuen inguruan egindako eraikuntza. Askatasuna abentura da. Nire Egiptoko lagun batek esan duen bezala, iraultzaren ondoren aukera guztiak ireki zaizkigu, baita nor garen jakitearen beldurra ere. Iraultza existenzial bat da, horrek dakartzan arrisku guztiekin. Iraultzaren bertutea ziurgabetasuna da, diktadurarena segurtamena den bezala.

Orrialde bat pasatu dugu. Tunisiar herriaren borroka Magrebeko eta arabiar herrialde guztietan du eragina. Tunisiatik gainerako herrialdeetara zabalduko da iraultza. Tunisian posible izan da zeren, arabiar herrialde guztietan bezala, beti egon da erresistentzia boterean dagoen diktaduraren kontra, baina herrialde horretan zerbait magikoa gertatu da: gauza izan dira nire garaiko erresistentziarekin –belaunaldi horrek prestakuntza ideologikoa du, demokratikoa, laikoa eta feminista da– kontaktatzeko, eta askatasun irrika pizteko. Eta hori magikoa da.

---

Tunisian gazte hark bere buruaz beste egin zuenean, gerta zitekeen dena bere horretan geratzea. Aljerian, adibidez, egunero immolatzen dira hainbat gazte eta emakume, baina ez dago iraultzarik. Baina tunisier abokatuak ikusi genituenean beren toga eta guzti kalera irten eta manifestariekin bat egiten, orduan, banakako aktore guztiak gainditu zituen zerbait handia gertatu zen. Alain Badiou frantses filosofoak esan zuen bezala: «Iraultza egongo bada, leku fisiko bat egon behar du, hiritar kategoria guztiak biltzeko aukera ematen duen toki bat». Tahir plaza, Kairon, eta Kasbah plaza Tunis, arabiar iraultzen leku enblematiko bilakatu dira. Aljerian, zeina iraultzaren kontrako adibidea bihurtu baita, egunero daude sektorekako manifestazioak: maisuak, erizainak, fruta eta barazki saltzaileak, etxe gabeak, lanik gabeak... baina zein bere aldetik. Poliziak ongi daki zer egin eta plaza guztiak okupatzen ditu, haietara inor sar ez dadin. Plazarik ez badago, ez da iraultzarik! Eta berriro Alain Badiou-ren hitzak gogoratu: "Emakumeak kalera irteten direnean, heldu da iraultza".

---

2. Osoko bilera:  
Arazo globalei  
buruzko ituspe-  
gi desberdinak:  
emakumeen eta  
gizonen berdin-  
tasunaren aldeko  
proposamenak



---

**CHRISTINE EPOLUKE**

**Afrikako (RDC)  
Emakume Ministro eta  
parlamentarioen  
Sareko lehen  
lehendakariordea**

*Afrikako  
emakume  
ministroen eta  
parlamentarien  
sareak duen  
eginkizuna  
Emakumeenes-  
kubideen  
defentsan*



---

## *Sarrera*

Afrikako estatu batzuek –Kongoko Herri-Errepublikak, esate baterako– nazioarteko eta eskualdeko tresna juridiko batzuk berretsi dituzte, eta emakumeen eskubideei buruzko lege batzuk aldarrikatu dituzte; baina horiek oso leun aplikatzen dituzte, eta arazo larria da hori, justizia-zale diren kontzientziak interpelatzeko bestekoa.

Izan ere, zuzentasuna eta genero-berdintasuna sustatzea ez da emakumeei mesede egitea; aitzitik, justizia egitea da, giza eskubideen kontua da, eta hori konpontzeko, Afrikako jendarte osoa inplikatu behar da. Tamalez, emakume afrikar askoren inobilismoa eta faktore soziokulturalak oraindik ere oztopo handia dira emakumeen eskubideak errespetatzeko eta emakumeak erabat garatzeko.

Afrikako errealitatea oso da konplexua, eta, ondorioz, emakumeen elkarteak eta Afrikako Emakume Ministroen eta Parlamentarien Sareak koordinatuta lan egiten dute, Afrikako gobernuak testu juridiko berretsiak eta haien parlamentuetan egingakoak aplikatzera behartzeko, horrela ahalbidetuko baita abialdi sozioekonomikoa, eta, horrekin batera, nazioen garapen harmoniatsua.

Planteatutako gaiari dagokionez, hau izango da nire aurkezpenaren mamia: laburki aipatuko dut zer testu berretsi diren, zer oztopo izan diren testu horiek aplikatzerakoan, zertarako sortu zen Afrikako Emakume Ministroen eta Parlamentarien Sarea eta zer egin duen emakumeen eskubideak defenditzeko, zer aurrerabide egin diren gaurdaino, eta, amaitzeko, gomendio batzuk emango ditut, eta ondorio bat plazaratuko dut.

1.

*Emakumeei  
buruzko testuak  
eta adierazpenak,  
afrikako estatuak berretsiak.*

Honako hauek berretsi dituzte:

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala: 1948

Emakumearen aurkako Bereizkeria modu oro Deuseztatzeko Konbentzioa: 1979

Beijing-eko Adierazpena eta Ekintza Plataforma: 1.995

Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpena: 2000

Horiek berrestez gain, honako hauek izenpetu dituzte:

- Giza eta Herri Eskubideen Afrikako Gutunaren Protokoloa, emakume afrikarren eskubideei buruzkoa: 2003

- Afrikan Genero-berdintasunari buruzko Adierazpen Solemnea (SDGEA): 2004

- Demokrazia, Hauteskunde eta Gobernagarritasunari buruzko Gutun Afrikarra: 2007

Adierazi beharra dago ezen, estatuak testu horiekin bat egin duten arren, genero-berdintasunari eta zuzentasunari buruzko emaitzak oraindik ere desberdintasunaren erakusgarri direla Afrikan. Horregatik, premia-premiazkoa da borroka egitea emakume guztiak kontzientziazteko -nola emakume intelektualak hala emakume nekazariak-, paperean jasota dituzten eskubideak eguneroko bizitzan gauzatu daitezen.

## 2.

# *Testuak aplikatzeko dauden oztopoak*

GENEROAren kontzeptua emakumeen eta gizonen jokabideen estereotipoetan oinarritzen da, eta estereotipo horiek gizartearen eta politikaren emaitza dira. Generoa zer den hobeto ulertzeko, analogia bat egin behar da sexuen artean (maskulinoa eta femeninoa).

### **Sexua biologikoa da; generoa, berriz, eraiki egiten da.**

Afrikako gizarteak, oro har, eta Kongokoak, bereziki, zailtasun itzelak dituzte genero-berdintasuna eraikitzeko: batetik, gizarte afrikarraren errealitateei lotutako oztopoengatik, eta, bestetik, emakume gehienen inmobilismoagatik.

#### 2.1

### **AFRIKAKO GIZARTEARI BURUZKO OZTOPOAK**

- **Faktore soziokulturalak:** gizonak autoritatea adierazten du, eta berak zehazten ditu jokatzeko kodeak eta erregelak. Emakumea atzean geratzen da;
- **Usadioak eta ohiturak:** gizonen eta mutilei permisibitate handiagoa ematen zaie, eta erantzukizun handiagoa hartzen dute; emakumeek eta neskek, berriz, mugatuta eta kontrolatuta dituzte mugimendu eta ekimen guztiak;
- **Analfabetismo tasa handia dago emakumeen artean:** semeak etorkizuneko familia-buru gisa hezten dira, eta horrek pribilegioak sortzen dizkie, alaben hezieraren kaltetan;
- **Zahartzaroaren feminizazioa;**
- **Lanaren banaketa sexista:** diskriminatu egiten da lanak banatzerakoan;
- **Klase politikoaren misoginia:** kontra egiten diote emakumeak politikan egoteari;

- **Emakumeak oso gutxi ordezkaturik daude erabakiak hartzeko instantzietan,** etab. ...

Laburtuz, autoritatea gizonak izatea eta emakumea azpian egotea gai publikoen kudeaketara iragaten dira erakunde politiko, ekonomiko eta sozialen bidez.

## 2.2

## EMAKUMEEI BURUZKO OZTOPOAK

- **Emakume askok ez du interesik “emakumeen elite politikoak” egindako borrokarekiko** (politikoa);

- **Prestakuntza eta informazio falta:** eskubideei buruzko ezjakintasuna;

- **Estereotipoak:** aurreiritzi soziokulturalen ondorioz;

- **Erligioen printzipioak oker interpretatzea:** erlijio-fundamentalismoa;

- **Nesken eskola-uztea:** etxeko lanetarako prestatzeak baino ez du inporta.

Zerrenda ez da osoa.

Oztopo horien ondorioz, Afrikako herrialdeek azpigaratuta jarraitzen dute; izan ere, kontuan hartzen badugu emakumeak direla Afrikako herritarren % 52, emakumeak erabat garatzea betekizun garrantzitsua da garapena lortzeko.

## 3.

## *Sarea sortzearen helburua (REFAMP)*

Biztanleria eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziak (CIPD) garrantzitsutzat jo zuen emakumezko ministro eta parlamentariak Kairon egindako topaguneetan (Egipto, 1994) iragarritako ekintza-programa gauzatzen parte hartzea. Topaketa horien ondoren, REFAMP Afrikako estatu batzuetan sortu zen, CIPDn Ekintza Planari jarraipena egiteko ez ezik, emakumeen eskubideak defendatzeko ere bai; horretarako batez ere.

4.

## *Emakumeen estubideak defenditzeko sarearen eginkizuna*

Emakumeek pairatzen duten diskriminazioa eta bazterkeria ez da hauteskunde-zereginetara eta zeregin politikoetara mugatzen; harago doa, garapenerako garrantzitsuak diren sektore guztiei eragiten baitie.

Auzi arantzatsu hori konpontzeko, erabakigarria da emakumezko ministroek eta parlamentariak parte hartzea, eragina izan baitezakete garapen programak, proiektuak, legeak eta politikak diseinatzerakoan eta gauzatzerakoan.

Idea hori honela labur daiteke:

4.1

### **ZUZENTASUNAREKIN ETA GENERO-BERDINTASUNAREKIN ZERIKUSIA DUTEN POLITIKETAN, LEGETAN ETA PROGRAMETAN ERAGITEA**

- **Botere betearazlearen eta legegilearen arteko lankidetzaz sendotzea:** biztanleriaren eta garapenaren inguruko gaiei buruz hobeto hausnartzeko;
- **Biztanleria eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziako Ekintza Programako helburuak lortzea ;**
- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko legea bozkatzeta:** Afrikako estatu batzuek onartu dute dagoneko;
- **Legeetan dauden xedapen diskriminatzaileak ezabatzea (RDC):** Familia-kodea (emakumeen ezgaitasun juridikoa), lanaren kodea (abantaila

sozialak), zigor kodea (emakumeen adulterioa) ...

- Behar bezala bermatzea genero-dimentsioa sartzen dela alderdi politikoen estatutuetan, barne erregelamenduetan eta proiektu sozialetan.

## 4.2

### **LAGUNTZA EMATEA BESTELAKO GIZARTE BAT SORTZEN: GIZARTE ZUZENAGOA ETA BAKE ETA GARAPEN JASANGARRIKO INGURUNE BATEAN GIZA ESKUBIDEAK ERRESPECTATUKO DITUENA**

- Benetako demokrazia garatzen eta bakea babesten laguntzea;

- Emakumeak politikoki, ekonomikoki, sozialki eta kulturalki emantzipatzen laguntzea;

- **Pobreziaren feminizazioa amaitzea:** emakumeek mikrokredituak baliatu ditzaten lortzea;

- **Emakumeek lurrarekiko duten eskubidea legez bermatzea**

- **1325 Ebazpenarekin bat etorriz, emakumeak gatazka armatuetako negoziazio guztietan eta gatazken konponbidean inplikatzeko:**

Emakumeak eta umeak izaten dira biktima nagusiak gatazka armatuetan, Afrikan, oro har, eta Kongoko Herri-Errepublikan, bereziki.

## 4.3

### **AURREIRITZI SOZIOKULTURALAK ERAUZTEA ETA SEXU BIEN ORDEZKARITZA BIDEZKOA ETA BERDINZALEA BILATZEA ERABAKIAK HARTZEKO ORGANOETAN (NAZIOARTEKOETAN, ESKUALDEKOETAN ETA NAZIONALETAN)**

- **Usadio eta ohitura atzerakoiak egiteari uztea:** alargunei tratu txarrak ematea, umezurtzei bidegabe ebastea, ezkontza goiztiarrak egitea, sexu-mutilazioa egitea, sorginkerian sinestea, ...

- **Etxeko indarkeria erauzteko:** tratu txarrak eta etxeetan emakumeak ez ba-

---

loratzea (jotako eta umildutako emakumeak);

- Gizona-emakumea parekotasuna aplikatzea izendapen-karguetan (gobernua, enpresa publikoak, kanpo-ordezkaritzako postuak,...)

#### 4.4

### ESKUBIDEEN DEFENTSAN EMAKUME LIDERREK DUTEN GAITASUNA INDARTZEA, EMAKUMEEN ETA NESKATILEN ALDEKO NEURRIAK SENDOTZEKO

- **Emakumeak eskubideei buruz informatzea eta hezteak:** nazioarteko, eskualdeko eta nazioko testuen berri ematea;

- **Analfabetismoaren kontra borrokatzea:** landa-eremuko emakumeen gaitasunak ere sendotu behar dira (emakume liderrak identifikatu landa-eremuetan) ;

**Defendatzen den kausarekin ahalik eta emakume gehienek bat egin dezaten sustatzea:** egindako ekintzei ikusgarritasun handia ematea.

#### 4.5

### EMAKUMEEK ZER ESKUBIDE DITUZTEN JAKIN DEZATELA SUSTATZEA: GIZARTEAN NAHI DUTEN ADIERAZTEKO ESKUBIDEA, ELKARTEAK EGITEKO ETA ELKARTEETAN SARTZEKO ESKUBIDEA ETA BEREN BIZI-BALDINTZAK HOBETZEKO, DEFENDATZEKO ETA ADIERAZTEKO ESPARRUAK LORTZEKO ESKUBIDEA

- **Emakumeak sektoreka antolatzea:** epaileak, abokatuak, medikuak, ortuzainak, maistrak, ekonomialariak, irakasleak ...

Garrantzitsua da emakume-talde horien lan koordinatua, eta nahi diren emaitzak emango ditu.

## 5.

# *Orain arteko lorpenak*

Hegoaldeko Afrika Garatzeko Erkidegoko (SADC) emakumeek egindako kanpainaren ondoren, 15 estatu kideek -besteak beste Kongoko Herri Errepublikak-, Generoari eta Garapenari buruzko **Protokolo lotesle bat** sinatu zuten, 2008ko abuztuaren 17an, Johannesburgon. **Muga** bat ezarri zen protokoloa gauzatzeko: 2015. urtea.

Protokoloaren edukia, laburtuta:

**Sexuen arteko berdintasuna eta garapena indartzeko oinarriak ezartzea Konstituzioan eta legetan;**

**Emakumeek prozesu politikoetan eta erabakiak hartzeko guneetan duten partaidetza areagotzea: parekotasuna lortzea sektore guztietan;**

**Behar diren neurriak hartzea emakumeek hezkuntzaren eta osasunaren arloan dituzten beharrei erantzuteko;**

**Behar diren neurriak hartzea emakumeek GIB eta HIESaren arloan dituzten beharrei erantzuteko;**

**Emakumeek ekoizpen-baliabideak eskuratu eta kontratu ditzaten laguntzea:** lurra lortzea, kredituak, informazioa eta teknologiak...

**Genero-indarkeriaren aurkako zero tolerantziaren kultura sustatzea maila guztietan:** familian, erkidegoan, erlijio- eta kultura-taldeen, Estatuan ...

**Sexuen arteko berdintasuna sustatzeko, komunikabideek eta informazio-bideek duten zeregina indartzea.**

Kongoko Herri Errepublikak, protokolo horri jarraituz –protokoloa sinatu duen aldetik–, honako hauek jasotzen dituzten lege batzuk onartu ditu:

- Sexu-indarkeriari buruzko legea
- GIP eta HIESA duten pertsonen buruzko legea: 2008
- Umeak babesteari buruzko legea: 2008
- Gizona-emakumea parekotasuna aplikatzeari buruzko legea; parlamentuan onartu zain dago.

Eta hau jarri du praktikan:

- Emakumea, familia eta umea sustatzeko zelula estrategikoa; 2009
- Emakumeen, nesken eta neskatilen kontrako indarkeriari aurre egiteko Agentzia Nazionala: 2009
- Emakumea eta Hautzaroa sustatzeko Funtz Nazionala: 2009
- Emakumeen kontseilu nazionalak eta lokalak birgaitzea eta indartzea: 2008-2009

Zifrei begiratuta, lorpenek ez dute aldaketa esanguratsurik eragin, nahiz eta lorpenak berez pozgarriak izan. Genero-berdintasunari eta zuzentasunari dagokionez, estatistikak oraindik ere kezkarriak dira gizartearen eremu guztietan.

6.

## *Gomendioak*

- **Demokrazia ezartzea eta sustatzea:** Demokrazia, parte hartzean eta ordezkartasunean oinarritutako sistema den aldetik. Genero-berdintasunaren eta demokraziaren elkarketa aktibo garrantzitsu bat da emakumeek erakunde publikoetan duten ordezkartza behar baino txikiagoa izatearen arazoa konpontzeko.
- **Emakumeak bultzatzea alderdi politikoetan eta elkarte-mugimenduetan parte har dezaten eta postu estrategikoak har ditzaten.**
- **Gobernantza ona sustatzea:** giza baliabideak, baliabide ekonomikoak eta finantzarioak eraginkortasunez eta efizientziaz kudeatzea, genero-berdintasunaren dimentsioa sartuta.

- 
- **Genero-berdintasunaren kultura sustatzea.**
  - **Erkidegoa sentsibilizatzea, emakumeen erabateko garapena oztopatzen duten usadio eta ohitura atzerakoien kontra egiteko.**
  - **Zuzentasunaren eta genero-berdintasunaren alde mobilizatutako giza baliabideen gaitasuna indartzea.**
  - **Emakumeen eskubideei buruz nazioartean, eskualdean eta nazioan dauden tresna juridikoak zabaltzea.**
  - **Jatorri desberdinetako emakumeen arteko topaketak biderkatzea, esperientziak trukatzeko, landa-emaitzak ebaluatzeko eta konparatzeko, eta desbideratzeak zuzentzeko estrategiei buruz hausnartzeko, emaitza orokorrak hobetu ahal izateko.**

7.

*Ondorioa*

..... **“emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubideei dagokie; justizia sozialerako baldintza bat da, eta ez da isolatuta hartu behar, emakumeen kontu bat balitz bezala. Hori da bide bakarra gizarte bideragarri, zuzen eta garatu bat lortzeko. Emakumeen ahalduntzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezinbesteko baldintzak dira herrialde guztien segurtasun politikoa, soziala, ekonomikoa, kulturala eta ekologikoa lortzeko”.** Beijing-go plataforma.

Ondorioztatzen denez, generoagatiko diskriminazioa inbutu bilakatzen da hazkuntzarako eta garapenerako.

Eskerrik asko.

---

**KATE LAPPIN**

**Asia Pacific Forum on  
Women, Law and  
Development (APWLD)  
erakundeko  
lurralde-koordinatzailea**



---

Eskerrik asko, Teresa. Buenas tardes, amigas. Arratsalde on, lagunak.

Eskerrak eman nahi dizkiet antolatzaileei, Asiako eta Pazifikoko emakumeak, eskubideak eta garapena bultzatzen dituen APWLD Foroa hitzaldira etortzera gonbidatzeagatik. Elkartasunezko ekintza garrantzitsua da beste eskualde batzuetako mugimendu feministekin hitz egiten saiatzea, eta, orobat, argi erakustea nazioarteko elkartasuna beharrezkoa dela gizartean sakon errotuta eta elkarren artean lotuta dauden esplotazio-formei aurre egiteko. Izan ere, maiz, ondo ohartzen gara gero eta globalizatuagoa dagoen mundu batean bizi garela, eta, hala ere, ez gara konturatzen genero-berdintasuna esparru global horren barruan dagoela aztertu beharra. Genero-berdintasuna gure erkidego, nazio edo eskualdeen barruan baizik ez badugu aintzat hartzen, eta uste badugu gure erkidegoan gizonak izaten dituzten aukera eta irteera berdinak izatea dela berdintasuna, arriskua dugu, globalizazioaren bidez, desberdintasunak kanporatzeko eta gure pribilegioen oinarri diren desberdintasunei ez ikusia egiteko.

Horregatik, pozgarria iruditu zait goizeko bi txostengileen esanak entzutea. Arriskuek izaera globala dutela azaldu digute –bereziki, giza eskubideei begira–, eta arrisku horiei elkartasun globalaren bidez erantzun behar diegula.

Aurrera jarraitu aurretik, ohar bat egin nahi nuke. Mugimendu feministek Asian eta Pazifiko aldean izaten dituzten zailtasunak ekarriko ditut hizpidera. Baina azpimarratu nahi dut oso zaila dela halako eskualde zabal bati buruz hitz egitea. Asiak eta Pazifiko aldeak mundu osoko populazioaren % 60 hartzen dute. Gure kideak 25 estatutan eta 5 azpieskualdetan daude banatuta (Asiako Hegoaldea, Asiako Hego-ekialdea, Asiako Erdialdea, Asiako Ekialdea eta Pazifiko aldea). Inon baino aniztasun handiagoa daukagu, beraz, munduko inguru horretan: bai hizkuntzan –ez dago hizkuntza komunik–, bai kulturen, bai erlijioan, bai sistema politikoetan, bai garapen ekonomikoan... Zaila da orokortasunetara ez jotzea. Mugimendu feministek era askotako erronkak dituzte aurrean, etengabe.

---

APWLD foroak laguntza eta babesaren eman behar dire mugimendu feministei, ikerketa, aktibismoa eta gaitasunak indartzeko. Sistema patriarkalak globalizazioarekin, fundamentalismoarekin eta militarizazioarekin bat egitean, desberdintasunak areagotu egiten dira, eta, hain zuzen, desberdintasun horien egiturazko azterketan oinarritzen da gure lana. Asia eta Pazifiko aldean dauden desberdintasunen sorburuak hiru horiek dira: globalizazioa, fundamentalismoa eta militarizazioa. Lan-esparru horretan kokatzen dira gure babes-jarduerak eta azterketak, gure ki-deek estatuan eta toki-mailan izan dituzten esperientzietan oinarrituta.

Ikuspegi horretatik, bi proposamen egin nahi ditut, nazioarteko feminismoak behar duen azterketa motari dagokionez. Lehenik eta behin, adierazi nahi dut genero-berdintasuna aztertzeko orduan ekonomiaren, politikaren eta ingurumenaren sistema globalak kontuan hartzen ez dituzten saiakerak denbora-pasa hutsak edo aitzakiak besterik ez direla. Gaur goizean, neoliberalismoak limurtzeko duen gaitasuna izan dugu entzungai. Nire ustez, horrek bultzatu nahi gaitu generoko desberdintasunetik gizon eta emakumeen arteko aukerak «parekatu» nahi dituztela pentsatzera, edo, desberdintasuna neurtzeko, enpresetako zuzendaritza-batzarretan, ordezkaritza-batzordeetan edo parlamentuan dagoen emakume-kopurua edota milioi asko dituzten emakumeen kopurua har dezakegula aintzat... Hori guztia neoliberalismoak limurtzeko duen gaitasunaren zati bat da. Etengabe gonbidatzen gaituzte emakumeak ahalduentzeko prozesuaz hitz egitera, baina enpleguaren merkatu globalean sartzen den emakume kopurua kalkulatzera mugatzen dute kontua.

Neoliberalismoak limurtzeko duen gaitasun hori oso nabaria izan zen iaz, munduko gobernuak Koreako Busan hirian bildu zirenean, Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Goi Mailako Foroan. Bilera horretan, Ameriketako Estatu Batuetako Gobernuak proposamen bat egin zuen, Busango Generoko Berdintasun eta Garapenerako Ekintza Plan berria ateratzeko. Plan horrek bigarren mailara baztertzeko du genero-berdintasuna, hazkunde ekonomikorako tresna huts bat balitz bezala. Hiru alderditara murrizten du genero-berdintasuna: hezkuntza, enplegua

---

eta enpresa-berrikuntza. Plana aurkezteko ekitaldia Munduko Bankuak eta Amerika Arteko Bankuak antolatu zuten, besteak beste. Plan horrek, genero-berdintasunari dagokionez, «jardunbide egokitzat» jotzen zuen merkataritzako banku batek landa-guneetan test psikometrikoak sartu izana. Test psikometriko horien ondorioz, gora egin zuen emakumeei emandako kredituen kopuruak –emakumeek enpresa-berrikuntzarako joera gehiago zutela ikusi zutelako–, eta hori genero-berdintasun mota bat zela erabaki zuten. Bestetik, beste adibide hau eman zuten: errepideak eraikitzeke proiektu batean, emakume gehiagok hartu zuen parte langile moduan, eta, horren ondorioz, errepidea eraginkortasun gehiagoz eta kostu zein atzerapen gutxiagoz egin zuten. Horrela, bada, genero-berdintasuna negoziarako onuragarria dela adierazi zuten.

Busango ekitaldiak argi erakutsi zuen ohiko diskurtsoa nolakoa den: genero-berdintasuna beharrezkoa da hazkundera sustatzeko. Baina horrek ez du batere zerikusirik emakumeek giza eskubideak izatearekin. Gainera, genero-berdintasunari buruzko diskurtsoa desberdintasuna sustatzen duten eta desberdintasunean oinarritzen diren egiturak sustatzeko erabiltzen da Errepidea eraikitzeke proiektua desberdintasunean oinarritzen da, kostuak murrizteko, lan-eztabaidak saihesteko eta proiektuarekiko konplizitatea pizteko. Asian, hazkunde ekonomikoa panazeatzat hartu da, generoko desberdintasunari begira. Hala ere, horren orde, nik esango nuke irauan ahal izateko oinarritu dela genero-desberdintasunean. Emakumeen eskulana merkea eta ugaria izatean oinarritu da.

Idea horietatik abiatuta, aurkeztu nahi nuen bigarren puntura iritsi naiz: feminista garen aldetik, desberdintasunaren zantzuetatik harantz begiratu behar dugu, eta etengabe egin behar diegu aurre desberdintasunaren egiturei. Lehen esan dudanez, APWLD foroan ikusi dugu sistema patriarkalek fundamentalismoarekin eta militarizazioarekin bat egitean sortzen direla egiturazko desberdintasunak. Ezin dugu lehen bezala jarraitu, gure arreta osoa gizonen eta emakumeen egoerak erkatzera bideratuz. Sistemari aurre egiten ez badiogu, eta gure inguruneke gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak eztabaidatzera mu-

---

gutzen bagara, azkenean, berdintasuna eskatuko dugu pobrezian bizitzeko, lan-eskubiderik gabe lan egiteko, hezkuntza pribatizatua izateko, edota atzerriko banketxeekin zorrak hartzeko; hala, bada, gure indar ekonomikoaren arabera aintzakotzat hartuak izateko berdintasuna egongo gara aldarrikatzen.

Bereizkeria ezaren paradigmatic harantz joan behar dugu, eta, ziurrena, generoko berdintasunaren nozioetik harantz ere bai. Emakumeen eskubideak izan behar ditugu ardatz, bizitza duina izateko dugun eskubidea gauzatze aldera. Zeregin feministak baztertuen dauden emakumeentzat eragina izan dezan, ezinbestez egin behar diegu aurre herrialdeen artean, herrialde aberats eta pobreen artean, eta emakume eta gizonen artean aberastasun, baliabide eta botere aldetik dauden desberdintasunei.

Orain dela gutxi, APWLD foroko kideok bilera egin genuen, gure mugimenduak izan dituen lorpenez hausnartzeko, eta, CEDAW (Emakumearen aurkako mota guztietako bereizkeriak ezabatzeari buruzko biltzarra) 30 urtez aritu ondoren, aurrerapenak eta erronkak aztertzeko. Jakin nahi dugu zer esan nahi duen emakumeentzat «Asiako mendearen» zati izateak. CEDAW mugarri garrantzitsua izan da feminismoaren historian, zalantzarik gabe. Hari esker, mundu osoan legez onartu zen emakumeen eskubideak giza eskubideak direla, eta, beraz, estatuek neurri proaktiboak hartu behar dituztela ezinbestez bereizkeria ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko. Biltzarrak funtsezko aldaketak ekarri zituen araudi eta politiketan, eta berrespen zabala jaso du. Hala ere, zer esan nahi ote du pobrezian bizi ziren eta pobrezian bizitzen jarraitzen duten emakumeentzat? CEDAW biltzarrari esker, diskurtso feminista nazioartean instituzionalizatu zen, baina 80ko hamarkadan aro berri bat sortu zen: demokraziaren murriztearena eta globalizazio neoliberalarena. Merkatuak hasi ziren gobernuen lekuan agintzen. Aro berri horretan, esku gutxi batzuek izugarriko aberastasuna lortu zuten, eta gainerakoak, berriz, pobrezian eta desberdintasunean murgildu ziren. Nola izan litezke bateragarri bi alderdi horiek? Ohartu behar dugu norbanakoaren askatasunekin lotu zela genero-berdintasuna, baina beste xede bat behar zuela:

---

diskurtso ekonomiko eta kulturaletan, eta politikak banatzeko sistemetan txertatuta zeuden desberdintasunezko egiturak eraistea.

Neoliberalismoak eskaintzen zuen «munduko ordena berri» horretatik sortutako sistemek krisi ugari ekarri zituzten; gaur goizean hizpide izan ditugunak, hain zuzen. Finantza-krisiak, krisi ekologikoak, demokraziakoak, elikagai eta energiakoak; zuzen-zuzen lotuak denak, askatasunaren azken adierazpide gisa, kontsumoa eta ekoizpena ugaltzeko joerarekin. Krisi horiek guztiek bi osagai dituzte: lehenik, planetako hegoaldeko emakumeengan dute eragina gehienbat, eta, bigarrenik, planetako iparraldeko gizonek sortu dituzte batez ere. Krisi horiek konpontzeko moduari buruzko elkarrizketa, dirudienez, Asiako emakumeen eskuetan dago bereziki. Jakintzat ematen da Asiaren hazkunde ekonomiko etengabeak orekatu egiten duela iparraldean dagoen atzerapen ekonomikoa. Hala ere, hazkunde hori lortzeko, eskulan merkea eta arautu gabea behar da; emakumeena.

Globalizazioaren ondorioz, emakumeak gehiago hartzen du parte lan-arloan Asiako herrialde askotan. Zein izan da, baina, horren kostua? Berdintasunaren eredu neoliberalaren arabera, ezinbestekoa da Asiako emakumeen produktibitatea handitzea, hazkunde globala sustatzeko. Alabaina, emakumeen lan-merkatu horren onuraren zati handi batek gabeziak ditu oinarrian: arauketen, lan-segurtasunaren, lan formaleko kodeen, emakumeak bizitzeko soldata duinaren (emakumeen kargura mendeko pertsonarik ez dagoela kontuan izanda) eta sindikatuen gabezia. Asiako emakumeen soldatapeko lan gehiena etxeko lana da. Horixe da, hain zuzen, Asiako herrialdeetako emakumeek migratzeko duten arrazoi nagusia. Hala ere, etxeko lanak egiten dituzten emakumeak lan-arauditik kanpo geratzen dira eskualdeko herrialde gehienetan. Etxeko lanak egiten dituzten emakumeek gehiegikeria nozitzen dute egunero, soldata ukatzen zaie, gutxitan izaten dute egun librerik, ezin dira sindikatuetakoa kide izan, 'agenteekin' zorpetuta bizi dira –horiek hartzen baitute emakumeen soldata gehiena lehenengo 6-12 hilabeteetan–, eta, maiz, zorpetutako lan-mota horretatik bizi dira, azkenean, beren etxetara itzultzen diren arte.

---

Bestalde, globalizazioaren ondorioz, gora egin du korporazioek eta gobernuek lurak berenganatzeko zuten joerak, eta komunitateen nahitaezko lekualdatzeek ere bai. Horrek emakumeengan du eraginik handiena, lurak galtzen dituztelako eta, beraz, elikadura-burujabetza ere bai. Adibidez, orain dela gutxi, gure kideek Kanbodiako hiru kasuren berri eman ziguten: merkataritzarako oso etenkitsuak ziren lurretan bizi ziren hainbat komunitate beren lurretatik egotzi zituzten. Egoera horren kontra sortu ziren protesten buru emakumeak izan ziren. Komunitate horietako batean, Boeung Kak aintziran, hamabost manifestari atxilotu zituzten –horietatik hamalau emakumeak ziren–, eta, bi eguneko epean, bi urteko espetxe-zigorra ezarri zieten, beren lurretatik egozteko prozesua geldiarazi nahi zuen mugimendu bateko kide izateagatik. Azken hilabeteetan, antzeko kasuak izan dira Papua Ginea Berrian eta Nepalen.

Lurrez jabetzeko kasuek gora egiten dute, eskualdean izaten diren hondamendi naturalen ondorioz. Asia eta Pazifiko aldean da hondamendi natural gehien izaten duen munduko eskualdea, eta emakumeek nozitzen dute zama gehiena. Hondamendi naturalak direnean, emakumeen heriotza-tasa handiagoa izaten da gizonena baino (adibidez, Bangladeshen 1998an izandako uholdeetan, % 90). Gainera, emakumeek epe luzera sufritzen dute, nekazaritzako eta bizibidea ateratzeko lurak galtzen dituztelako.

Lurren inguruko liskarrak eta elikagaien eta uraren krisiak gero eta sarriago militarizatzen dira eskualde osoan. Gobernuak eta gobernuz kanpoko erakundeak aritzen dira borroka militarizatuetan. Industriek lurak berenganatzen dituzte, eta, horretarako, babes militarraz baliatzen dira, batez ere alderdi indigenetan.

Fundamentalismoa ere goraka ari da eskualdean, gaur goizeko hitzaldietan nabarmendu denez. Zalantzarik gabe, zuotako gehienok ondo jakingo duzue zer-nolako ondorioak izaten dituen fundamentalismoak emakumeen gorputzean. Fundamentalismoa etengabe erabiltzen dute tresna politiko eta aginte militar gisa, hala bere aurkakoek, nola aldekoek.

---

Aurreko eztabaidan, galdera hau entzun dugu: nola eragiten dio horrek guztiak mugimendu feministari?

Gure kideak hainbat kanpainatan parte hartzen ari dira, bestelako eredu bat eskatzeko. Nagusi den paradigma kritikatu dugu, eta, orain, beste ikuspegi bat eskaini behar dugu, mundu zuzenago, iraunkorrago eta bidezkoago bat lortzeko. Ikusten dugunez, aukera ederra dugu horretarako garapenari buruz egiten diren eztabaidetan –hala Rio +20 Gailurrean, eta garapen iraunkorrerako gainerako helburuetan, nola MGHen (Milurtekoko Garapen Helburuen) ondoko agendan–. Ezinbestez eskatu behar dugu beste eredu bat gobernantza globala gauzatzeko, eta beste ikuspegi bat garapena lantzeko. Gure kideen bideo bat erakutsiko dizuet. Bertan, garapenerako esparru berri horren helburu nagusiak azaltzen dira. Bideoaren lotura: <http://apwld.org/our-work/feminist-development-justice-shaping-the-new-development-agenda/>

Hortaz, garapenerako bestelako agenda bat behar dugu. Eta giza eskubideek adierazi behar digute jarraitu beharreko bidea zein den, ez onura ekonomikoek. Agendak ondo zehaztuta eduki behar ditu helburuak, lan duina, gutxieneko soldata unibertsala eta babes soziala eduki ahal izateko. Lurrak eta baliabideak banatzeko aukera eman behar digu, emakumeen aurkako era guztietako indarkeriak ezabatzeko. Emakumeek beren ahotsa entzunarazi behar dute, eta bermatuta izan behar dute botere-maila guztietan erabakitzeke duten eskubidea. Justiziarri buruzko ikuspegi berri bat sorraraziko dugu horrela. Garapen-esparru berriak birbanatzailea izan behar du, eta ekonomia globalean izaten diren aberastasun-metaketa lotsagarriak zuzentzea izan behar du xede. Aberastasunak, baliabideak eta boterea herrialde aberatsen eta pobreen artean, eta emakume eta gizonen artean, birbanatzeko helburua jaso behar luke.

Azkenik, amaitu aurretik, hona nire ondorioa. Une hauetan behar dugun aldaketa lortzeko, legeak aldatzea edo tresna berriak eraikitzea baino garrantzitsuagoa da elkarri lotutako mugimendu indartsu eta sendoak sortzea. Horregatik, izugarri

---

eskertzen dugu beste mugimendu batzuekin harremanetan jartzeko aukera izatea, horrek mundu osoan ahots feminista bateratua sortzen lagunduko digulako. Eskerrik asko, beraz.

---

*3. Osoko bilera:  
Europako  
berdintasun  
-politikak eta  
esku hartzeke  
estrategiak*



---

**PAOLA VILLA**

**Ekonomia eta  
Kudeaketa  
Saila – Trentoko  
Unibertsitatea**

*Genero-  
berdintasuna  
eta Europako  
Enplegu  
Estrategia:  
analisi kritikoa*



**1.**

Europar Batasuneko enplegu-politikak 1997. urteaz geroztik koordinatzen dira; hain zuzen ere, Europako Enplegu Estrategia (EEE) abian jarri zenetik. Horren haritik, agerian geratu da eraginkorra izan dela pentsamendu politikoak eratzeko eta gobernua lan-merkatuaren alorrean erreforma politikoak ezartzera bultzatzeko. Hauek izan dira, hasierako fasean batik bat, Europako Enplegu Estrategiaren (EEE) funtsezko alderdiak: emakumeen enplegua, genero-berdintasuna eta aukera-berdintasuna sustatzea. EEEren eta estrategia horretan gauzatutako eguneraketa ororen xede nagusia, hain zuzen, izan da enplegu-maila orokorra handia lortzea, demografiaren arazoari aurre egiteko. «Baby boom»aren seme-alabak; alegia, Bigarren Mundu Gerraren ostean jaioetakoak, erretiroa hartzeko adinera gerturatzen ari diren neurrian, 65 urtetik gorako pertsona-kopurua izugarri hazten ari da, eta aldi berean, lan egiteko adina duten herritarrena gutxitzen. Egitura demografikoan halako aldaketak gertatzen direnean, ezinbestekoa da enpleguaren oinarria zabalitzea, etorkizunean ongizate-sistemak izango ditugula ziurtatze aldera. Eta horretarako, behar-beharrezkoa da emakumeen enplegu-tasak gora egitea. Baina emakumea lan-merkatuan integra dadin sustatzeko, ezinbestean egin behar zaie aurre genero-desberdintasunei.

Lehendabiziko urteetan, nabarmena zen Europar Batasunak enpleguaren alorreko genero-berdintasunarekiko konpromisoa zuela. Baina EEEren baitan abian jarritako politiken bilakaera ikusita, ikusgarritasun gero eta gutxiago izan dute genero-berdintasunak eta aukera-berdintasunak, eta batez ere, nabarmen geratu da hori 2010eko azken eguneraketan. Izan ere, genero-ikuspegia kontuan hartu beharra erabat desagertu da.

Artikulu honetan, Europako Enplegu Estrategiaren (EEE) analisi kritikoa egiten da, eta horretarako, 1997. urtean estrategia sortuz geroztik egindako

---

eguneraketak aztertu dira. Hain zuzen, azterlan honen xedea da egiaztatzea lortu beharreko helburu kuantitatiboak (emakumeen enplegu-tasak gora egitea) bat egin duen genero-berdintasuna lortzearekin. Aztergai hartutako alderdia da gizonen eta emakumeen arteko genero berdintasunarekiko eta aukera-berdintasunarekiko interesa -oso nabarmena EEE lehendabizikoz idatzi zenean- benetako kezka den genero-berdintasuna bera helburu gisa lortzeko, edo lan-merkatuaren alorreko genero-berdintasuna beharrezko bitarteko gisa hartzen den EBk adostutako enplegu-helburu orokorrak lortzeko.

2.

## *Enplegurako eta genero-berdintasunerako Europako estrategia*

Hazkunde ekonomiko handia eta langabezia-tasa txikia izan ziren bigarren gerraosteko ezaugarri bereizgarriak, eta Europako ekonomiaren urrezko aroa izan zen, baina 1970eko hamarkadako petrolioaren krisiak eten zuen. Langabezia-tasak etengabe egiten zuen gora ziklotik ziklora, eta 1990 urtearen hasieran % 11tik gorakoa zen. Langabezia-tasa handi eta gorakorrak ondorio hauek eragin zituen: hazkunde ekonomiko txikia, luzaroko langabeziaren ehuneko handiak, enplegu-tasa txikiak (batez ere, gazteena, adineko langileena eta emakumeena), biztanleriaren zahartzea eta ongizate-sistemei eusteko gero eta arazo handiagoak.

Enpleguaren alorrean egoerak hobera egiteko eztabaida 1993an jarri zen abian Europar Batasunean; hain zuzen, orduko Europako Batzordeko presidente Jacques Delors-en Hazkundera, lehiakortasuna eta enplegua Liburu Zuria argitaratu zenean. Liburu Zuri horrek eztabaidaren ikuspuntua aldarazi zuen (langabezia-tasa handiaren ordez, enplegu-tasa txikia), eta lan-alorreko politikak keynestar motako politika makroekonomikoekin uztartzea zuen xede. Eztabaida bizia izan zen, eta

enpleguaren alorrekin zerikusia zuten dokumentuak, adierazpenak eta ebazpenak ugaritu egin ziren pixkanaka. Eztabaidak izan zuen bilakaera horren ondorioz eta Europar Batasuna eratzeko Ituna berrikusi ondoren, 1997ko ekainean (Amsterdamgo Kontseilua) enpleguari buruzko berariazko kapitulu bat gehitu zen itunean, eta 1997ko azaroan (Luxenburgoko Kontseilua) EEE eman zen argitara, modu formalean. Hau da, EBn adostutako helburuak lortzera bideratutako enplegu-politiken koordinazioa (estatu guztietakoak) oinarri zuen gobernantza-sistema bat.

Gogoan izan behar da Europako integrazio ekonomikoaren prozesua abian zenean, 1957 urtean, gizarte-alorreko politika estatuen esku uztea erabaki zela. Europako Erkidegoan integrazio ekonomikoak eta monetarioak lehentasuna zuten, eta 1990eko hamarkadan lehentasun horri garrantzi handiagoa eman zitzaion, integrazio ekonomiko eta monetario europarra azkartu egin baitzen<sup>1</sup>. Enpleguaren eta gizarte-ongizatearen alorreko sistemak estatu kideek soilik alda zitzaizkiren<sup>2</sup>, nabarmen handitu zen langabezia-tasa handiaren, enplegu-tasa txikiaren eta «Europako gizarte-eredua» (hau da, gizarte-babeserako estatu-tasak) deituaren jasangarritasunaren gaineko kezka 1990eko hamarkadan EBn. Aurreko hamarkadetan hainbat saiakuntza egin ziren integrazio ekonomikoaren gizarte-dimentsioa garatzeko, baina ez zuten arrakasta handirik izan. Alabaina, 1990eko hamarkadan, EBko politikei buruzko jarraibideak antolatzeke arduratzen zuten hainbat eragile-talde ados jarri ziren saiakuntza horien helburu nagusia ezartzeko: enplegu-tasa orokorra handitzea, estrategia koordinatu baten bidez. Bai helburu nagusia

---

(1) 1992ko Maastrichteko Itunak, Europako Batasun Monetarioak (EBM) eta Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunak (EHI) agerian utzi zuten interes ekonomikoek zutela lehentasuna (hau da, merkatu-politikek), eta hala, estatu-tasak gobernuek ahalmen gutxiago zuten nork bere helburu sozio-politikoak lortzeko.

(2) Europako gobernantza-sistemaren oinarrian dago lana Europa-mailan eta estatu-mailan banatzea: zenbait politika Europa-mailan erabakitzen dira (merkatuaren batasuna, eta eskumenei zein moneta-politikari buruzko legeak) eta beste batzuk, berriz, estatu-mailan (enplegua, gizarte-politikak, pensioak, hezkuntza, etab.).

---

(enplegu-tasa handitzea), bai metodologia (estrategia koordinatua, lan-politiken alorrean) modu formalean gehitu ziren 1997an onartutako Amsterdamgo Itunera.

EEE, Itunean ezarrita dagoenaren arabera, enplegurako jarraibide ez-lotesleen bidez dago formulatuta, eta jarraibide horiek estatuetako gobernuztat bideratuta daude, enplegu-politikei dagokienez. Jarraibide horiek lagungarriak dira, hasieran, Europako lan-merkatuetan zer arazo dauden identifikatzeko, eta horrela, estatuetako politiken ardura dutenek jakin dezaten zer aldaketa egin daitezkeen. Prozesu horretan ezinbestekoa da Kontseiluak, Batzordeak hala eskatuta, estatu guztientzat jarraibide komunak ezartzea. Jarraibide horiek, halaber, estatuetako enplegu-politiketan adierazi behar dira, eta estatu kideek politika horiei buruz informatu behar dute urtero dokumentu baten bidez. Estatuak egindako dokumentu horiek Batzordeak aztertu egiten ditu gero, eta berariazko gomendioak ematen dizkiete estatu kideei (herrialde bakoitzarentzako berariazko gomendioak; CSR, ingelesez).

Gobernantza-sistema berri horrek, Koordinaziorako Metodo Irekia (KMI) esaten zaionak, loteslea ez den zuzenbidearen mekanismoak ditu oinarri; esate baterako, gomendioak, konparaziozko ebaluazioa (benchmarking) eta adituen azterketa, monitorizazioa edo jarraipena eta jardunbide egokiak bateratzea<sup>3</sup>. Europako enplegu-politikaren alorrean, KMIk lege-oinarria du, baina enpleguari buruzko jarraibideak ez betetzeak (esate baterako, estatu kideren batek adostutako lehentasunak politiketan aplikatzen ez dituenean) ez dakar zehapenik. 1999 urteaz geroztik, Kontseiluak urtero egiten duen azterketa hori dela-eta, adierazi dezake aurrerapenak ez direla egokiak zenbait politika-alorretan, edo zenbait estatu kidek neurriak ezarri behar dituztela politika-alor jakinetan. Herrialdez herrialde ematen dituen gomendio horiei esker (CSR), estatu kideen politika-alorreko noranzkoa ez da beti berdina; izan ere, jarraibideei dagokienez, kontuan hartzen da estatu

---

(3) Gobernantza-eredu hori lehendabizikoz EEEen erabili zen, eta gero berehala hedatu zen gizarte-politikaren zenbait alorretara (gizarteratzearen alorra, hezkuntza, pentsioen erreforma, etab.).

---

bakoitzaren egoera eta bilakaera, bai eta genero-berdintasunarekin eta genero-ikuspegia kontuan hartzearekin zerikusia duten gaiak ere.

Enplegu-tasak gora egin zezan sortu zen EEE 1997an, helburu izanik enpleguaren oinarria hedatzea, «Europako gizarte-eredua» babesteko, gizarte zahartu batean. Enpleguaren alorreko helburuak lan-merkatua arautzen duten politiken bidez lortzen dira, eta ez neurri makroekonomikoen bidez. Izan ere, diagnostikoaren arabera, egiturazko langabezia-tasa handia izateak adierazten zuen lan-merkatua (hau da, langileak eta lanpostuak) ez zela gai aldaketara egokitzeko. Estrategiaren arabera, enplegu-tasa txikia izateak zerikusia zuen lan egiteko adina duten herritarren ezaugarriekin. Horrexegatik bideratzen ziren politika-alorreko aginduak eskaintzaren ikuspegira, eta batez ere aktibazio-politiketara; hain zuzen, bizitza aktiboan ahalik eta pertsona-kopuru handiena, eta, batez ere, emakume-kopuru handiena laneratzera bideratutako aktibazio politiketara.

Lehen aipatu dudanez, EEEren helburu nagusia enplegu-tasa orokorrak gora egitea da, gizarte zahartzeak dakarren arazo demografikoari aurre egin ahal izateko (hau da, lan egiteko adina duten herritar gutxi eta adineko herritar asko). Demografiaren egitura aldatzeko ezinbestekoa da enpleguaren oinarria hedatzea, gizarte-babeserako ereduak etorkizunean ere ziurtatuta egon daitezen. Horrek berekin dakar emakumeen enplegu-tasa handiagoa izatea. Baina emakumea lan-merkatuan integra dadin, ezinbestean egin behar zaie aurre genero-desberdintasunei.

Inplizituki, gizarte-babeserako mekanismoak ekonomikoki jasangarriak izateko (pentsioak, osasun-alorra, etab.) funtsezkoa zela lan-eskaintza zabaltzea argudiatzen zen, parte-hartze tasak handituz. Baina balizko laneskua poltsa emakume ez-aktiboz osatuta dago, batez ere (zalantzarik gabe, hala da hegoaldeko herrialdeetan). Horrenbestez, familiaren sostengu gizonezkoa den familia-eredu klasikoa atzean utzi eta bikoteko bi kideek lan egiten duten familiak sortzea zen kontua. Baina, nola eskatu emakumeei lan gehiago egiteko? Bada, lan-merkatuan genero-desberdintasunak murriztuta eta arrazoizko prezioa

---

hartzaindegiak, ordaindutako lana familia-erantzukizunekin uztartzeko aukera ematen duten antolaketa-konponbideak eta eginbeharrak zein ardurak bikoteko bi kideen artean bana daitezen sustatuta.

Horrexegatik, nahiz eta ezarritako ikuspegiak gabeziak eduki, langabeziaren ikuspegi (bai eta politika pasiboaren ikuspegi tradizionala ere, aurre egite aldera) enplegu-tasara birbideratzea enplegu-politikaren helburu nagusi gisa, lanpostuen sorrera eta soldatapeko laneratzea sustatzearen beharra eta lan-alorrean genero-berdintasuna sustatzea genero-ikuspegitik onartutako helburu bihurtu ziren (Rubery et al. 1999).

Aukera-berdintasuneko politiken bidez enpleguan genero-berdintasuna sustatzea izan da EEEren helburu esplizitu bat, 1997an ezarri zenetik. Baina estrategia horren gerorako eguneraketa guztien ondorioz, asko aldatu da helburu horien diseinua. Hurrengo kapituluan eguneraketa horiek aztertuko dira.

### 3.

## *EEEren bilakaera eta genero-berdintasunaren ikusgarritasuna*

EEEn zenbait aldaketa egin dira, 1997 urtean sortuz geroztik. Lau fase identifi-  
fika daitezke (1. taulan, laburtuta adierazita daude), genero-berdintasunaren  
alorrean haietako bakoitzean izan diren aldaketak kontuan hartuta (Smith eta  
Villa 2012: 5).

Lehendabiziko fasean, 1997 urtetik 2002 urtera bitartekoan, aukera-berdintasuna  
zen lau zutabeetako bat, eta generoarekin zerikusia zuten hiru jarraibide zituen  
(guztira, 18-22 jarraibide ziren). Fase horretan ezarri zen, halaber, EEEren

prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartu behar zela (1999an). Genero-ikuspegia kontuan hartzearen printzipioak berarekin dakar politika guztiak aztertzea (diseinua, garapena, ezartzeko modua eta ebaluazioa), generoaren alorrean duten eraginaren arabera. 2000 urteko Lisboako Kontseiluan, hamar urterako plan bat eta helburu kuantitatiboak adostu ziren, oinarri hartuta genero-berdintasunak enplegu-tasa handitzean izan zezakeen eragina. Helburu hau ezarri zen: % 60 emakumeentzat eta % 70 orokorrean, 2010 urterako. EEE sortzearen ondorioz, EBk nabarmen ugaritu zituen enpleguaren eta gizarte-politiken alorreko jarduerak, eta genero-berdintasuna bultzatu beharraren alde zegoela adierazi zuen. Aukera-berdintasunari garrantzi handia eman zioten, generoarekin zerikusia zuten berariazko helburuak ezarri baitziren, eta genero-gaiak agerian egondako unerik gorena izan zen ( Rubery 2002; Fagan et al 2006 ; Smith eta Villa 2010).

## **1. taula. Europako Enplegu Estrategiaren bilakaera, genero-berdintasunari dagokionez**

	EEEren egituraren bilakaera	Aukera-berdintasunaren eta genero-berdintasunaren ikusgarritasuna	EB hedatzea
1 fasea 1998-2002	4 zutabe; 18-22 enplegu-jarraibide inguru	Aukera-berdintasunari buruzko zutabe 1 (4tik) Genero-gaiei buruzko 3 jarraibide; Genero-ikuspegia kontuan hartzeari buruzko jarraibide horizontal 1, 1999an gehitua	15 estatu kide
2 fasea 2003-2005	3 helburu orokor: - enplegu betea - laneko kalitatea eta produktibitatea - gizarte-kohesioa eta lan-merkatu inklusiboa. 10 enplegu-jarraibide	Aukera-berdintasunari buruzko jarraibide 1, eta genero-ikuspegia sistematikoki kontuan hartzea politika berrietan	25 estatu kide, 2004an

3 fasea 2005-2009	Enplegu-jarraibideak eta politika ekonomikoari buruzko jarraibide orokorrak «jarraibide bateratuak» izeneko urteko dokumentu bakar batean batera aurkezten dira: 24 jarraibide bateratu, haietatik 8 enpleguari buruzkoak dira.	Jarraibide bakar bat ere ez da (enpleguari buruzko 8 jarraibideetatik) aukera-berdintasunari buruzkoa; aipamen bat baino ez hitzaurrean: «Aukera-berdintasuna eta diskriminazioaren aurkako borroka funtsezkoak dira aurrerapenerako. Genero-ikuspegia kontuan hartuko dela eta genero-berdintasuna sustatu egingo dela ziurtatu egin beharko litzateke ezartzen diren neurri guztietan» (EC 2005: 29)	27 estatu kide, 2007an
4 fasea 2010-2020	10 jarraibide bateratu, haietatik 4 enpleguari buruzkoak dira.	Jarraibide bakar bat ere ez da (enpleguari buruzko 4 jarraibideetatik) aukera-berdintasunari buruzkoa; esaldi bat baino ez hitzaurrean: «...genero-berdintasunaren ikuspegia ageri da, politiken alor garrantzitsu guztietan integratuta dago» (EC 2010f).	-

Oharrak: J = Jarraibidea; BEPG = Politika Ekonomikoari buruzko Jarraibide Orokorra Iturria: Villa (2013, 141. or.).

Bigarren fasean, 2003 urtetik 2005 urtera bitartekoan, EEE arrazionalizatu egin zuten: zutabekako egitura bertan behera geratu zen, eta horren ordez, hiru helburu nagusi (enplegu betea, kalitatea eta produktibitatea lan-alorrean, gizarte-kohesioa eta lan-merkatu inklusiboa) eta hamar jarraibide ezarri ziren; eta, hala, genero-berdintasunak printzipio goren izateari utzi zion, eta jarraibide modura ezarri zen (Rubery et al 2003; Devetzi 2008 : 5).

Hirugarren fasean, 2005 urtetik 2009 urtera bitartekoan, bateratu egin ziren ordura arte bereizita gauzatzen ziren enpleguari eta politika ekonomikoari buruzko informazio-mekanismoak, Erreforma Programa Nazionalak (EPN) deituetan, hain zuzen. (Rubery et al. 2004). Antolaketa horren ondorioz, generoak jarraibide independente izateari utzi zion, eta horrez gain, genero-berdintasunaren jarraipena egiteko funtsezko elementuak EPNtako beste kapitulu batzuetan ezarri ziren, hain zuzen, genero-ikuspegia kontuan hartu beharri buruzko kapituluetan. Genero-ikuspegia aintzat hartzeari dagokionez, galera izugarria izan zen hori guztia. Izan ere, batetik, genero-berdintasunari buruzko jarraibideak espezifikoak izateari utzi zion, eta bestetik, enplegua sortzeari garrantzi handiagoa eman zitzaion (Pfister 2008).

---

Eta laugarren faseari dagokionez, hau izan zen ezagugarri bereizgarria: 2010ean Lisboako prozesua amaitu zen, eta 2020rako Europako beste estrategia bat idazten hasi ziren. Europa 2020 estrategia berriak gehiago baztertzen du genero-berdintasunaren alorra; izan ere, bateratutako hamar jarraibideetatik bakar bat ez dago berariaz lotuta aukera-berdintasunarekin, eta lau baino ez daude lotuta enpleguarekin. Are gehiago, ez da aipatu ere egiten genero-ikuspegia kontuan hartzea. Gainera, eguneraketa hori krisi-garaian egin zen; hain zuzen, erantzukizun politikoa zutenen arreta krisiak gizona-zkoen enpleguan izan zezakeen eraginera bideratu zenean (Bettio eta Verashchagina, 2013). Egoera halakoa izanik, Lisboako prozesuan emakumeen enpleguaren alorrean ordura arte lortutakoak baztertu egin ziren berehala (Villa y Smith, 2013).

EEEren bilakaerari buruzko taulak (ikus 1. taula) nabarmen adierazten du genero-berdintasunari garrantzi handia ematen zitzaiola 1. fasean, eta enplegurako estrategian garrantzia galdu duela pixkanaka, eta azkenik, baztertuta dagoela ekimen paraleloetan. Hau da, genero-berdintasunaren alorreko helburuak EEEren ekimen paralelo bihurtzen ari dira; esate baterako, honako ekimen hauek ditugu: Berdintasunerako ibilbide-orrria eta Genero-berdintasunaren aldeko Ituna 2006an, Emakumearen Gutuna 2010ean, 2010-15 aldirako Genero-berdintasunerako estrategia, Batzordeak 2010ean onartua, eta Genero-berdintasunaren aldeko Ituna (2011-20), berritua, Kontseiluak 2011ko martxoan ezarritakoa, bai eta soldata-desberdintasunaren aurkako eta lana eta familia uztartzearen aldeko kanpaina espezifikoak ere (Villa 2013, 148. or.). Horiek guztiak deklarazio politikoak dira, garrantzi handiko printzipioak eta jarduera-esparruak zehazten dituztenak Batzordearentzat eta estatu kideentzat. Hala ere, loteslea ez den zuzenbidearen mekanismo berri horiek ez dute inolako jarraipen- eta/edo informazio-mekanismorik, eta bai, ordea, EEEren baitan garatutakoek. Horrenbestez, litekeena da oso eragin txikia izatea, hutsala ez esatearren, estatu kideetako politikak formulatzeko prozesuetan. Horrela, bada, genero-berdintasuna oraindik ere EBren agendan dago, baina Europako helburuen diziplina mekanismoetatik kanpo, bai eta

---

estatu kideen arteko jarraipen-, ikaskuntza- eta hedapen-prozesutik ere. Gainera, genero-ikuspegia kontuan hartu beharra laugarren fasetik kanpo geratu da.

Azken hamabost urteetan, estatu kideetako aukera-berdintasunerako politiketan gehien eragin duen EBren tresna EEE izan da. Beraz, Europar Batasunaren enplegu-estrategiaren baitan, EBk genero-berdintasunarekiko konpromisoa pixkanaka gutxitu izana kezkatzeko modukoa da. Esan daiteke EEEK ez duela nahikoa indar enplegu-sorrera lortzeko edo estatu kideetako laneko zein genero-berdintasuneko politiketan aldaketa nabarmena eragiteko. Baina estatu kideetako agenda politikoetan badu nolabaiteko eragina; izan ere, aldian-aldian derrigorrean informatu behar dute jarraibide espezifikoei, ezarritako neurriei eta helburu jakinetan lortutako aurrerapenei buruz, eta gainera, horiei guztiei buruzko kontuak eman behar dituzte Batzordearen zein Kontseiluaren aurrean. Enpleguaren alorreko jarraibideen baitan EBk genero-berdintasunarekiko gero eta konpromiso txikiagoa duenez, estatu kideetako gobernuek, eta batez ere genero-berdintasunarekiko gogo gutxien dutenek, generoaren ikuspegia alde batera uzteko aukera gehiago dute.

#### 4. *Herrialde bakoitzarentzako berriarazko gomendioak (CSR) eta genero-berdintasunari buruzko ikuspegia*

1999 urteaz geroztik, Batzordeak estatu kide bakoitzarentzat eman ditu gomendioak (CSR), ekintza zuzentzaileak ezartze aldera. Estatuetakoko gobernuek landu zein aztertu beharreko gai garrantzitsuenetan eragitea dute xede gomendio horiek, Europan adostutako jarraibideetan aurrerapausoak lortu ahal izateko. CSR

---

horiek Kontseiluak berretsi behar ditu, eta beraz, Batzordeko zein Kontseiluko ordezkariak haien inguruan negoziatu dezakete. Koordinaziorako Metodo Irekiaren (KMI) oinarrian ez daude lege-mekanismoak eta zehapenak, eta horren ondorioz, zehapen gogorrena da ikasle kaskarrenen jarrera «agerian uztea eta aurpegiratzea». Baina Kontseiluko ordezkariak ez dute inoiz gustuko izan «agerian uztea eta aurpegiratzea» esan diogun estrategia hori erabiltzea. Hortaz, CSRak gomendio arinak izan ohi dira, kritika ororen garrantzia leuntzeko joera dutenak. Egia da emaitzak ebaluatzen direla eta banakako gomendioak ematen direla, baina estatu kideen inolako sailkapenik edo rankingik egin gabe. Bitarteko-mota horrek alde txarrak baditu ere, CSRen bilakaera baliagarria izan daiteke jakiteko zenbateko garrantzia eman dieten denboraren joanean genero-berdintasunaren alorreko gaiak.

Merezi du adieraztea ez dela erraza CSRen bidez labur azaltzea zein izan den genero-berdintasuneko gaien bilakaera EEEen, aldaketa asko egin baitira estrategian 1997 urteaz geroztik<sup>4</sup>. Hala ere, Villak emandako datu enpiriko batzuk oinarri hartuta, funtsezko datu batzuk ematen saiatuko naiz (2013, 152-153. or.).

Lehenik eta behin, EEEren eguneratzeen bilakaera ikusita, termino kuantitatibotan, lan-merkatuko genero-desberdintasunekiko gomendio-kopuruak behera egin du. Generoaren alorreko gaiak buruzko gomendioaren bat jaso duten estatu kideen kopuruak nabarmen egin du behera denboraren joanean: 1. fasean, herrialdeen ia hiru laurdenek jaso zuten gomendioa, genero-desberdintasuna murrizte aldera;

---

(4) Lehenik eta behin, EEE askotan eguneratu da (enpleguaren alorreko jarraibide-kopurua eta haien espezifikazioa aldatzea eragiten zuten). Bigarrenik, EB handitu egin zen, hamar estatu sartu baitziren 2004an eta beste bi 2007an. Hirugarrenik, 2005 urteaz geroztik, enplegu-jarraibideak eta BEPGak bateratu egin dira, eta beraz, estatu kideei orain eskatzen zaie dokumentu bakar batean emateko ekonomia- eta enplegu-politikei buruzko informazioa, jarraibide bateratu deituak oinarri hartuta. Hortaz, CSRak jarraibide bateratu horiei guztiei buruzkoak dira. Azkenik, CSRak formulatzeko modua aldatu egin da denboraren joanean (esaterako, CSRen kopurua, gomendio bakoitzaren luzera, etab.).

---

eta 4. fasean, berriz, herrialdeen heren batek baino ez zuen jaso lan-alorreko genero-desberdintasunari loturiko gomendioren bat.

Bigarrenik, termino kualitatibotan, genero-desberdintasunekiko kezka oso txikia dela dirudi, etsigarria ez esatearren. Herrialdeen arteko konparazioa modu errazagoan egite aldera, gomendioen xehetasunetan erabilitako «gako-hitzak» oinarri hartuta identifikatu da CSRen «edukia». Gako-hitz hauek identifikatu dira: generoagatiko segregazioa eta/edo genero-desorekak; gizonen eta emakumeen soldata-desberdintasuna; haurren zaintza eta/edo lana eta familia uztartzea; emakumeen parte-hartzea; lan egindako ordu-kopurua gehitzea eta/edo lanaldi partziala/lanaldi osoa; eta azkenik, bigarren diru-sarrera eta/edo guraso bakarrekoko familiak (Villa 2013, 160-161. or.).

Oro har, genero-berdintasuna oso gutxitan aipatzen da CSRetan, eta ez dago genero-ikuspegia adierazitako gaietan integratzearen frogaririk. Haurren zaintza zein lana eta familia uztartzea dira gehien aipatzen direnak, bai 3. fasean, eta bai 4. fasean ere. Orokorrean, aztertutako epean, 12 herrialdek<sup>5</sup> jaso zuten gutxienez gomendio bat, eta eskatu zitzaizkien «haurtzaindegi-zerbitzuak eskuragarriago jartzeko» eta/edo «lana eta familia-bizitza hobeto uztartzeko». Gako-hitzen aipamen-maiztasunari dagokionez, bigarren aipatuena da «emakumearen parte-hartzea enpleguan»; izan ere, zortzi herrialdetan behin gutxienez ageri da gai garrantzitsutzat<sup>6</sup>. Hori horrela da hegoaldeko herrialdeetan enplegua duten emakumeen kopurua txikia delako, eta horrez gain, Herbeheretan eta Austrian lanaldi partziala duten langileen proportzioa oso handia delako. Generoagatiko segregazioa eta lan-merkatuko genero-desorekak bi herrialdetan bakarrik izan ziren arazo 2007an (Austria eta Eslovakia) eta Zipre 2008an sartu zen; emakumeen eta gizonen soldaten arteko desberdintasuna oso herrialde gutxitan hartu da arazotzat<sup>7</sup>. Azkenik, merezi du adieraztea «bigarren diru-

---

(5) AT, CZ, DE, ES, HU, IE, IT, LT, LV, MT, PL, UK.

(6) AT, EL, HU, IT, MT, NL, PL, SK.

(7) CZ, SK 2007an, eta CY ere bai 2008an, AT baino ez 2011n eta 2012an.

sarrera» espidea 2011ko eta 2012ko CSRetan erabiltzen hasi dela, hain zuzen, emakumeen lan-estatusa inplizituki deskribatzeko. Terminologia hori arazo baten seinale da; izan ere, lan-merkatuan emakumeen enplegua bigarren mailakoa delako ideiak indarra hartzen du, eta horrez gain, adierazten du gizonaren soldatarekiko dependentzia dagoela, hura familiaren sostengutzat hartuta. Gainera, esplizituki onartzen da benetako kezka bakarra dela, hain zuzen, lan-merkatuan emakumeen parte-hartzea txikia izatea, eta ez genero-desberdintasunak egotea familian zein lan-merkatuan.

Nahiz partziala eta behin-behinekoa izan, CSRen bilakaerari buruzko azterketa nahiko interesgarria da. Lehenik eta behin, agerian dago EEEen egindako eguneraketa guztien ondorioz, gero eta garrantzi gutxiago dutela genero-berdintasunak eta aukera-berdintasunak. Bigarrenik, agerian geratu da nola txertatu den genero-berdintasuna EEEen. Bigarren gai hori irudi bidez adierazte aldera, 1. taulan elkarren aurka dauden bi ikuspegi laburbiltzen dira: batetik, efizientziaren ikuspegia (inplizituki EEEk onartzen duena), lan-merkatuko genero-berdintasuna ezinbesteko tresnatzat hartzen duena EBn adostutako enplegurako helburu orokorra lortzeko; eta bestetik, justizia sozialaren ikuspegia (ikuspegi feminista esaten diodana), genero-berdintasuna bera helburutzat hartzen duena.

EEEen, benetako helburua ez da genero-berdintasuna bera, baizik eta emakumeen enplegu-tasak gora egitea, funtsezkoa enplegu-tasa orokorrak gora egin dezan, eta hori ezinbesteko baldintzatzat hartzen da gizarte-prestazioen zergen iraunkortasunerako (gizarte-kotizazioen eta zergen bidez). Beste modu batera esanda, genero-berdintasuna ez da helburua per se, baizik eta bitarteko bat emakumeen enplegu-tasak gora egiteko. Nola lortzen da hori? Batez ere, «oztopoak» desagerrarazita lanik ez duten emakumeentzat. Nola desagerrarazi daitezke oztopoak? Proposatutako konponbideak, laburbilduz, bi bitarteko nagusi hauek dira: lan- eta familia-bizitzak uztartzea (haurrak zaintzeko zerbitzuen eskaintza hobetzea hartzen du bere baitan) eta lan-malgutasuna handitzea, edo beste modura esanda, lanaldi partziala eta/edo enplegu atipikoa izango duten

emakumeen ehunekoa handitzea. Ikuspegi horrek ez dio asko erreparatzen gizonen eta emakumeen soldata-desberdintasunari, edo lan prekarioa duten emakumeen segregazioari (gaizki ordaindutakoak, prestakuntza behar ez dutenak eta lanbidean gora egiteko aukera gutxikoak), etab.

Laburbilduz, EEEk duen genero-berdintasunarekiko ikuspegiaren arabera, funtsezko helburua sistema ekonomikoaren efizientzia hobetzea da. Europarentzat beharrezkoa da enplegu-tasa orokorrak gora egitea, eta horretarako, emakumeen enplegu-tasak gora egin behar du. Konponbidea eman behar zaion arazo nagusia jarduerarik eza da (eta ez hainbeste genero-desberdintasuna); beraz, lan-alorreko politikak aldatu egin behar dira, langileen portaera aldatzeko, eta bereziki, emakumeen portaera aldatzeko, jarduerarik ez duten emakumeek jarduera izan dezaten. Ikuspegi horrek lana eta familia uztartzeko proposatzen duen ikuspuntua mugatua da; izan ere, ez ditu kontuan hartzen familia-politikak, ez eta lan-merkatuko desberdintasunen arteko elkarrenergina (ordaindutako lana) eta etxeko desberdintasunak ere (ordaindu gabeko lana).

**1. taula – Genero-berdintasuna lan-merkatuan: ikuspegi feminis-taren (justizia soziala) eta EEEk duen ikuspegiaren (efizientzia) arteko konparazioa**



---

Ikuspegi feministak kausalitate-erlazioa lehengoratzeko nolabaiteko joera du. Gizaki orok ondo bizitzeko aukera izan beharko luke; hau da, besteak beste, familia bat izateko, nahi beste haur izateko, norberaren bizitzarako denbora eta ordaindutako lana edukitzeko, bai eta kalitate oneko lana edukitzeko aukera ere. Baina gizonen eta emakumeen ez dituzte aukera berdinak lan-merkatuan. Justizia soziala lortzeko oztopo nagusietako bat lan-alorreko desberdintasuna da (esaterako, segregazioa, gizonen eta emakumeen soldata-desberdintasuna, kontratu atipikoak, etab.). Lan-alorreko politikak lagungarriak izan daitezke berdintasuna lortzeko, baina ez dira nahikoak. Ezinbestekoa da genero-kontratu bat. Hau da, emakumeen eta gizonen arteko harremanari dagokionez, genero-berdintasuna sustatuko duena etxean zein gizartean. Eta horretarako, familia-alorreko politikak ezarri behar dira, bikotekideen artean familia-zereginak modu ekitatiboagoan bana daitezzen sustatze aldera. Lan-merkatuko genero-desberdintasunei eraginkortasunez aurre egingo bazaie, nahitaez aldatu behar da gizonaren zeregina familia-eremuan. Eta alde batera utzi ezin dugun gai konplexua da hori, baina, aldi berean, ezin dugu pertsonen esku utzi, haiek bizitza pribatuaren esparruan konpon dezaten.

## 5.

## *Azken charra*

EEEren baitan, enpleguan genero-berdintasuna lortzea izan zen, zalantzarik gabe, gai nagusia, eta batez ere, lehendabiziko idazketan. EEE sortu eta gero birmoldaketetan ikusgarritasun gero eta gutxiago izan dute genero-berdintasunak eta aukera-berdintasunak. Hainbeste, ezen azkenekoan, erabat desagertu baita.

Hainbat ikertzaile feministak adierazitakoaren arabera, EEE motz geratzen da genero-berdintasunaren kontzeptualizazioari dagokionez, bai eta politiken helburuak hautemateari dagokionez ere (Lewis 2006a; Stratigaki 2004; Rubery 2002; Villa 2013). Enpleguan genero-berdintasuna lortzea,

askotan, unean-unean nagusi izan diren helburu politikoaren mende egon da; izan ere, helburu politiko horiek lehiakortasuna zein hazkundera haztea zuten helburu, bai eta finantza publikoak etorkizunean ziurtatzea ere. Azken batean, genero-berdintasuna lortzea emakumeen enplegu-tasa handitzea bilakatu da, EBko herrialdeen emaitza ekonomikoak hobetze aldera eta gizarte-ongizateko sistemak etorkizunean ziurtatze aldera. Horren guztiaren ondorioz, emakumeen parte-hartze tasak handitzea da helburu ekonomikoa, eta horrek eragin du genero-berdintasuna bitarteko bilakatzea. Genero-berdintasuna eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna dira Europar Batasunaren funtsezko balioak, eta EBren Itunean berariaz aitortzeaz gain, hainbat dokumentutan ere berretsi da hori hala dela. Hala ere, EBn helburu garrantzitsu horiek lortzea beti lotu izan da efizientzia ekonomikoa zein justizia soziala lortzearekin (Lewis 2006b: 149).

Nahiz zenbait muga izan dituen, genero-berdintasuna sustatzeko EEEk izan duen konpromisoak nabarmen eragin du estatu kideetako aukera-berdintasunerako politiketan (Rubery 2002; Rubery et al 2003; Fagan et al 2006). «Zuzenbide ez-lotesleak» erabili zuen lehen arlo politikoa enpleguarena izan zen, jarraibide berberak oinarri hartuta; eta jarraibide horiek, halaber, genero-desberdintasunak murriztea xede zuten gomendioak ere barne hartzen zituzten. «Zuzenbide ez-loteslearen» ikuspegia enpleguaren alorretik gizar-teratzera eta gizarte-politikako beste esparru batzuetara hedatu zen. Nolanahi ere, estatu kideetako aukera-berdintasunerako politiketan gehien eragin duen EBren tresna EEE izan da, eta alde handiarekin, gainera. Beraz, Europar Batasunaren enplegu-estrategiaren baitan, EBk genero-berdintasunarekiko konpromisoa pixkanaka gutxitu izana kezkatzeko modukoa da. Esan daiteke EEEk ez duela nahikoa indar enplegu-sorrera lortzeko edo estatu kideetako laneko zein genero-berdintasuneko politiketan aldaketa nabarmena eragiteko. Baina estatu kideetako agenda politikoetan badu nolabaiteko eragina; izan ere, aldian-aldian derrigorrean informatu behar dute jarraibide espezifikoak, ezarritako neurriak eta helburu jakinetan lortutako aurrerapenei buruz, eta gai-

nera, horiei guztiei buruzko kontuak eman behar dituzte Batzordearen zein Kontseiluaren aurrean. Enpleguaren alorreko jarraibideen baitan EBk genero-berdintasunarekiko gero eta konpromiso txikiagoa duenez, estatu kideetako gobernuek, eta batez ere genero-berdintasunarekiko gogo gutxien dutenek, generoaren ikuspegia alde batera uzteko aukera gehiago dute.

## Bibliografia

Bettio F., Verashchagina A. (2013), "Women and men in the 'Great European Recession'". In Karamessini M. and J. Rubery (eds.). 57-81.

Fagan C., Grimshaw D., Rubery J. (2006), "The Subordination of the Gender Equality Objective: the National Reform Programmes and 'Making Work Pay' Policies", *Industrial Relations Journal*, 37(6): 571-592.

Karamessini M., Rubery J. (eds.), 2013. *Women and Austerity. The Economic Crisis and the Future for Gender Equality*, Routledge, New York.

Lewis J. (2006a), "Work/family reconciliation, equal opportunities, and social policies: the interpretation of policy trajectories at the EU level and the meaning of gender equality", *Journal of European Public Policy*, 13(3): 420-437.

Lewis J. (2006b), "What instruments to foster what kind of gender equality?", *RFAS*, 1: 147-166.

Pfister T. (2008), "Mainstreamed Away? Assessing the gender Equality Dimension of the European Employment Strategy", *Policy and Politics*, 36(4): 521-38.

Rubery J., Smith M., Fagan C. (1999), *Women's Employment in Europe. Trends and Prospects*, London and New York: Routledge.

Rubery J. (2002), "Gender mainstreaming and gender equality in the EU: the impact of the EU employment strategy", *Industrial Relations Journal*, 33(5): 500-522.

Rubery J., Grimshaw D., Fagan C. (2003), "Gender equality still on the European agenda. But for how long?", *Industrial Relations Journal*, 34(5): 477-497.

- 
- Smith M., Villa P. (2010) "The ever-declining role of gender equality in the European Employment Strategy", *Industrial Relations Journal*, 41(6): 526–543.
- Smith M., Villa P. (2012), "Gender equality and the evolution of the Europe 2020 strategy", *Bulletin of Comparative Labour Relations*, 80: 3-23.
- Stratigaki M. (2004), "The cooptation of Gender Concepts in EU Policies: The case of 'Reconciliation of Work and Family'", *Social Politics*, Vol. 11 (1): 30-56.
- Villa P. (2013), "The role of The EES in the promotion of gender equality in the labour market", in Bettio F., Plantenga J., Smith F. (eds.) (2013), *Gender and the European Labour Market*, Routledge, 135-167.
- Villa P., Smith M. (2013), "Policy in the time of Crisis: Employment Policy and Gender Equality in Europe", in Rubery J., Karamessini M. (ed.), 273-294.

---

**MARÍA BUSTELO  
RUESTA**

**Herri Politiketako  
irakaslea Madrileko  
Unibertsitate  
Konplutentsean**



---

Egun on guztioi. Lehenik eta behin, eskerrik asko Emakunderi foro honetara gonbidatzeagatik. Ohore bat da niretzat. Hasteko, Europako Berdintasun Politikei buruzko bilera honetan parte hartzera gonbidatu nindutenean, politika europarra mahai-ingurua abiarazteko gai egokia izango zela pentsatu nuen, azken hamarkada honetan eta 2000. urtetik, generoaren esparrutik haratago dauden desberdintasunak txertatzen saiatu baita, interseksionalitate-terminoe-tan hitz egitea ahalbidetuz.

Egia da, halaber, Europako beste genero-politika batzuei buruz hitz egitea pentsatu nuela. Izan ere, honako hau da Europako genero-politikei buruzko gure ikerketaren ondorioetako bat: berdintasun-politika batzuek, Europako enplegu-politikek adibidez, ez dute berdintasuna helburu nagusitzat hartu, beste alderdi batzuk baizik. Baina ez dut huts egin, Paola Villar-ek ezin hobeto jorratu baitu gai hori.

Ahal den neurrian, 20 minutu hauetan ideia indartsu batzuk ematen saiatuko naiz gero horiek eztabaidatu ahal izateko.

Lehenik eta behin, azken hamarkada honetan Europan berdintasun-kontzeptua areagotzen joan dela esan behar da, zenbait arau europarren bitartez; halere, beste bereizketa batzuk txertatu dira, eta ez generoan oinarrituak bakarrik, beste desberdintasun-ardatz batzuetan oinarrituak baizik, hala nola, jatorri etnikoan, gaitasun edo aniztasun funtzionalean, adinean, erlijioan eta sexu-joeran. Horiek dira desberdintasun-mota desberdinak jasotzen zituen Amsterdameko Itunaren 13. artikuluan gaineratutako 6 ardatz nagusiak.

Momentu batetik aurrera, berdintasuna lehentasun politiko bihurtu zen Estatu-kideentzat eta Europar Batasunarentzat, haren zentzu zabalenean eta generoaren ikuspegitik haratago. 2007. urtea pertsona guztien aukera-berdintasunerako urte europarra izendatu zuten, eta hortik aurrera, dagoeneko Europako zuzentarau batzuetan gaineratzen zen lan-ildo hori modu zehatzagoan jorratzen hasi zen.

---

Aspergarri samarra izango litzateke horiek guztiak aipatzea, baina Estatu-kideek bete behar izan dituzten hainbat zuzentarau daude.

Oro har, desberdintasunak modu bereizian jorratzen dituzten hurbilketetatik urruntzen den mugimendu bat ekarri du azken hamarkadak Europara, genero-desberdintasunari dagokionez batez ere, eta ustez, mugimendu horrek mota askotako desberdintasunak jasotzen dituen ikuspegiak hartzen ditu barne. Hori termino instituzionaletan eta desberdintasun-mota desberdinak jorratzen dituzten agentzien eta erakundeen sorreran islatzen da batez ere –gero itzuliko gara horietara–, eta kasu batzuetan, Erresuma Batuan adibidez, horiek lehendik zeuden erakundeak ordezkatu dituzte. Erresuma Batuan, desberdintasun guztiak modu bateratuan lantzen dituen giza eskubideen eta berdintasunaren batzorde bat dago gaur egun.

Era berean, interseksionalitatearen kontzeptua txertatu nahiko nuke hemen. Berdintasunaren eremu akademiko eta politiko desberdinetan sortu den kontzeptua da, eta funtsean, desberdintasunak modu bereizian hartzeaz gain, desberdintasun horien artean sortzen diren elkarreraginak kontuan hartzearen garrantziari egiten dio erreferentzia. Zentzu horretan, Kimberly Crenshaw autorearen lan interesgarriak ditugu. Hark generoaren eta jatorri etnikoaren arteko elkarreraginak aztertzen ditu Estatu Batuetan, bereziki emakume beltz langabeek jasaten duten diskriminazioari dagokionez. Puntu honetan, behar bezala bereizi nahiko nituzke Crenshaw andreak interseksionalitate estrukturala deitzen duena –desberdintasunak eta horien arteko elkarreraginak bereziki garrantzitsuak dira gure gizarteko pertsonentzat, eta norbait zenbait desberdintasunen arteko elkarreraginean aurkitzen bada, antzemango du, hura esanguratsua izango baita bere biziaren zehar– eta interseksionalitate politikoa, berdintasun-politikei dagokionez bereziki interesgarria irudituko zaiguna, desberdintasunak eta horien arteko elkarreraginak oso garrantzitsuak direla eta horiek estrategia politikoetarako garrantzitsuak izan behar dutela jasotzen duen alderdia.

---

Egiaz, interseksionalitatea –eta oso garrantzitsua da hori hemen esatea– teoria feministatik abiatutako kontzeptua da. Izan ere, feministak izan ginen interseksionalitateaz hitz egiten hasi ginen lehenengoak, emakumeen aniztasuna aitortzearekin batera, jakina. Begi-bistakoa dirudi. Desberdintasunen arteko interdependentziak direla-eta, desberdintasun jakin bati dagokionez jarraitu beharreko estrategiak ez dira neutralak izango beste batzuekin alderatuta, eta beraz, garrantzitsuak izan daitezkeen elkarreraginak egon daitezke. Interseksionalitate politikoaren kontzeptuak hausnarketa ugari eragingo ditu, politikak formulatzean nahiz sor daitezkeen eta sortzen diren bazterkeria eta pribilegioen dinamikei dagokionez, pertsonak desberdintasunen arteko elkarreraginak jasan ditzaketela kontuan hartzen ez denean. Hori askotan gertatzen da. Hau da, politikak eta legeak desberdintasun jakin batean pentsatuz egiten baditugu, beste desberdintasunak ikusezin bihurtzea edo horiei ez erantzutea gerta liteke.

Ikuspegi interseksionalago bat hautatzeak –horretan egin dugu lan azken urteetan– politika inklusiboagoen garapena eragiten duela izan behar dugu gogoan, ahalik eta pertsona gehien barne hartuz, eta beraz, kalitate handiagoko politikak garatuz.

Ez da kontzeptu erraza, jakina, ezta gehiegi hedatu den kontzeptua ere. Izan ere, askoz gehiago jorratu da esparru akademikoan, eta oso gutxi politiken benetako formulazioan. Esparru akademikoan eta teorikoan hitz egiten dena oso gutxitan itzuli da politiken benetako formulaziora. Era berean, beste desberdintasun batzuen aurkako borrokak –genero-desberdintasunaren kasuan bezalaita beti ikuspegi unitarioa izan duela hartu behar dugu kontuan, desberdintasun bakar baten aurkako borrokan oinarritua, desberdintasun bakoitzak bere historia eta testuingurua baititu.

Berdintasun-politiketan desberdintasun bati baino gehiagori buruzko erreferentziak aurkitzen direnean, horiek izaera gehigarria izan ohi dute, hau

---

da, diskriminazio bikoitzaren edo diskriminazio aniztunaren izaera. Ikusiko dugun moduan, asko kritikatu izan den kontua da. Saillkapen asko daude. Hemen horietako bat aipatuko dut, Weldon autorearena, hain zuzen; hark hiru interseksionalitate-ikuspegi bereizten ditu. Horietako bat gehigarria izango litzateke, eta bertan, desberdintasun-egitura bakoitzak elkarren artean bereizi daitezkeen eta elkarrekin lotzen diren ondorioak eragiten ditu. Bigarren kategoria ikuspegi aniztunarena izango litzateke; eta azkenik, desberdintasun-konbinazio batek sortutako ondorioek berdinak izan behar ez dutela eta desberdinak direla dioen kategoria interseksionala izango genuke, desberdintasun bakoitzak modu bereizian dituen ondorioetarako. Nahiko alderdi teorikoan egoten jarraitzen dugu.

Autore batzuen arabera, ikuspegi aniztun edo gehigarriek desberdintasunaren aurka borrokatzen saiatzen diren taldeen arteko nolabaiteko lehia eragiten dute. Anne Marie Hancock andreak, adibidez, zapalkuntzaren olinpiadaz hitz egiten du ("Opression Olympics"): ea nork lortzen duen nahi duena, hau da, zein dagoen zapalduen. Mota horretako ikuspegi gehigarrienei dagokienez honako azterketa kritiko hau egiten da: egiaz, horiek ez dute desberdintasun estrukturalaren sistema orokorra aldatu nahi.

Halaber, interseksionalitatearekiko obsesio hori arretaz behatu behar dela esan behar da. Izan ere, eta Weldon-ek berak dioen moduan, gero eta interes handiago horren bitartez berak "interseksionalitate hutsaren" ikuspegia deitzen duena bakarrik pribilegiatu dezakegu, desberdintasun bakoitzak izan ditzakeen ondorio autonomoak alde batera utziz. Behar bezala aitortu eta jakin beharko genuke desberdintasun guztiak tratamendu bera izan ez dutela eta erritmo bera jarraitu ez dutela, eta jatorri bera ez dutela, baita desberdintasun bakoitza mantentzen eta eragiten duten mekanismoak berdinak ez direla ere. Hori dela-eta, interesgarria dirudi desberdintasun guztiak banan-banan aztertu eta jorratu ahal izatea, eta ez elkarreaginean bakarrik.

---

Nola hasi da itzultzen desberdintasun aniztun horiekiko kezka? Europar Batasuneko politiken eraginez, diskriminazioaren aurkako politikak pribilegiatu dira, eta hori da, hain zuzen, Europan gertatzen ari dena.

Eta zer gertatzen da diskriminazioaren aurkako politikekin? Lege-eremutik datarren ikuspegi bat da, eta badu onura interesgarri bat: legeria gogorra deiturikoa aldarrikatzen du, eta ez biguna; horrenbestez, eta Paolak adierazi duen Europar Batasunaren koordinazio-metodo irekitik haratago, legeria nahitaez bete beharreko zerbait izan dadila behartzen dute. Baina aldi berean, banakoari lehentasuna ematen dion ikuspegi bat da, hau da, diskriminazioa jasaten duten pertsonen banako eskubideak defendatzen ditu, eta beraz, ez dago izaera kolektiboko estrategian oinarrituta... Nolabait esatearren, talde-izaera du, talde marjinalak hartzen baititu oinarritzat, baina ez du desberdintasunen alderdi estrukturala bereziki nabarmentzen, eta izaera erreaktiboagoa duen politika estrategiko bat da, ez horren proaktiboa. Diskriminazioa egon arte itxaroten du hura zigortu eta zigor hori eredu bihurtu dadin, berriz gauza bera gertatu ez dadin. Estrategia-mota hau ez dator bat desberdintasunari aurre egiteko ibilbide handiagoa duten eta genero-berdintasunari dagokionez garatu diren beste estrategia batzuekin, hala nola, ekintza positiboekin eta generoaren "mainstreaming" delakoarekin, 90eko hamarkadan Europar Batasunean izugarri nabarmendu zirenak. Diskriminazioaren aurkako ikuspegi baten aplikazioa berritzailea izan daiteke desberdintasunen bati dagokionez –desberdintasun berri batzuen kasuan, adinaren kasuan, adibidez–, baina genero-berdintasunaren politikarako atzerabuelta bat izan daiteke.

Kontu hori hemen utziko dut, estrategia bakoitzaren alderdi onari eta txarrari buruzko hausnarketa egitea interesgarria litzatekeela uste baitut. Nire ustez oso interesgarria da diskriminazioa benetan zigortzen duten legeak egon daitezela. Ez, ordea, desberdintasuna estruktural gisa hartzen ez duen alderdia, genero-politikan urte askotan zehar borroka egin ostean lortutako zerbait delako, eta beraz, ez genukeelako alde batera utzi behar.

---

Orain, Europako zenbait herrialdetan gertatu denari buruzko xehetasunak eman nahiko nituzke. Europar Batasunaren diskriminazio anitzeko politika zein den eta zein izan den ulertu behar dugu. Ikuspegi unitariotik diskriminazio anitzeko ikuspegira igaro gara, argi eta garbi. Bi joera horiek elkarrekin bizi dira oraindik ere; izan ere, hor ditugu EIGE (European Institute for Gender Equality) eta Vienan dagoen eta desberdintasun guztiak estaltzen dituen Oinarritzko Eskubideen Europako Agentzia (FRA).

Dena den, eta MAGEEO eta QUING ikerketa-proiektuetan egindako dokumentu europarren azterketatik argi eta garbi ondorioztatzen den moduan, dokumentu horietan diskriminazio anitzaren kontzeptua agertzen da, baina desberdintasunak modu berezian jorratzen dira desabantaila gehigarri gisa, eta ez elkarre-raginean. Gauzak ikusteko modu nahiko laua dela esanez amaitu genezake. Beste kritika batzuk ere izan dira desberdintasunei aurre egiteko lege-esparru desberdinak garatu direlako eta “one size fits all” –neurri bakar bat desberdintasun guztiak estaltzeko– ikuspegi sinplistik gizarte zibileko taldeen lehia piztu besterik egiten ez duelako.

Era berean, European egin den azterketa aipatu nahiko nuke, Andrea Krisian, Hege Skjeie eta Judith Squires andreek argitaratu duten –hemen dago, baita ere, Alba Alonso, QUING talde espainiarrarekin batera hura garatzen lagundu duena– Institutionalizing Intersectionality (Intersekzionalitatearen Instituzionalizazioa) argitalpenean islatu dena; bertan, estatu kideetan gertatu dena aztertzen da, desberdintasun anitzen kontzeptu hori erakundeetan nola aldatu den jasotzen duena. Egia esan, aztertu ditugun aldaketak instituzionalak izan dira. Erakunde-motetan aldaketak gertatu dira, eta diskriminazioaren aurkako agentziak sortu dira –horiek gizabanakoen eskubideak defendatu ohi dituzte–, edo aitzitik, agentzia politiko-administratibo izendatu direnak sortu eta mantendu dira –Emakumearen institutua edo Emakunde, adibidez–, baita Europako beste herrialde batzuetan zeuden beste organo aholku-emaile batzuk ere. Ondorio gisa, aldaketa instituzionaleko patroia nagusirik ez dagoela,

---

eta gainera, aldaketa horiek konbergentzia bati erantzuten ez dietela esan dezakegu, Europako eskualdeen arabera. Herrialde eskandinaviar batean gauza bat gertatzea eta besteetan beste zerbait gertatzea gerta liteke. Aldaketa asko gertatu dira, eta hortik, oso azkar esango dut, ez baitut denbora gehiegi, 4 eredu identifikatu dira: horietako bati 'geruzatan antolatutako eredu' deitzen zaio, erakunde desberdinak geruza desberdinetan elkarbizitzen direlako; beste bat 'hierarkikoa' izango litzateke, generoa buruan izango lukeena –bertan sartuko genuke Espainiaren kasua, orain harekin lotutako zerbait kontatuko dudan arren, labor-labor–; beste bat eredu 'duala' izango litzateke, generoa eta jatorri etnikoa barne hartzen dituena; eta azkenik, 'integrazioarena' izango genuke, Erresuma Batuen eta Norvegiaren kasuak barne hartzen dituena, besteak beste.

Espainiako Estatuan, 90eko hamarkadan berdintasun-planak nagusitu ziren batik bat, eta 2000. urtean politika-tresna berriak agertzen hasi ziren, hala nola, Berdintasun Legeak eta genero-unitateak. Dena den, Espainiako Estatuko genero-politiken azterketatik honako hau ondorioztatu dezakegu: argi eta garbi nabarmentzen den interseksionalitate-erkeza. Lurralde honetan generoari eman zaio lehentasuna, bitxia iruditu arren, gure herrialdean izan diren gizarte-aldaketek beste desberdintasun batzuekiko sentikortasuna areagotu baitzezaketen. Autonomia Erkidego batzuetan bada praktika egokien erreferentziaren bat edo beste legeetan eta planetan, baina ia anekdotikoa da. Dena den, Estatuan aldaketa instituzionalaren keinuren bat edo beste ikusten hasi gara. 2008an Berdintasun Ministerioak izen hori hartu izanak –eta ez generoarena bakarrik– keinu bat islatzen du dagoeneko. Era berean, adituen batzorde bat antolatu zen eta tratu-berdintasunari buruzko lege-aurreproiektu bat egin zen; hark oso babes politiko txikia izan du gero, eta armairuan gordeta dago une honetan. Horrenbestez, generoa lehentasunezko desberdintasun gisa hartzean ikuspegi unitario batekin egiten dugu topo, eta gainera –hemen ere hausnarketa autokritikoa egingo dut–, oso arreta gutxi jarri zaie interseksionalitatearekin lotutako alderdiei; Espainiako akademian ere desberdintasun ugari izan dira,

---

Europako ikerketa-proiektuekin lotutako azterketen kasuan salbu. Kanpora irteten garenean, orduan jorratzen ditugu interseksionalitatearen gisako gaiak, nazioartean interesa pizten dutenak.

Horrek kontraste garbia islatzen du Espainiak 2000ko hamarkadan zehar genero-berdintasuneko politikekin izan duen garapen egokiarekin. Zoritxarrez, orain ez gaude modan, baina duela oso gutxi arte mirespena sortzen genuen (indarkeriari buruzko legeak, berdintasun-legea eta abar).

Zergatik erreakzionatu dugu horren mantso eta horren babes politiko gutxiarekin, gainerako desberdintasunen kontu horri dagokionez? Jakina, gai hori Europar Batasunaren eragina dela eta hartu da kontuan. Hasiera batean Berdintasun Ministerioaren aldetik nolabaiteko babes jaso arren, PSOEren garaiko azken aldaketa politikoekin gaiak lehentasun politikoa izateari utzi zion. Lege-aurreproiektua 2011ko urtarrileko Ministroen Kontseiluan onartu zen, baina hark ez zuen aurrera jarraitu, Zapateroren Gobernuak azken urtean ez baitzuen nahikoa babes politiko izan, eta aurreikusitako moduan, Alderdi Popularra gobernura iristean, aurreproiektuak kaxoi batean egoten jarraitzen du. Tratu-berdintasunaren aurreproiektua –ez dakigu momenturen batean argia ikusiko duen ala ez– Berdintasun Ministerioako aditu-talde batek garatu zuen; bitxia badirudi ere, horien artean ez zeuden ordezkatura talde desberdinak, adituei dei egin baitzitzaien, gehienak abokatuak. Aurreproiektuak bederatzi desberdintasun estaltzen ditu. Europako seiak gehi gaixotasunari, nortasun sexualari eta hizkuntzari dagozkionak. Oso gai interesgarriak dira gure lurraldean. Gainera, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren gaietan agintea izango zuen erakunde bakar bat sortzea proposatu zen, diskriminazioaren kontrako agentzia bat alegia, Emakumearen Institutuarekin batera lan egingo zuena. Diskriminazioaren aurkako ikuspegi garbi horrekin, ekintza positiboak eta arazoei aurrea hartzeko estrategia bat planteatzen ziren.

Ondorio gisa, desberdintasun anitzak instituzionalizatzeko moduei buruzko

---

hausnarketa egin behar dugula uste dut. Horrez gain, une honetan Europa – ez Europar Batasuna, Estatu-kideak baizik– inplikazioak zein diren ikusteko laborategi bat dela uste dut. Era berean, aldaketa instituzionalek praktikan aldagaiak sortu ditzaketela hartu behar dugu kontuan, beti horrela ez izan arren. Agentziak sortu izanak ez du esan nahi, nahitaez eta automatikoki, desberdintasunei arreta handiagoa eskaintzen zaienik eta praktikan horiek gehiago esku hartzen denik. Halaber, ikuspegi desberdinak txertatzeko aukerari buruzko hausnarketa egin beharko genukeela uste dut. Diskriminazioaren aurkako ikuspegiari dagozkion zenbait gauza oso interesgarriak izan daitezke, eta noski, ez dugu ahaztu behar desberdintasuna estrukturala dela, horretarako egin baitugu lan horrenbeste urtetan.

Era berean, berdintasun-politikak egiten ari direnen eta beste talde batzuen arteko eztabaida sustatu behar dela esango nuke, mugimendu feminista bereziki, interseksionalitatearen gai honi dagokionez oraindik ez baita argi eta garbi agertu, Espainiako Akademiaren kasuan bezala. Guztiekin kritiko izaten saiatzen ari naiz. Liburuko kapitulu batean Espainiari, Portugali, Italiari eta abarrei buruz hitz egin dugu. Espazio-kontuak direla-eta, Estatuari dagokionez bakarrik hitz egin genezakeen, noski. Dena den, oraindik ikusteko dago hark autonomia-erkidegoetan izan duen eta izango duen garapena, erakundeei dagokienez nahiz politiken ezarpenari dagokionez.

Besterik gabe, eskerrik asko eskainitako arretagatik.

---

**JOSÉ ÁNGEL  
LOZOYA GÓMEZ**

**Berdintasunaren aldeko  
Gizonen Foroko kidea**

*Gizonak,*

*berdintasunaren*

*aurrean*



---

# *Sarrera*

Lehenik eta behin, Kongresu honetan parte hartzeko gonbidapena eskertu nahiko nuke. Gizonek berdintasunaren alde izan dezakegun eginkizunari buruzko gero eta interes handiagoari erantzuten dion sintomatzat interpretatzen dut gonbidapen hau, feminismoak proposatzen duen etorkizun partekatuen diseinuan eta eraikuntzan, alegia. Gizonezko txostengile bakarria izateak nolabaiteko aitortpena eta erantzukizuna uzten ditu nire gain, eta ez nizueke huts egin nahi, haren aniztasunean ordezkatzeko ezgai naizen gizarte-mugimendu baten solaskide gisa agertzen naizela kontuan hartuta.

Gure gain hartu beharreko erronketako bat gure ikuspegiaren ekarpena egitea dela uste dut, eta horregatik, zuek kontuan hartzea nahi dudan proposamenak laburbiltzen hasiko naiz eta gero horiek garatzen saiatuko naiz. Berdintasun-politikek emakumeen ongizatea bakarrik bilatzen dutela uste duen biztanleria-sektore batek sentitzen duen desilusia gainditu behar dugula uste dut, legeek gizonak bidegabeki eta beharrezkoa izan gabe diskriminatzen dituztela pentsatzen baitute askok; horrela, feminismoaren aitortu gabeko helburua arazoei buelta ematea denaren susmoa elikatzen da, hau da, sexuen arteko botere-harremanak alderantzikatzea.

Momentu jakin batean izan genuen berdintasunaren aldeko gehiengo soziala berreskuratzeke behar bezala egiaztatu behar dugu, hitzetatik haratago, berdintasuna ez dela posible gizonzkoen gehiengoaren parte-hartze aktiboa eta kontzientea gabe; horregatik ematen diot horrenbesteko garrantzia horiek berdintasun-politikean txertatzeari, gizon nahiz emakumeentzako onurak eragingo dituzten ekimenei lehentasuna emanez, gaur egungo sexuen arteko desberdintasun-egoeretan neurriek emakumeei egiten baitiete mesede.

---

Badakit ez dudala ezer berririk asmatu, baina honakoa da nire proposamena:

- Aitatasun-baimenak areagotzea, adopzio edo jaiotzagatiko baimen indibidualak eta besterenezinak errealitate bihurtu arte.
- Ekintza positiboko neurriak sustatzea, horrela, sexuren batek ordezkari-txikiagoa duen eremu eta kolektiboetan gizon eta emakumeek kuota paritarioak eta presentzia bera izan ditzaten.
- Hezkuntzan, genero-izendapenek mutil eta gizonengan eragiten duten kaltearen azterketa kritikoa txertatzea.
- Berdintasun-politikak diseinatu, aplikatu eta ebaluatzean berdintasunaren aldeko gizonen partaidetza izatea.
- Eta azkenik, erakundeetan gizonen programak sustatzea –emakumeen erakunde, kontseilaritza eta zinegotzigoen antzekoak–, gizonen aldaketa sustatzeko helburuarekin.

1.

## *Proposamenaren garapena*

Eskatzen zaigun “gaur egungo egoeraren analisi kritikoari” dagokionez, urte batzuetan, gure herrialdean sistema patriarkalaren amaieraren hasieran geundela sentitzetik konkista gehienak ezabatu egin direla edo larriki mehatxatuta daudela sentitzera igaro gara esaten ausartuko nintzateke. Krisi ekonomikoari ematen ari zaion erantzunak, PP-ren garaipenak eta gobernu sozialistan zehar egindako akatsek azaltzen dute agerleku hori.

2005eko apirilean, bihotzeko batek lan-merkatutik eta nire bizitza sozial gehienetik urrunduen, orduan oso bizia zena. Garai hartan, Jerezeko Udaleko berdintasunaren aldeko Gizonezkoen Programa zuzentzeaz gain –gizonen aldaketa sustatzeko lehen ekimen instituzionala–, hitzaldi asko ematen nituen eta solaskide gisa lan egiten nuen irrati eta telebistako eztabaida askotan. Urte haietan, kaleetan oso hegemonikoa zen berdintasunaren diskurtsoa, eta oso

---

zaila zen nolabaiteko prestigioa zuten eta berdintasunaren aurka publikoki hitzegiteko prest zeuden gizonak aurkitzea (eta zer esanik ez emakumeak). Jesús Neira, Cabezas doktorea edo Apeles aitaren gisako pertsonaia bitxiei ordaindu behar zitzairen eztabaida polarizatuak justifikatzeko. Programa horietan zenbait jarrera defendatu nituen Nuria Varela, Lidia Falcón edo Matilde Fernández andreekin, baina feminista askok uko egiten zioten eztabaida horietan parte hartzeari horiek audientzia-tasa handiak izan arren, horien garraztasuna zela eta.

Berdintasunaren aldeko testuinguru horretan, eta historiako lehen Gobernu paritarioa hasi berria (2004ko iraila), indarkeria matxistaren aurkako legea –aho batez–, dibortzio espresa eta homosexualen arteko ezkontza onartu ziren. Eta hurrengo urteetan, menpekotasunaren, berdintasunaren eta abortuaren legeak. Aldaketa horiek izugarritzko eragina izan zuten, eta Berdintasun Ministerioa sortzean, berdintasunezko herrialderik aurreratuen bihurto ginela iruditu zitzaigun.

Baina zerbait gaizki egin behar izan genuen, berdintasun-legeek emakumeen ongizatea bakarrik bilatzen zutela sentitzen hasi baitziren herritar asko, gizonetzako alde batera utziz eta diskriminatuz, feminismoaren aitortu gabeko helburua sexuen arteko ahalmen-harremanak alderantzikatzea zenaren susmo zaharra elikatuz. “Emakumearentzako” politikez hitz egin beharrean “genero-politikez” hitz egiten hasi ginen, eta gero, “gizon eta emakumeen arteko berdintasunaz”, helburuak argitzen lagundu beharrean, eta horrek arazoa mozorrotu egiten zenaren sentipena piztu zuen herritarrengan. Agerleku horretan, gizonen eskubideen aldeko hitzaldi bat garatu zen pixkanaka, “berdintasun eraginkorraren” aldekoa deiturikoa, eta betiere herritar gehienek sentitzeko moduarekin topo ez egiteko helburuarekin.

Prozesu horretan zerikusia izan zuen Berdintasun Ministerio iragankorrak, apustu estrategiko gisa sortu eta inolako azalpenik gabe desagertu arren, bere

---

bizitza motzean gizonetzkoen aldaketa sustatzeko ezin justifikatuzko borondate-falta agertu zuena. Hark ez zituen gizonetzkoen premiak berdintasun-politiketan txertatu, berdintasunaren aldeko gizonen mugimenduak gogorik onenarekin egindako proposamenak kontuan hartu gabe; izan ere, proposamen horiek alternatiba sinesgarri gisa agertzeko gai ziren gizonetz osaturiko kolektibo zabal bat sendotzeko apustu sendoa izan zitezkeen, hitzaldi neomatxistaren aurrean. Ministerioak gizonetzkoei xedaturik sustatutako kanpainak eta ekimenak inprobisazio gehiegi izan zuten, eta indarkeria matxistaren aurkako txartel gorria ateratzeko gonbita egin zuena salbu, estereotipoen aurka xedaturik egon ziren, gizonen esku-hartzea bilatu beharrean.

Zapaterok krisi ekonomikoaren aitzakiarekin abiarazitako berdintasunaren inausketak –Berdintasun Ministerioa eta aitatasun-baimenak areagotzeko promesa desegin zituen– Rajoy jaunaren inausketa eragin zuen, emakumeen eta ongizate-estatuaren aurkakoa.

Arriskuan dauden konkistak defendatzen eta berdintasuna sustatzeko ekimena berreskuratzen lagunduko diguten “planteamendu berriak bilatzeko estrategiak berrikusi beharri” dagokionez, betiere lehentasun nagusia emakumeak ahalduntzea eta emakumeek oraindik pairatzen dituzten desberdintasunen aurkako borroka direla ahaztu gabe, alde batera utzi behar ditugu gizonen esku-hartzea izan beharri buruzko zalantza guztiak; gainera, horien aldaketarekiko babesa bigarren mailan uztea sekulako akatsa dela onartu behar dugu. Berdintasunaren aldeko gizonen laguntzarik gabe berdintasuna helezina izango litzatekeen xede demokratiko bat dela pentsatzen duten mugimendu feministako sektoreek beti babestu izan dute ideia hori (dena esan behar da), horiek ez baitituzte inoiz arriskuan jarri emakumeei xedaturiko baliabideak.

Lehentasunak emakumeen aurkako indarkeriak erauzteak eta gizonetzkoak etxeko lanetan inplikatzeko izan arren, oraindik ere gizonetzkoen buruzko azter-

---

lanak falta dira; izan ere, gizonezkoen egoera emakumeena baino okerragoa da zenbait esparrutan, eskola-porrotaren, gizarte-bazterkeriaren, osasunaren edo bizi-itzaropenaren kasuan, adibidez; oso emakumetuta dauden lanbideak eta humanitate ikasketak hartzera animatu behar ditugu gizonezkoak.

Orain, laburbildu dudan proposamenaren bost puntuak garatzen saiatuko naiz:

**1. Aitatasun-baimenak areagotzeko prozesuan aurrera egitea,** horiek amatasun-baimenak bezalakoak izan daitezen, besterenezinak eta Gizarte Segurantzaren kontura ordainduak.

Gurasoek maskulinitasunak esan nahi duenaren lehen eredia eskaintzen dute, hau da, sentimenduak nola adierazi eta nola ez. Baita bikotekidearekin, emakumeekin eta gizartearekin nola jokatu ere. Seme-alaben zaintzari edo etxeko lanei dagokien kudeaketarekin eta exekuzioarekin duten baterako erantzukizuna beren gain hartzeko moduak eta graduak beste edozein hitzaldik baino gehiago balio du. Aitatasuna beren sentimenduak adierazten ikasteko eta beren txikien lekuan jartzeko aukerarik onena izan daiteke gizon gehienentzat. Aitatasun-baimenek beren seme-alaben bizitza-garai horretaz gozatzea ahalbidetzen diete, intendentziaz arduratzen diren aldi berean, saiatzeko prestutasun handien duten momentuan.

Adopzio edo Jaiotzagatiko Baimen Indibidualen eta Besterenezinen Plataformak (PPiiNA) 90 kolektibo baino gehiago elkartu ditu aldarrikapen honen inguruan –kolektibo feministak eta mistoak nahiz berdintasunaren aldeko gizonezkoenak–, baita beste pertsona asko ere, aurrera begiratzen duten ekimen gutxi horietako bat baita. PPiiNA plataformak gizonak emakumeek bezala zaindu dezaketela eta zaindu behar dutela defendatzen du, baita emakumeek enpleguan aukera berak izan behar dituztela ere; horregatik, emakumeak lan-merkatuan bizi duen diskriminazioari aurre egiteko ardatz bihurtu du helburu

---

hori, gizonak berdintasun-politiken onuradun zuzen gisa barne hartzeaz gain.

## **2. % 60 eta % 40 artean.**

Emakumeak modu masiboan txertatzen ari dira historikoki gizonezkoei esleitu izan zaizkien lanbide eta sektoreetan, medikuntzan edo justizian esaterako, baina gizonak ez dute alderantzizko bidea egin, haur-hezkuntzako irakaskuntzan edo erizaintzan txertatuz; genero-esleipen femeninoak areagotu egin dira –etxeko zaintza, hezkuntza edo justizia-administrazioa, adibidez–, publikoa denaren sexu bidezko bereizketa eginez, eta hori aurrekoa baino bidezkoagoa izan eta horren baztertzaila ez izan arren, oraindik ez da tradizioz ezarritako eginkizunak haustea lortu.

Ekintza positiboko neurriak erabiltzen eta aldarrikatzen hasi behar dugu (beti behin-behinekoak) gizonak etxeko jardueretara eta gehien emakumetu diren lanbideetara txertatu daitezela sustatzeko, genero-eginkizunak baliogabetzeko estrategia gisa; horrela, eginkizun horiek sexu jakin batekin lotuta egoteari utziko diote eta emakume nahiz gizonezkoen ohiko ereduen alderdi onenak bateratuko dituen erreferente unibertsal bat sortu ahal izango da.

Niri bidezkoa iruditzen zait % 40 eta % 60 arteko sexu-ordezkaritza bermatzeaz hitz egiten duen formula, emakumeek oraindik ere sartzeko zailtasunak dituzten sektoreak edo jarduerak identifikatzen laguntzen baitu horrek, baita gizonak alde batera uzten ari diren edo txertatzeari uko egiten dioten lanbideak ere. % 60/40 horrek emakumeen ordezkaritza-asmoak bermatzen ditu, gizon askok sexuen arteko botere-harremanetan txertatzeko duten beldurrari aurre egiten dion aldi berean.

## **3. Mutilak ere barne hartzen dituen baterako hezkuntza.**

Gazteek sexuen arteko berdintasunaren egokitasuna onartu dute, hura desberdintasunik ez balego bezala barneratuz, horrelakorik egon behar ez duela uste baitute. Horregatik, ez dira konturatzen mutila edo neska izateak

---

barne hartzen dituen desberdintasunez, eta beraien adineko berdinen artean agertzean asko kostatzen zaie horiek aitortzea.

Homofobian eta sexismoan oinarrituta, mutilak neskengandik eta gaizki izendatutako gutxiengo sexualengandik desberdinak balira bezala sozializatzen dira, benetako gizon gisa aitortuak izateko “maskulinitasuna” beren gain hartu beharra planteatzen dien harreman hierarkiko batean.

Sexismoari aurre egiteko helburuarekin, maskulinitasuna susmagarri bihurtzen duen ikuspegia hartzen du askotan eskolak, eta hura aldatzen saiatzen da haurrei aurpegira botatzen, horrela, berdintasunarekiko ideia lausora egokitu daitezten –edo haren menpe jarri daitezten–; kontzeptu horretan, mutilek amore eman behar dute beti nesken aurrean, horren truke onurarik lortu gabe edo beste eredu batzuk eskaini gabe. Horren ondorioz, mutilek eskolan trataera okerragoa jasotzen dutela sentitzen dute eta ez dira neskak bezain zoriontsuak, gutxiago lan egiten dute, beren autoestimua baxuagoa da, arreta-arazoak izaten dituzte eta horien errendimendu akademikoak behera egiten du.

Eskubide- eta aukera-berdintasunari dagokion printzipioaren hondamena dugu hori, sexua dela eta. Hasieran nolabaiteko aukera-berdintasuna ikusten da eskolatze unibertsalaren eraginez, baina hark porrot egiten du handik irtetea, eskola-porrotak mutil aurpegia baitu. Eskubide- eta aukera-berdintasuna desagertu egiten da eskolatze-mailak gora egiten duen heinean. Diskriminazio leun batek mutilen itxaropenak eta interesak oztokatzen ditu pixkanaka.

Mutilak berdintasunean hazi beharrari buruzko kontzientzia falta da, eta hari ohiko maskulinitasun-krisia eta prestigio sozialeko berdintasun-eredu maskulinoen gabezia gehituz gero, hobeto ulertu dezakegu mutilei eredu koherente, baliokide eta erakargarriak transmititzeko eta bereganatzeko zailtasuna, baita gazteen arteko aldaketa-estrategien gabezia ere.

Familiako ahaleginek eta itxaropenek ez dute mutilen arrakasta akademi-

---

koan laguntzen, eta ikasgeletan zenbait aurrerapauso eman dira matxismoak emakumeengan eragiten duen sufrimenduaren salaketari dagokionez, baina ez da ia ezer egin ohiko maskulinitasun-ezaugarri askok gizonei eragindako minari eta arazoei dagokienez, nork bere buruari aski izateari edo beti lehian aritu beharrari dagokionez, adibidez. Era berean, ez da hitz egiten gizonek "matxo" irudia ematearen truke ordaindu behar duten prezioaz, ezta berdintasunak mutilei eskaintzen dizkien onurez, emakumeen ezaugarri gisa hartu izan diren zenbait ezaugarri bere egitearen interesaz –hor ditugu, esaterako, pertsonetikiko edo gauzekiko zaintza edo zuhurtzia–, edo autonomia pertsonalak ingurunean edo berdinen multzoan duen garrantziaz ere.

#### **4. Berdintasun-politiketan gizonezkoen partaidetza izatea.**

Eginkizunak elkarrekin gurutzatzen dira, eta maskulino eta femenino gisa ulertzen duguna gizonekin eta emakumeekin loturik egoteari uzten ari da pixkanaka, baina gizonezko gehienek prestigio sozialaren galera-sentimenduarekin bizitzen dute "femeninoa dena" (sentimenduen adierazpena, zaintzaren etika, etxeko lanak...); emakumeek, aldiz, prestigioa irabazten dute lan-merkatura eta bizitza publikora txertatzean, eta beren eragina areagotu egiten da arau eta moral sozialaren eraikuntzan.

Gizon eta emakumeen berdintasunerako Andaluziako 2010/13 Lehen Plan Estrategikoak argi eta garbi islatzen du gizonak berdintasun-politiketan nola txertatzen ari diren, ezinbestekoa denean horien aipamena eginez, baina eskola-porrotak mutil aurpegia izaten jarraitu dezala saihesteko, gizonezkoak emakumeen lanbide edo jarduera gisa hartu izan diren horietara txertatu daitezela errazteko, edo gizonek Planaren diseinuan, planifikazioan, aplikazioan eta ebaluazioan parte hartu dezatela sustatzeko ekintza positiboan neurririk sustatu gabe; izan ere, aldaketan lagundu dezakegula uste dugu, hura aberastuko duten eta berdintasuna gizonei emakumei bezainbeste interesatzen zaigun ideia sostengatuko duten ikuspegi berriak eskainiz.

Gizonezkoak etxeko lanetara txertatzeko nahiz aitaltasun-baimenak

---

areagotzeko prozesua bizkortzeko ekimenak izoztean, gizonezkoei aldaketan laguntzeko borondatea dagoela erakutsi behar zaie, baita inguruneko presioak arrastaka eramateari utzi eta berdintasuna sustatzeko interesa dagoela ere, bidea emakumeentzat nahiz gizonentzat horren traumatikoa izan ez dadin. Eta helburu hori lortzeko ezinbestekoa da, zalantzarik gabe.

## **5. Gizonen programak sustatzea.**

Duela hamar urte baino gehiago premia horretaz jabetu ziren Emakumeen Institutu, Kontseilaritza eta Zinegotzigoen ekimenez gozatzen zuten zenbait emakume, eta gizonei antzeko esperientziak xedatzearen egokitasuna planteatzen hasi ziren. Emakumeentzat antolatutako jarduerekin guztiz sensibilizatuta etxera itzultzean, betiko senarrarekin topo egiten zutela adierazten zuten, borondate handiko gizona, tradizioz jasotako eredu hori ez den berdintasuneko eredurik gabea, aldaketaren bidean orientazio gisa jarduteko. Emakumeek gizon horiekin bizitzen jarraitu eta horiekin partekatu nahi zuten etorkizuna, eta erakundeen aldetik gizonezkoentzat sustatutako jarduera-eskaintza gabeziaz kexatzen ziren, horiek ere berdintasunaren helburuarekin bat etor zitezen laguntzeko, hain zuzen.

Jerez de la Fronteran ospatutako Osasunaren eta Emakumearen Estatuko Jardunaldi batzuetan –solaskide gisa jardun nuen han ere–, gizonezkoei arreta eskaintzeko ideia zehatz bat planteatu nuen; hura bertan antolatutako gizonezkoentzako tailer batzuen ondorioen artean jaso zen.

Aurrekari horiekin –neurritz kanpoko litzateke presio sozial gisa kalifikatzea–, eta aurrekari ezagunik gabe, Antonia Asencio andreak, ausardia handiz, “Berdintasunaren aldeko Gizonen” lehen programa instituzionala abiarazteko arrisku politikoa hartu zuen bere gain 1999. urtean; gero, nire laguntza eskatu zidan hura zuzentzeko. Ohiko berdintasun-politikak gainditzeko asmoa zuen esperientzia feminista bat zen, helburu nagusia emakumearen erabateko berdintasuna lortzen laguntzen duten neurrietan sakontzea dela ulertzen baita,

---

gizonezkoak gizartearen aldaketarako prozesu horretan txertatuz, betiere gizon eta emakumeen arteko diskriminazio-mota guztiekin amaitu ahal izateko. Emakumeei xedaturiko udal-zerbitzu guztiak multzokatzen zituen Zinegotzigo bat sortu zuen –orduan oso sakabanatuta zeuden denak–, eta aldi berean, haren ikusgarritasuna eta aurrekontua areagotu zuen, gizonezkoen programa sortzeaz gain.

Zinegotzigoa herritar guztiei xedaturiko jarduerak eta generoari buruzko hitzaldi bat zehazten joan zen, gizon eta emakumeentzako ekimen zehatzak sustatzen zituen bitartean; haren sinesgarritasuna gero eta gehiago sendotu zen egunez egun, gizonak zein emakumeak kontuan hartzen zituelako, hain zuzen. Gizonezkoen Programak –gaur guztiz mehatxatuta– esperientzia horretan laguntzen jarraitzen du emakumeen aldarrikapenekin guztiz bat datorren diskurtso batekin; hark eremu publiko zein pribatuan dituzten erantzukizunak beren gain hartzera gonbidatzen ditu gizonak, eta aldi berean, aurrera egiten du gizonezkoen arazoak eta eskaerak hauteman, hedatu eta lantzeko orduan: osasuna, aitaltasuna, indarkeria, gatazken konponketa, lehiakortasuna, sexualitatea, ugalketa-erantzukizuna eta erantzukizun profilaktikoa, gizonen arteko adiskidetasuna, homofobia edo antolakuntzarako forma ez sexisten sustapena, besteak beste.

Gizonengana eta gizonekin egin beharreko lan horretan eredu maskulinoen krisia landu behar da, horiek sistema patriarkalaren ondorioei buruzko analisi autokritikoa egin dezaten. Hausnarketa horrek: sistema patriarkala iraunarazteko orduan bakoitzak egiten duen ekarpena eta horrek norberaren bizitzan nahiz inguruko pertsonen bizitzetan eragiten dituen ondorioak gaineratu behar harko lituzke; emakumeekin nahiz gainerako gizonekin dituzten harremanak bidezkoagoak, mesedegarriagoak, solidarioagoak eta berdintasunezkoak izateko gauzatu behar diren aldaketak abiarazteko konpromisoa hartzeko gonbidapena egin behar die; eta proposatzen diegun ordena sozialak beren autonomian eta bizi-kalitatean eragingo dizkien onurak helarazi behar dizkie.

---

Itxaropen handiak sortu arren, Sevillako Diputazioak esperientzia labur bat egin zuen, berdintasun-eremuko arduradunen ikuspegi eta borondate politikorik eza dela eta. 2007ko azaroan, Euskal Autonomia Erkidegoak Gizonduz programa jarri zuen martxan, "gizonek sexu-berdintasunaren alde duten kontzientziazioa, partaidetza eta esku-hartzea sustatzeko" aurrekontu gehien izan duen apustu instituzionala (gaur egun murrizketa ugari jasan ditu).

Ezkerreko alderdiek gobernatzen dituzten erakundeek behar bezala frogatu behar dute gizonen arazo zehatzetan interesa dutela eta horiek berdintasunaren agente gisa ikusteko prest daudela, horretarako, Berdintasunaren aldeko Gizonezkoen Programak abian jarritz, ahal izanez gero Berdintasunaren Aldeko Gizonen Mugimenduaren laguntzarekin.

**2.**

## *Gizonek, berdintasunaren aurrean*

Berdintasunaren alde gauden gizonek badakigu ez dela nahikoa gizonezkoek azaroaren 25eko manifestazioetan izandako partaidetak anekdotiko izateari utzi diola adieraztea, etxean erabakiak hartzean demokraziak nabarmen gora egin duela esatea, mikromatxismoak desberdintasunak sortzen, garatzen eta legitimatzen diren haztegiak direla jakitea, ezta gure mezuak gizon sentikor eta matxista berreskuragarriei helaraztea ere.

Badakigu gizonezkoek gaur egun bizi dugun berdintasunaren aurkako ofentsiba horri aurre egin diezaiokegula eta aurre egin behar diogula, zaintzak partekatuz eta, aldi berean, gaur egun dugun edo aldarrikatzen dugun eskubide-berdintasunak eragiten dituen erantzukizunak gure gain hartuz; izan ere, horiek guztiek aldaketa pertsonalean laguntzen dutela uste dugu, hau da, harreman solidarioagoak eraikitzen, aitalasun baliokideak izaten nahiz

---

lan-merkatuko aukera-berdintasuna lortzen. Horrez gain, badakigu nahi ez diren haurdunaldi gehienak saihesten lagundu dezakegula, baita VIH-aren hedapena eta feminizazioa, emakumeak sexualki ustiatzeko erabiltzen dituzten sareen garapena edo egunerokotasunean gertatzen diren adierazpen homofoboak saihesten ere.

Duela urtebete Bartzelonan “Berdintasunaren aldeko Gizonen Agenda” hitzartu zuen mugimendu sozialeko bokazioa duen “mugimendutxo” bat besterik ez gara, baina hark aurrerapauso garrantzitsua eragin zuen gure koordinazioan eta proiektio sozialean. Agenda honela laburbildu daiteke: sistema patriarkalaren errefusa; emakumeenganako eta “gutxiengo sexualenganako” indarkeria matxisten aurkako borroka; gizonen zaintzen arloan duten baterako erantzukizunaren sustapena; aitaltasun aktiboaren eta erantzulearen sustapena; baterako hezkuntza; berdintasunean oinarritutako hizkuntza; gizon eta emakumeen presentziazko kuota paritarioak; sexualtasun askea, errespetagarria eta onartua; gizonen osasunaren hobekuntza, gizon izatearen modu kaltegarrien ondorioak ikusaraziz.

Gizonak urriaren 21eko indarkeria matxistaren aurkako mobilizazioetan –azaroaren 25eko ekitaldietan parte hartzera animatuz– eta martxoaren 19ko “aitaren egunaren” aldeko ekitaldietan mobilizatzea erabaki genuen, baita erabateko aitaltasun zaintzaile eta arduraduna sustatzea ere, zaintza partekatuen aldeko ekintzak antolatuz eta aitaltasun- eta amatasun-baimen baliokideak aldarrikatuz, besterenezinak eta % 100ean Gizarte Segurantzak ordainduak.

Joan den irailaren 14an, Bruselan hitzaldi bat antolatu zen “Gizonek Genero Berdintasunari dagokionez duten Eginkizunari” buruz, Europako 27 herrialdeetako gizonezkoen egoerari buruzko azterlan baten emaitzak aztertzeko helburuarekin ; European elkarrekin bizi diren errealitateak asko izan arren, gizonak berdintasunean gehiago esku hartzen dutela eta berdintasuna sustatzeko politika publikoek gizonezkoengan partaidetza handiagoa eragiten

---

dutela ondorioztatu zen.

## *Laburpen gisa*

Gaur egun, sexuen arteko berdintasunean aurrera egiteko borondate politikoa neurtzen duen baremoetako batek erakundeek gizonei aldaketa horretan parte hartzen laguntzeko erabiltzen dituzten baliabideak aztertzen ditu. Gero eta ulergaitzagoa iruditzen zaigu berdintasun-planetan gizonei xedaturiko esparru zehatzik ez egotea edo administrazioetako berdintasun-eremuek gizonei xedaturiko programarik ez izatea, xede horretarako dagokion aurrekontua bideratuz. Ekimen horien gabeziak ez du inoren erantzukizun pertsonala arintzen edo gizonen erresistentzia justifikatzen, baina gabezia horrek sinesgarritasun osoa kentzen dio berdintasun-politikek horien txertaketa bilatzen dutela dioen hitzaldiari. Zalantzarik gabe, berdintasunaren aldeko gizonezkoen kolektiboa da –gero eta zabalagoa– diseinuan aholkuak emateko nahiz gizonei xedaturiko berdintasun-asmoak dituen edozein ekimen publikoren koordinazioa bereganatzeko hobekien prestatuta dagoen sektorea.

---

*4. Osoko bilera:  
Mugimendu  
feminista eta  
emakume  
-elkarteak  
krisiaren aurrean*



---

**BEGOÑA SAN JOSÉ**

**Politika Feministaren  
Foruma eta  
COMPI – Partaidetzarako  
eta berdintasunerako  
Emakumeen Erakundeen  
Koordinakundea**

*Mugimedu  
feminista eta  
emakumeen  
erakundeak  
krisiaren aurrean*



---

Tere Maldonadok egiten duen mugimendu feministaren eta emakume-erakundeen arteko bereizketatik abiatuko naiz. Ez dago *emakumeen mugimendurik*. Emakumeek –guztiak edo gehienak, emakume izate hutsagatik bakarrik– ez dugu aukera-berdintasuna eta autonomia pertsonala bultzatzen. Horrela balitz, ez litzateke patriarkatua jaioko eta hark ez zukeen orain arte iraungo. Gaur egun, emakumeok bozkatu, hezkuntza jaso, ugalkortasuna kontrolatu, independentzia ekonomikoa izan eta abarretarako eskubidea dugu, eta hori *mugimendu feministari* esker gertatu da, nolabaiteko genealogia duena. Celia Amorós andreak dioten moduan, genealogia *genus*-aren, hau da, eskubide horiek lortzeko gogor borrokatu duten gure arbaso biologikoen, eta *logos*-aren arteko batura da, hau da, lehengo eta oraingo hemengo nahiz hango ahaleginei koherentzia eta progresioa ematen dizkieten ideiak, gutxiengo antolatu baten aktibismoari, alegia.

Baina gutxiengo feminista antolatuak ez ditu aldarrikapenak berarentzat bakarrik egiten, emakume guztientzako eskubideak aldarrikatzen baititu, ez elite batentzako pribilegioak. Eta beti emakumeen aurka egiten duten argudioek gure aldarrikapenei zilegitasuna ez kendu arren –Clara Campoamor andreaki esan zioten moduan, kalean ez daude horiek aldarrikatzen dituzten milioika emakume–, horiek ezin ditugu despotismo feminista ilustratuaren bitartez lortu, ezta nahi ere. *Emakumeen arteko ituna* izango duen gizarte-eragina behar dugu lehenik eta behin, emakume feministen eta berdintasunaren alde borroka egiteko prest dauden emakumeen artean bereziki.

Emakumeen arteko itun-estrategia –milioika emakumerentzako analisi eta alternatiba zehatzak adosteko feministen arteko itunetik hasita– honako hau galdetzearen estrategia lehiakor eta nartzisistaren aurkakoa da: ispilutxo, ispilutxo, ba al da nire feminismoa baino feminismo hoberik? Ni baino feministagoa den beste inor? Empar Pinedak esan zuen moduan, feminismoaren aurkaririk okerrenea “feministometroa” da, hari eragin sozial guztia kentzen diona. Erakunde feminista bakar batek ezin du gizarte osoa aldatu.

---

Feminismoa mugimendu politiko bat da, gizarte osoa, emakume guztiak eta gizon guztiak aldatu nahi baititu eta aldatzen ari baita, gizon eta emakumeekin elkar eraginez. Milioika pertsona mobilizatzea lortu ez arren, emakume guztion interesak ordezkatzeko dituen mugimendua da. Horretarako boterea behar du, eta Celia Amorós andreak dioen moduan, horrek ahalmena edo gaitasuna izatea esan nahi du lehenik eta behin, ezintasunaren aurkakoa; eta bigarrenik, eragina izatea esan nahi du, eta ez emakumeenganako eragina bakarrik. Botere guztiak hertsadura- eta legitimazio-osagai bat dute, eta feminismoak, suspertzen ari diren botere guztiak bezala, legitimazio-gaindosi bat behar du patriarkatuaren indar hertsatzailea eta legitimazioa asaldatzeko, hau da, estatu quo delakoa zalantzan jartzeko kontzeptuak landu eta hedatu behar ditu.

Haren adimena eta borondatea osatzeko, mugimendu feministak autonomoa izan behar du. Horrek ez du esan nahi erakundeekin edo beste gizarte-mugimendu batzuekin itunak egin edo hitz egin behar ez duenik. Elkarrizketa hitzak berak bi logo eskatzen ditu eta logo bakoitzak, logika bakoitzak, bere ahotsa izan behar du. Itun batzuek ongi funtzionatu dute, beste batzuek feministak banpirizatu dituzte, beste batzuek gure ahaleginak zapuztu dituzte, beste batzuk lehen erabilgarriak izan ziren gaur egun hala ez izan arren, eta beste batzuek, aldiz, nahi ez ditugun egoerak eragin dituzte mundu osoan zehar. Wassyla Tamzalik adierazten zuen moduan, horietako bat "feminismo islamikoa" da, lotura feministari baino garrantzi handiagoa ematen baitio erlijioarekiko loturari. Emakume bat erlijio bati atxiki daiteke bere borondatez, baina ez feminismoa, ezta "korronte feminista bat" denaren aitzakiarekin ere, beste korronte batzuekin jarduten duela suposatuz. Feminismoa arrazionala eta kritikoa da, ez du errebelatutako egirik, eta ezin da mende edo milurtekotan zehar patriarkatuaren irudia ezarri eta legitimatu dutenen ekintzaren edo pentsamenduaren menpe jarri.

Nire ustez, alderdi politiko, sindikatu edo beste gizarte-mugimendu batzuetako erakundeetan gauza bera gertatzen da emakumeen "bigarren" militantziekin edo talde feministekin. Feminista batzuek "bigarren" militantzia bat izan dezaketela

---

uste dut, eta horrek are eragin handiagoa izatea ahalbidetu digu batzuetan, eta ez Clara Campoamor andreak bozka defendatu zuenean bakarrik. Baina askotan, "bigarren" militantzia horiek are lotesleagoak dira emakume horientzat lehenengoak dira, alderdiak sendoak direnean eta/edo gobernatu egiten dutenean batez ere, eta horiek modu positiboan baloratzen ditugun politikak aplikatu edo legeak onartu arren, modu autonomoan eta kritikoa aztertzeko espazioa izan behar dugu, konplazentzia edo autokonplazentziarik gabe. Txalotu baino gehiago, mugimendu honek eskatu egiten du, aldarrikatzailea eta aktiboa baita.

Feminismoa krisi okerrenaren aurrean.

Petrolio-prezioaren igoerak 1972an eragindako krisi ekonomikoak, 1975. urtean Francoren heriotzarekin batera gertatu zenak, oso inpaktu larria izan zuen emakumeen egoera ekonomikoan. Demokraziaren lehen urteetan 600.000 lanpostu suntsitu ziren emakumeen artean; emakumeen langabezia-tasa gizonezkoena baino handiagoa izaten hasi zen 1976an, eta 1988tik 2002ra bikoiztu egin zen zenbatekoa. 1988. urtera arte ezin izan zen berreskuratu 1974. urteko 3,6 milioi emakume langileren kopurua. Baina aldaketa politikoak antisorgailuen eta dibortzioaren legeztapena eragin zuen, baita senar-emazteen arteko berdintasuna, hezkuntza eta lan-legediaren esparruko hainbat alderdi garrantzitsu ere, eta horiek guztiak benetako berdintasuna lortzeko bideak ireki zituzten.

1993ko krisi ekonomikoak 1997. urtera arte iraun zuen, eta hark biztanleria aktiboaren % 24ko langabezia eragin zuen, gaur egungo tasaren antzekoa. Estatuak politika antizikliko bat bereganatu zuen, eta emakumeei dagokienez, Pekingo 1995eko Emakumearen Nazioarteko Konferentziak emakumeen berdintasun-politika aktiboago eta esplizituagoen eredu bat ezarri zuen, Estatuan nahiz Europar Batasunean.

Oraindik irtenbiderik ikusten ez zaion 2008. urtean abiarazitako krisi ekonomikoaren eraginez, 6 milioi pertsonak ez dute lanpostu ordaindurik,

---

horietako askok hipotekak izan arren. Gainera, Europar Batasuna eta Estatu gastu publikoa murrizteko politikekin egiten ari dira aurre arazoari; 2011ko irailean, esaterako, Konstituzioan aldaketa batzuk egin ziren, erreferendumik gabe, eta 135. artikuluan honako hau ezarri zuten: zor publikoaren kapitalaren eta interesen ordainketak “erabateko lehentasuna izango du” Estatuaren gainerako gastuen aurrean, eta hura osatzen duten esparruak pentsioak, osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak dira batik bat, menpekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko estreinatutako berri direnak bereziki. Ongizate Estatuaren itun soziala hautsi da, azken 30 edo 40 urteetan sortutako Estatuaren eginkizun birbanatzaileari dagokionez; Estatu Aldizkari Ofizialak pentsaezinak diren neurriak argitaratzen ditu astero, eta krisi ekonomikoaren kudeaketak demokrazia ordezkatzeko erakundeek nolabaiteko deslegitimazioa eragin du.

María HERNÁNDEZ andreak “El poder de las mujeres y el estado de bienestar” liburuan adierazi zuen moduan, azken hori hiru aldiz mesedegarriagoa da emakumeentzat: zaintzaile gisa, haurrei eta pertsona gaixoei nahiz menpekoei eskaini beharreko arreta sozializatzen duelako, emakumeen denbora eta energia asko askatuz, tradizioz guri egokitu izan baitzaigu zaintzaren ordaindu gabeko eginkizuna; langile gisa, lanpostu ugari sortzen dituelako, historian zehar emakumeek gauzatu izan dituztenak (Espainian, emakumeek enplegu publikoaren % 54 eta enplegu pribatuaren % 45 betetzen dugu); eta herritar gisa, emakumeek gehiago parte hartzen dugulako politikan, politika pertsonen zaintzaz gehiago arduratzen bada. Horrenbestez, osasunaren, hezkuntzaren edo gizarte-zerbitzuen murrizketak bereziki kaltetzen ditu emakumeak, zerbitzuak berriz pribatizatuz eta familietan errotuz, enplegu publikoa suntsituz eta politikari dagokiona, haurren, pertsona gaixoen nahiz menpekotasun-egoeran bizi diren pertsonen zaintzari dagokiona publikotik ateraz; izan ere, horiek murriztu egin dira, zorraren interesak hamarna mila milioi eurotan areagotzen diren neurri berean.

IMSERSOren 2004. urteko Inkestaren arabera, menpekotasun-egoeran bizi ziren 2,3 milioi pertsonen zaintzaz horien alabak edo familiako beste emakume batzuk

arduratzten ziren kasu guztien % 84tan, horiei egunean batez beste 10,6 ordu eskainiz, urteko 365 egunetan eta 8 urtez; kasu guztien % 13tan etxe-langileak arduratzten ziren pertsona horiez (% 95 emakumeak, % 60 etorkinak), eta % 6tan bakarrik, gizarte-zerbitzuak. 2006. urteko Menpekotasun Legearen ostean, eta 2011ko azaroaren 4ko Ministro Kontseiluari egindako txostenak adierazten duen moduan, menpekotasunera xedaturiko gastu publikoa BPGaren % 0,32tik % 0,64ra igaro zen 2003tik 2010era. Halere:

- Aurreikusitako BPGaren % 3ko finantziazioa % 0,64ra bakarrik iritsi zen, eta gehiago jaisten ari da.
- Aurreikusitako 600.000 lanpostu berrietatik 165.000 bakarrik sortu dira.
- Artatutako 2,3 milioi pertsonatik 760.000 pertsonatara bakarrik iritsi da, eta zenbateko hori beherantz doa.
- Zerbitzu erdiak familia-zaintzaileentzako ordainsariak dira, zaintzen banaketa sexista iraunaraziz.
- Aldaketa handiak hautematen dira lurraldearen arabera.

Horrenbestez, menpekotasunaren zaintzarako estaldura hiru aldiz murriztu da, unibertsaltasunera aldera egin beharrean: abenduko 20/2011 Errege Dekretuak neurrizko menpekotasuna zuten pertsonak baztertu zituen, hurrengo egunetan horiek artatzen hasi behar bazuen ere, eta martxoan onartutako 2012ko Aurrekontuek eta uztailleko 20/2012 Errege Dekretuak zerbitzuak jaitzi zituzten, ordainsari txiki bat jasotzen zuten familiako zaintzaileei gizarte-segurantzak kentzeaz gain.

Eta zer gertatzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikekin krisialdi honetan? 1983. urtean Emakumearen Institutua edo 1988an Emakunde sortu zenetik, gaur hemen biltzen gaituena, hainbat politika finkatu dira pertsonekin, aurrekontuekin eta berdintasun-plan edo -programekin. Pekingo 1995eko Ekintza Plataformaren 203. neurriak diotenaren arabera, hori posible da gobernu-esfera gorenaren erantzukizunarekin, agintaldi definituekin, baliabide nahikoekin eta politika zehatzetan nahiz orokorretan –zeharka– eragiteko ahalmenarekin. 2010.

---

urtean Berdintasun Ministerioa ezabatzean, Estatuko erakundearen mailak behera egin zuen, haren jarduera luxuzko gisa hartzen hasi zen eta berdintasunaren alde eta genero-indarkeriaren aurka egiteko aurrekontua murriztu zen (Estatuko Aurrekontuen 232B eta 232C programak), 66 milioiren % 37 2009an, eta % 41 2013rako proiektuan.

Toki-administrazioaren berdintasun-politikak guztiz mehatxatuta daude Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Lege-aldaketaren eraginez, hark 7/1985 Legearen 28. artikulua ezabatu nahi baitu, eta harekin batera, baita Udalek berdintasuna sustatzeko duten eskumena ere, Konstituzioaren 9.2 artikulua botere publiko guztiei berdintasuna sustatu dezatela agintzen badie ere, eta CEDAW eta Toki Autonomiaren Europako Gutunean jasotzen dena kontuan hartu gabe. Aurreko batean, orain egin dezakegun gauzarik onena gehiegi ez nabarmentzea dela esan zidan nahiko garrantzitsua den erakunde baten arduradunak, horrela, likidatu ez gaitzaten. Ez nago ados: isiltzea likidatzeko modu bat da.

Gastu publiko sozialaren murrizketaz eta berdintasun-politiken murrizketaz gain –nahitaezkoak ez diren luxu gisa hartzen dira–, eta ofentsiba neoliberalaz gain –Estatuari bere galerak sozializatzeko eskatu ostean, krisiaz baliatu nahi du osasuna eta beste zerbitzu publiko batzuk pribatizatzeko–, erantzun patriarkal garbi bat dago, berdintasunerako eta herritartasunerako hezkuntza “adoktrinatzaila” delako ezabatzen duena eta sexuaren arabera bereizitako hezkuntza bultzatzen duena, abortu-eskubidea murrizten duena, urtero modako takoiria zentimetro bat igotzen dena.

Feminismoak badaki genero-berdintasunerako politikak eta ongizate-estatuaren ahultzeak nola eragiten duten emakumeen benetako ezberdintasunean –hezkuntzari, osasunari eta menpekotasun-egoeran bizi diren pertsonen zaintzari dagozkion zerbitzu publikoak eta pentsioak–. Ondo ezagutzen ditu haren bigarren mailako ondorioak ere, lehenengo urteetan gizonen artean emakumeen artean baino lanpostu gehiago suntsitu

---

badira ere, eraikuntzaren sektorea epizentroan egon delako, hain zuzen. Baditu alternatibak, zaintzen gizarte-banaketak luzaezina den gizarte-premia bati erantzuten baitio; finantza-krisiak ez du hura ukitzen, ezta ingurumen, adimen, edo kasinoko ekonomiaren krisiak ere, eta enplegu jasangarria sortzeko gaitasuna du.

Eta praktikan, zer egiten dugu emakumeen erakundeek krisiaren aurrean? Sektore batzuek lehen bezala eta pilotu automatikoarekin nabigatzen jarraitzen dute, ekaitz batean ez bageunde bezala, estatu demokratikoaren eta estatu birbanatzailearen koordinatuak mugitu ez balira bezala, edo, oinarririk gabe, nire ustez, ekonomia eta politika lehengoak bezalakoak izango direlakoan, beste sektore bat desagertzen ari den arren, diru-laguntzen eta belaualdien arteko erreleborik eza dela eta; dena den, oro har ekonomiarekiko arretoa areagotu egin da emakume-erakundeek aldetik –Ekonomia Feministaren Estatuko IV. Kongresua prestatzean eta aitortenarekiko interesa areagotzean, baina baita zaintzen eginkizuna banatzean, Nancy Fraser andreak dioen moduan, Aurrekontu publikoei buruzko ekintzetan eta murrizketen aurkako manifestazioetan ere– eta kalean bertan, gure deialdietan edo Marea Bioleta gisa, gizarte arloko murrizketen aurkako mobilizazio orokorretan.

Krisialdian, emakumeen arteko itunek ezin dute isileko itunak izan, desberdintasun sozialek eta genero arloko desberdintasunak gora egiten jarraitzen baitute. Feminismoa krisiari aurre egiteko ezinbesteko alderdi gisa ikusi behar da, feministok gaur bizi dugun egoera honetan ozen hitz egin eta protesta egin eta proposamenak planteatzen ez baditugu, hamarkadak igaroko baitira gure ahotsa entzun gabe; izan ere, gaur egun sei milioi pertsonako langabezia dugu, etxebizitza-sistema hipotekatuak guztiz zapalduta bizitzea eta elkar bizitzea eragiten du, jaiotza-tasa % 4 murriztu da, etxeko lan-karga areagotu egin da eskola-jantokien itxiera dela-eta, haur-hezkuntzako eskolak itxi dira, baterako hezkuntza eta eskoletako genero-indarkeriaren prebentzioa bertan behera utzi dira, eta bizileku-baimenik gabeko etorkinak eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen ez duten 26 urtetik gorako pertsonak osasun-arretarik kanporatu dira.

---

Krisialdiaren aurrean, itun feminista hainbat belaunalditako emakumeen artean gauzatu behar da, eta ez feminismoak edozein adinetako emakumeei laguntzen dielako eta horiek guztiak ordezkaten dituelako bakarrik, antolakuntzari dagokionez, gazteagotu egin behar duelako baizik. Niretzat atsegin handia da, pertsonalki nahiz kolektiboki, feminismoari nolabaiteko gaztetasuna eskaintzen dioten lankideekin mahai hau partekatzea. Itunaz hitz egiten dut, genealogia feministaren edo egitura-gabeziaren tiraniaren aitorpenari buruzko zenbait ihesbide eta desberdintasun daudelako, baita gure aliatuei eskatu beharreko gutxienekei dagokienez ere; hor dugu, esaterako, urriaren 11n 15M mugimendua Alemaniako Parlamentuarekin bildu zeneko kasua, 6 gizonen eta emakume batek ordezkaten zutena. Emakume gazteek beren lekua berretsi behar dute; izan ere, horiek bazekiten emakume-erakundeak existitzen zirela, baina horietan ez zuten hazteko eta mundua beren modura aldatzeko lekua bilatzen, mundua eta feminismoa batzuek zein besteek partekatu arren. Bat etorriko garen helburuak eta ekintzak bilatzen ari gara. Madrilen, 2012ko irailaren 28ko manifestazioa (Abortatzeko Eskubidearen Aldeko Nazioarteko Eguna) 15M mugimenduko feminismoek bakarrik deitu zuten, baina gainerako erakunde feministak horien atzetik joan gara, deialdiak batera egin daitezela eskatu gabe; izan ere, batzuetan laguntzeko modurik onena zure izena alde batera uztea eta deialdia egin dutenek hor gaudela jakin dezatela da, gauza bera defendatzen dugula, alegia. Adimena ireki eta kalera irten behar dela irakatsi digu M15 mugimenduak.

Krisiaren aurrean egiten diren feminismoen arteko itunek gizarte- eta genero-berdintasunerako mekanismoak defendatzea dute helburu, sistematikoki erasotzen dituzten neoliberalismoari aurre eginez. Badira berdintasunaren aldeko beste mugimendu batzuk ere, berriak nahiz zaharrak. Gure autonomia, feminista gisa dugun izena eta autoantolaketa aitortu ditzatela dira gure baldintzak, eta beren funtzionamenduan emakumeen gutxieneko presentzia kuantitatibo zein kualitatiboa izan dezatela. 2012ko otsailean Marea Bioleta gisa irten ginen lehen aldiz kalera, kalera elkarrekin eta feminista gisa ateratzeko erabili dugun izena.

Irailean ere Marea Bioleta gisa agertu gara, sindikatuek eta berrehun gizarte-erakunde inguruk sortutako eta Cumbre Social elkarteak deitutako martxan. Dena den, eta hasieran esaten nuen moduan, beren sindikatuarekin, alderdiarekin edo militantziarekin gehiago identifikatzen diren emakume asko egon arren, beste batzuek feminista izatea defendatzen dugu, 63 erakundek sinatutako erantsitako agirian adierazi ditugun gure arrazoi zehatzekin.

*Eranstina*

## **OSATU EZAZU GUREKIN MAREA BIOLETA IRAILAREN 15EKO MURRIZKETEN AURKAKO MARTXAN**

2012ko irailaren 15ean, larunbatean, ehunka erakunde sindikalek eta sozialek Gobernuaren politika neoliberalaren aurkako Martxa bat antolatu genuen Madrilan, hark okertu egiten baititu langabezia dauden pertsonen, soldatapeko lanpostu bat edo lanpostu autonomo bat duten pertsonen, pentsiodunen, etorkinen, gazteen, emakumeen, menpekotasun-egoeran bizi diren pertsonen nahiz horiek zaintzen dituzten pertsonen egoera; horrez gain, Ongizate Estatuaren sostengatzen duten lankidetzak, ikerkuntza eta zientzia, kultura, eta osasunari, hezkuntzari eta gizarte-eragileentzako zerbitzu publikoak murrizten ditu eta pertsonen eskubideen eta askatasunen aurka eraso egiten du.

Emakumeak gizarte-multzo horietan guztietan gaude, biztanleriaren erdia osatzen baitugu, eta Estatuaren eginkizun birbanatzaileak izan duen atzerapenak gure diskriminazioa nola areagotzen duen eta gure eskubideak nola murrizten dituen SALATU nahi dugu:

- Gure gain uzten du haurren nahiz gaixo edo menpekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintza.
- Zerbitzu horietako lanpostuak murrizten ditu (emakumeen artean bereziki).
- Ez ditu erabilzaile eta herritar gisa egiten ditugun eskaerak kontuan hartzen.

Feminismoak, berdintasunaren aldeko aktibismoak eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun-politiken eskakizunak hainbat ALTERNATIBA ditu; horien artean, zaintzen banaketa familiarra eta soziala gailentzen da, eta horiek oso erabilgarriak dira ekonomia bidezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzeko.

Horregatik, honako hauekin ados EZ bazaude:

1. Educa3 Planaren ezabapena, 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntzako tasen igoera eta jangelarako diru-laguntzen murrizketa, horien eraginez gurasoek ezin baitituzte beren lan eta familia arloko bizitzak bateragarri egin.
2. Menpekotasun moderatua duten pertsoneri eskaintako zaintza ezabatzea eta Estatuak gainerakoei eskaintzen dizkien zerbitzuak mantentzeko ekarpena murriztea, horien eraginez pertsona askok sufrimendu bidegabe bat jasaten baitute eta jasangarria ez den familia-zaintzaileen sistema bat sortzen baita.
3. Plan Itunduari egindako ekarpenaren murrizketa, gizarte-zerbitzuen sistema osoa mehatxatuz.
4. Gobernuak emakume bakoitzari segurtasun-baldintzetan eta osasun publikoan abortatu nahi duen erabakitzeke askatasuna galaraztea, bere morala gure erabakitzeke eskubidearen gainetik jarritz.
5. Otsaileko lan-erreformak negoziazio kolektiboa baliogabetzea, eta harekin batera, enpresetako Berdintasun Planak baliogabetzea; 50 langile baino gutxiago dituzten enpresen frogaldia urtebetera luzatu dadila, lanaldi partzialeko kontratuak desarautu daitezela eta, oro har, lanaldia areagotu dadila; izan ere, horrek ez du langabeziaren arazoa konpontzeko balio, gehiago handitzeko baizik, 6. hilabetetik aurrerako langabezia-prestazioa jaisten den bitartean.
6. Udalei emakumeen berdintasuna sustatzeko eskumena kentzea, Konstituzioaren 9.2 artikulua urratuz.
7. Oinarrizko eskubideen eta osasun publikoaren aurkako 12/2012 eta 16/2012 Errege Dekretuak aplikatzea, horien bidez, paperik gabeko etorkinak osasun-zerbitzutik kanpo uzten baitira, baterako ordainketa farmazeutikoa areagotzen baita (baita pentsiodunen artean ere) eta zergak

ordaintzen ez dituztenei amnistia fiskala eskaintzen baitzaie.

8. Ikasgela bakoitzeko ikasle-kopurua handitu dadila, horrela, baterako hezkuntzarekiko arreta galaraziz; Herritartasunean genero-berdintasuna ezabatu dadila eta sexu bidezko banaketak egiten dituzten ikastetxeak diruz laguntzea.

9. Neurritz kanpoko soldata-murrizketak egin eta zergak gehikortasunik gabe areagotu daitezela.

10. Estatuak bankuei egindako ordainketari lehentasuna ematea, pertsonen funtsezko eskubideen kontura.

11. Dekretuz gobernatu dadila, horrek arauen genero arloko ondorioak ikus ez daitezela laguntzeaz gain, sistema demokratikoa debalutzen baitu.

12. Espekulazio finantzarioa adreilutik elikagaietara mugitu dadila, ez landa-izaerako emakumeen eta emakume nekazarien kontura bakarrik, baita goseteen eta herritar guztientzako elikagaiak garestitzearen kontura ere.

Berdintasuna ez da luxu bat. Horregatik, orain inoiz baino gehiago, mekanismo publikoek –berdintasunaren aldeko nahiz genero-indarkeriaren aurkako planak eta zerbitzuak– eta gizarte-mekanismoek –emakume-erakundeen partaidetza eta mobilizazioa– ezin diogu hura zaintzeari utzi.

## **MAREA BIOLETAN ITXARONGO ZAITUGU IRAILAREN 15EKO GOIZEKO 10ETAN MADRILGO BURTSAREN AURREAN (NEPTUNO)**

- 1 ACSURAS
- 2 Entrepobles
- 4 AREA FEDERAL DE LA MUJER IU
- 5 ASOC. DE PLANIFICACION FAMILIAR DE MADRID
- 6 ASOC. CON LA A
- 7 ASOC. CULTURAL IBEROAMERICANA, ANDRÉS BELLO. ACIAB
- 8 ASOC. DE MUJERES DE GUATEMALA. AMG
- 9 ASOC. DE MUJERES SAHARUIS DE ESPAÑA (AMSE)
- 10 ASOC. DE MUJERES SEPARADAS Y DIVORCIADAS (OURENSE)
- 11 ASOC. JUCOVI (Asociación de Hombres y Mujeres por la Igualdad y contra la Violencia de Género)

- 12 ASOC. LA RUEDA. Burgos
- 13 ASOC. LEONESA SIMONE DE BEAUVOIR
- 14 ASOC. MERCEDES MACHADO. Tenerife
- 15 ASOC. MUJERES DE COMILLAS
- 16 NOSOTRAS NO NOS RESIGNAMOS
- 17 ASOC. NOSOTRAS MISMAS DE CHAMBERI
- 18 ASOC. VIVA LA PEPA
- 19 COLECTIVO FEMINISTA LAS TEJEDORAS
- 20 CENTRO DE ESTUDIOS DE LA MUJER
- 21 CENTRO DE ESTUDIOS E INVESTIGACION SOBRE MUJERES CEIM
- 22 COLECTIVO "LA DESTILERÍA DE LA LIBRERÍA DE RELATORAS"
- 23 COMISION PARA LA INVESTIGACION DE MALOS TRATOS A MUJERES
- 24 CONFED. MUJERES DEL MUNDO RURAL CERES
- 25 CRECUL (Comité de Culturas Lesbianas)
- 26 DEHMUDE (Derechos humanos de las mujeres y desarrollo)
- 27 E-MUJERES
- 28 FORUM DE POLITICA FEMINISTA
- 29 MARIA MAEZTU FORUM FEMINISTA. EUSKADI
- 30 INCIDE (Inclusión, ciudadanía, Diversidad, Educación)
- 31 INTERSINDICAL VALENCIANA
- 32 ETXEKO INDARKERIAREN ETA GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO BEHATOKIA
- 33 PLATAFORMA DE MUJERES EN LA DIVERSIDAD DE LA COMUNIDAD DE MADRID
- 34 PLATAFORMA ESPAÑOLA DE WIDE-E PLUS
- 35 PLATAFORMA VIOLENCIA CERO DE SEVILLA
- 36 PLATAFORMA VIOLENCIA CERO-MALAGA
- 37 RED ECOFEMINISTA
- 38 SECRETARIA CONFEDERAL DE LA MUJER DE CCOO
- 39 SECRETARIA DE LA MUJER DE CCOO CASTILLA Y LEON
- 40 SECRETARIA DE LA MUJER DE USTEA
- 41 SECRETARIA DE IGUALDAD Y PROGRAMAS U S O DE MADRID
- 42 Asociación de Mujeres Montserrat Roig, San Fernando de Henares
- 43 MAREA VIOLETA DE MALAGA
- 44 SINGENEROdeDUDAS
- 45 SECRETARIA DE IGUALDAD DE LA FEDERACIÓN DE ENSEÑANZA DE CCOO ASTURIAS
- 46 SECRETARIA DE IGUALDAD DEL PSOE DE VALLADOLID
- 47 INET (Instituto de Estudios Transnacionales de Córdoba)
- 48 ASAMBLEA DE MUJERES DE CÓRDOBA YERBABUENA
- 49 SECRETARÍA DE LA MUJER DE CCOO DE MADRID
- 50 ASOCIACIÓN DE MUJERES MESEADE ORCASITAS
- 51 ASOCIACIÓN DE MUJERES EUROPEAS FEMINISTAS (AMEFE)

- 
- 52 ASAMBLEA DE MUJERES DE CANTABRIA
  - 53 COORDINADORA DE MUJERES DE VALLADOLID
  - 53 SECRETARIA CGT Cyl
  - 54 ASOCIACIÓN DE MUJERES MAYORES PROGRESISTAS (MUMAPRO)
  - 55 ASOCIACIÓN DE MUJERES VENTANA ABIERTA
  - 56 PLATAFORMA 8 DE MARZO DE ORGANIZACIONES DE MUJERES DE TENERIFE
  - 57 FEMINISTAS DE POSADAS ASAMBLEA
  - 58 PLATAFORMA DE ACCION FEMNISTA CANARIA
  - 59 FORO CONTRA LA VIOLENCIA DE GENERO DE CANARIAS
  - 60 ACCIÓN EN RED MADRID
  - 61 BLOGUERAS.AS
  - 62 CIUDAD DE MUJERES
  - 63 FEDERACIÓN DE SINDICATOS DE PERIODISTAS

---

**SHAMS ABDI**

**Tunezoko Emakumenen  
aldeko Nazioarteko  
Martxako kidea**



---

Lehenik eta behin, nire hitzaldiaren helburuak azaldu nahi nituzke, nora zuzendu nahi dudan, alegia. Emakumeak Tunisian duen egoeraren ikuspegi argi bat eskaini nahi dut, eta bi egoera alderatuko ditut, arabiar udaberriaren aurrekoa eta ondorengoa. Ohartuko zineten bezala, arabiar udaberriak markatzen du muga, nahiz eta herritarrek ez dakiten oso ondo, hasteko, arabiarra den, eta udaberria ala negua den... nik esango nuke negua dela.

Aurrera, bada. Tunisiako emakumeak historian bizi izan duen egoeraz hitz egingo dugu lehenbizi. Bigarren puntuan, Tunisiako mugimendu feminista eta emakume-erakundeak jorratuko ditugu: hastapenak eta berorien gogoetak emakumearen egoerari buruz, arabiar udaberriaz aurretik eta geroztik. Hitzaldi labur honetan, batez ere bigarren puntu hau izango dugu hizpide.

Emakumeen egoera historian zehar. Frantses kolonizazioaren aurretik hasiko gara, hau da, 1881 baino lehenagotik, gure sistema eta harremanak guztiz feudalak ziren garaitik: erregeak gobernatzen zuen herrialdea eta emakumeak bigarren mailako herritartzat hartzen ziren, objektu soilak zirela ez esateagatik. Baina, eta hau atseginez diogu, bagenuen «baina» bat gure gizartean. Tunisian hainbat kultura eta zibilizazio izan ditugu eta haietako batzuetan emakumeak oso bestelako papera jokatu zuen. Esate baterako, Kartagoko Dido erregina erromatar inbasoreen aurka borrokatu zen heriotzara arte, eta Kahina berbereen erreginak arabiar musulmanen inbasioaren aurka egin zuen borroka, hil arte hark ere. Zibilizazio haien eragina zela-eta, ordura arteko tunisiar gizartea, hau da, 1881 urteaz aurrekoa, zertxobait desberdina zen gainerako arabiar gizarteekin alderatuta. Adibide bat jartzearren: poligamia legezkoa zen, baina, era berean, oso-oso bakana gure gizartean.

Aurrera egingo dugu; frantses kolonizazioa etorri zen gero, arabiar udaberria baino lehen. Dakizuen bezala, gure gizartea erabat feudala zen eta, bat-batean, frantses kolonizazioak inposatutako modernitatera igaro ginen, frantsesek ezarritako kapitalismora. Zer lortu genuen? Bada, gizarte ez-homogeneo bat,

---

harreman ez-homogeneoekin. Kapitalismoa hor zegoen, baina harremanak feudalak ziren oraindik, ulertzen didazue zer esan nahi dudan. Hortaz, esan bezala, gizartea homogeneotasun gabekoa zen: emakumeen egoera ez zen homogeneoa, alde handiak zeuden gizarte-klaseen arabera, bai eta emakume batetik bestera ere.

Eta orain, pasa gaitezen puntu nagusira, hots, Tunisiako mugimendu feministaren eta emakume-erakundeen hastapenetara. Tira, feminismoa gauza bitxia eta positiboa da aldi berean Tunisian, gizon baten eskutik etorri baitzen. Bai, Tahar Haddad zuen izena eta 1930ean liburu bat idatzi zuen, «Gure emakumea sharian eta gizartean». Sharia aipatzen denean erlijiotik zuzenean ateratako legeak adierazi nahi dira. Liburu hori orain irakurtzen badugu ez dirudi horren iraultzailea, baina sasoi hartan, 1930eko gizarte feudalean, independentziaren protokoloa baino ere lehenago, ate bat irekitzen hastea izan zen: ikuspuntu erlijioso batetik abiatu eta feminismoa hurbiltzea. Garai hartan iraultzailea izan zen eta, sinetsidazue, oraindik ere gogaikarri egiten zaie haren izena Tunisiako anaia islamikoei, hilerrira joan eta beltzez margotu baitzieten hilobia.

Eraginkortasun handiagoko ekintza batera helduko gara orain, 27 urte geroago, independentziaren datara; edo, independentziaren protokoloa izan zenera, behintzat. 1956an, Tahar-en alaba Radia Haddad-ek eta haren lagun edo burkide Bchira Ben Mrad-ek emakumeen martxa bat antolatu eta soilik gizonezkoz osatutako lehen batzar konstituziogilera joanik, emakumeen oinarritzko eskubideak konstituzioan jasotzera behartu zituzten. Eta nola amaitu genuen? Estatutu Pertsonalaren legea aldarrikatu zen, emakumeen oinarritzko eskubideak biltzen dituen, esate baterako, poligamia kriminalizatzen duena. Tunisiako Estatutu Pertsonalaren Kode hori izan zen, arabiar munduan, poligamia delitu gisa sailkatu zuen lehena –bakarra ez esatearren–, eta hori garrantzi handiko urratsa da guretzat. Argazkiko hau Radia Haddad da, «parole de femme» (emakumearen hitzak) (10:43) izenburuko bere liburuarekin

---

eta hau Bchira Ben Mrad duzue. Argazkian Farsa Hazzed-ekin dago, Tunisiako Lanaren Batasun Orokorra sortu zuenarekin, aurrerago aipatuko dugunez; azkeneko hau, berriz, Bchira Ben Mrad-en duela gutxiko argazkia da.

Egin dezagun aurrera mugimendu feministaz eta emakume-erakundeek arabiar udaberriaren aurreko emakumeen egoerari buruzko gogoetaz jarduteko, nahiz eta, ikusiko dugun bezala, ebaketa argi bat ez dagoen arabiar udaberriaren aurretik eta ondoren. Ezin dezakegu erreferentzia gisa hartu; gainera, nahasmen moduko bat dago, arabiar udaberriaz aurretik gertatutakoaren emaitzak jasaten ari baikara orain.

1966 eta 2011 artean, eta gaur arte, diktadura indar handiz finkatu zen gure herrian. Ondorioz, gizarte-mugimendu guztiak zapaldu ziren, mugimendu feministak barne, eta komunikabideak erabat kontrolpean zeuden. Zapalkuntza horren eraginez eta komunikabideen kontrol erabateko hori zela-eta, emakumearen egoerari buruzko irudi faltsua zabaldu zen. Gure egoeraren irudi positiboagoa ematen saiatu ziren nazioarteko komunitateari; baita, jakina, nazioarteko mugimendu feministei ere.

Ikus ditzagun bi adibide: lehenengoa Radia Haddad –Tahar Haddad-en alaba– eta Bchira Ben Mrad-ek sortutako emakumeen batasuna da. Erakunde hura, emakumeen eskubideen alde lehiatu eta borroka feministaren lider bihurtu ordez, gobernuaren tresna bilakatu zen egoeraren irudi faltsu bat emateko eta emakumearen irudia edertzeko. Bigarren adibidea emakumezko ez feministak ministro izendatzea zen, irudia apaintzeko helburuarekin orduan ere. Ez dago esan beharrik, ez ziren inoiz barneko edo kanpo-arazoetako ministro izan, baizik eta emakumearen eta familiaren ministro. Zapalketaren ondorioz, eta kategoria guztietara iristerik ez geneukanez, egoera horrek arrisku handi batera eraman gintuen: feminismoa elitearen kontu bat izan da beti gure gizartean, emakume ikasi gutxi batzuen talde bat Simone de Beauvoir-en teoriak partekatzen zituena, Noel Sade; bien bitartean, emakume

---

ez-feministak, feminismoa zenik ere inoiz entzun ez zutenak, gizartearen barren-barreneko mailan zeuden. Guztiak ziren emakume zapalduak, baina batzuek defenda zitzaketen beren eskubideak eta besteek, gehiengoak, ezin zuten.

Baina, segi dezagun aurrera. Bi adibide jarri ditut lehen: aurrenekoa Emakume Demokraten Tunisiar Elkarteak da, alegia, arabiar udaberria deitu zaionaren aurreko gobernuak kanpoko erakunde bakarra. Oso elitista zen, abokatu, irakasle, doktore eta halakoek soilik osatutako sekta moduko bat. Gero, emakume langileen taldea zegoen, Tunisiako Langileen Batasun Orokorreko emakumez arduratzen zen erakundea, baina ezin zen emakume langile guztiengana heldu eta hau ere elitista zen, ez emakume demokraten taldea bezain elitista, baina elitista hau ere. Esate baterako, ezin zen iritsi lantegietako emakumeengana; zerbitzu publikoan lan egiten zuten emakumeengana soilik hel zitekeen.

Egin dezagun aurrera. Aurrez azaldutakoaren ondorioz eta Golkoko herrialdeetatik (Saudi Arabia, Qatar, Bahrein...) heltzen zen telebistaren bitartez, hango pentsamolde fanatikoa eta fundamentalismo islamikoa jasotzen genuen. Mugimendu feministak elitistak zirenez, emakumeek eta jendeak telebista ikusten zuten eta gizonezkoak baino gauzaezago zirela uste izatera iristen ziren. Pentsamendu fanatikoak hazten jarraitu zuen; bitartean, pentsamolde aurrerakoa, oro har, eta feminismoa, bereziki, gero eta ahulagoak ziren. Ados?

Hona hemen inbasio kultural fanatiko honen –nik horrela deitzen diot– zenbait adibide: emakume bat agertzen da esanez beloa emakumearen liberazioa dela eta, azkenean, gizona baino gutxiago den konbentzimendura iristen da. Tira, beste hau ere interesgarria da: Ikusten dituzue emakume horiek guztiak eskuak jasota? Bai ala ez? Bai? Ba, entzun ezazue hau: emakume horiek orain gobernuan dagoen An Nahawaa (15:48) alderdi islamistakoak

---

dira, eta baiezko botoa ematen ari dira, badakizue zeri? Emakumezkoak lehendakaritzara aurkeztea debekatzea onartzen ari dira. Baiezkoa ematen ari dira errepublikako lehendakaria gizonezko bat izan behar duela dioen lege-proiektu baten alde; izugarri arriskutsuak dira jarrera hauek. Geroago, mugimendu feministen presioari esker, lege hori ez zen onartu. Beste hau Nissam Hameny izeneko poeta libanoarraren aipamen bat da. Gizon batek dio: «Gure herrialdeko gauza harrigarriena da emakumeak emakumeen eskubideen aurka daudela»; horixe da egiazko krisia.

Aurreko hori zela eta, emakumeen kategoria ez-pribilegiatuek oker interpretatu zuten feminismoa: feminista bat prostituta bat da, lesbiana bat, moralik ez duen bat, are gehiago, jainkogabe sionista bat. Eta beste gauza asko ere entzuten ditugu.

Igaro gaitezen orain emakumeen mugimendura eta erakunde feministek arabiar udaberriaz geroztik emakumeek duten egoeraz egiten dituzten gogoetetara. Bi ardatz nagusi daude: lehenengoa feminismoari lotutako laidoztatzearen aurkako borroka da; ez ideologia soilik, mugimendu politikoa ere zeharo belztu baitute. Bigarren ardatza emakumeak erabakiak hartzen diren postuetan sartzearen alde borrokatzea da, eta ez emakumeen erakundeetan soilik, mistoetan ere bai. Eta hori tokian bertan lan eginez eta etsenplua emanez egin behar da, teoria hutsean geratu gabe. Baina, nola borroka egin feminismoari lotutako laidoztatzearen kontra, eta nola bultzatu emakumeek erabakiak hartzen diren postuak okupatzea? Lehenik eta behin, leku agerietan presente egon behar dugu, kaleetan. Honako hau 2012ko martxoaren 8ko Femen-en manifestazioa da. Gutako batek lehen urratsa ematen badu askatasunaren alde, babes dezagun. Bigarrenik; egin behar dugun beste gauza bat da emakume guztien ondoan egon, eta hezkuntza eskaini beren eskubideei buruzko prestakuntzarik ez dutenei. Erakunde feministek emankizunak antolatu behar dituzte bigarren hezkuntzako eskoletan, unibertsitatean eta lantegietan. Horiek adibide zehatzak dira. Gainera, mugimendu feministak presioa egin behar dio

---

gobernuari ikasketa-planetan genero-berdintasuna sartzeko eta indartzeko. Esan nahi dudan beste gauza garrantzizko bat da genero-desberdintasunaren arazoa ez dagoela gizarteko beste arazo batzuetatik bakartuta. Genero-desberdintasuna hertsiki lotuta dago egoera ekonomikoari, egoera politikoari, gizartearen egoerari, norbanakoen psikologiari eta kapitalismo patriarkalari. Esate baterako, har dezagun emakume baten kasua, langilea baldin bada, langile klasekoa, genero-indarkeriarekin batera, indarkeria psikologikoa jasaten ariko da, eta, aldi berean, burujabetasun ekonomikorik eza eta zapalkuntza politikoa ere sufrutuko ditu. Horrela, bada, feminismoa gainerako guztiarekin lotuta dago; horregatik, beharrezkoa da borroka feminista ere guztiarekin lotuta egotea. Ez dugu mugatu behar mugimendu feministen ziklo edo esfera estura; feministok dena inbaditu behar gucle: sindikatuak, alderdi politikoak, estudianteen higikundeak, baita karitate- edo ongintza-erakundeak ere, horrela, gure ideologia feminista eta feminismoa transferitzeko.

Ikus ditzagun erakunde garrantzitsuenen adibide batzuk: Emakumearen Nazioarteko Martxa, Emakume Langileak eta Emakume Demokratik eta Femen. Ongi, erakunde mistoetako aktibistak diren emakume feminista batzuen irudiak erakutsiko ditut orain. Hau Amel Adwinin (00:20) duzue, Tunisiako Lanaren Batasun Orokorrekoa. Atrebentzia bada ere, ni naiz argazkikoa, Tunisiako Ikasleen Batasun Orokorrekoa; beste hau Graduatu Langabetuen Batasuneko militantea da; eta hauek gose greban dauden kazetari batzuk. Tunisiako kazetariak borrokan murgildurik daude. Asteazkenean, uste dut, kazetarien greba orokor bat izan genuen; hauek gose greban dauden kazetariak dira; beste hau Mayara Shabibi duzue, Errepublikaren Alderdiko buruzagia, alderdi bateko emakume buruzagi bakarra, eta 20 alderdi politiko ditugu; hau Radia Naswary da, Torturaren aurkako Tunisiako Elkartearen lehendakaria; poliziak margotuta dauka bere argazkia, feminista eta giza eskubideen aldeko aktibista izateagatik; beste hau Sundar Garshpush da, Amnistia Internazionalerako Tunisiako lehendakaria; eta beste emakume hau ere feminista eta borrokalari handia da, errespetu ikaragarria diogu guztiok:

---

Nashee Hab Hadrum Kazetarien Batasun Nazionalekoa.

Eta orain, amaitzeko, esan nahi dut mugimendu feministatik eta emakumeen erakunde gisa ez garela borrokan ari, soilik, borondate politiko baten edo lege jakin batzuen kontra, baizik eta, nolabait esanda, une honetan bizi dugun erdi-feudalismo, erdi-kapitalismo patriarkalaren ezaugarri den krisi politiko, ekonomiko eta sozial oso baten aurka ari garela borrokan. Azkenik, adierazi nahi dut oreka batera heldu behar genukeela teoriaren eta praktikaren artean, eta gure borroka-esfera alor guztietara hedatu, esparru guztietako emakumeengana iristeko.

Nik asko ikasi dut Simone de Beauvoir-en liburu honetatik, egundokoa izan zen niretzat... benetan. Aktibistak izan behar dugu praktikan, ezta?

Azkenik, eskerrik asko zuen arretagatik. Gaurko hitzaldi labur hau Malala Yusufzai-ri eskaini nahi diot. Ez dakit ezagutzen duzuen, baina Pakistangoa da, 14 urte ditu eta talibanek tirokatu zuten joan den astean, emakumeek hezkuntzarako eskubidea dutela erreklamatzegatik. Espero dut eta badakit eskubide hori erreklamatzeko segituko duela ospitaletik irten bezain laster. Mila esker.

---

**SUA FENOLL**

**Aktibista feminista  
eta Madrileko 15Mko  
Comisión Feminismos  
Sol taldeko  
parte-hartzailea**

*Mugimedu  
feminista eta  
emakumeen  
erakundeak  
krisiaren aurrean*



---

15M mugimenduko feminismoak eta horien proposamenak askotarikoak dira, eta ezin ditugu guztiak jorratu. Hori bai, gehienak sarean arakatuta aurkitu daitezke, 15M mugimenduko gauza garrantzitsuetako bat –hura posible eta global egin duena– batzar edo talde bakoitzak sortutako ezaguera partekatu eta hedatu izana baita. Edo hobe esanda ezaguerak, 15M mugimendua oso eremu zabala baita, mota askotako proposamenak eta gauzak egiteko modu desberdinak barne hartzen dituena. Horregatik, orain kontatuko dizuedana nondik datorren adierazi nahiko nizueke. Lehenik eta behin, 15M mugimenduaren barnean dauden feminismo/transfeminismo/transmarikabollo/genero eta abarren arteko bereizketa egin nahiko nuke, baita 15M mugimenduaren barnean dauden eta sortu diren praktika feministak ere; horietako batzuk berariaz eta esplizituki landu ostean sortu dira, hizkuntza inklusiboa esate baterako (ez sexista baino zertxobait gehiago), eta beste batzuk, aldiz, modu espontaneoan sortu dira, hala nola, horizontaltasuna, deshierarkizazioa eta asanblearismoa, kontsentsu bidezko erabakia, pertsona guztien inklusibitatea, zaintzekiko arreta eta eginkizunen banaketa, eta indarkeriarik gabeko ekintza zuzena. Jakina, espontaneoak direla diodanean ez dut esan nahi ezerezetik sortu direnik, oraintxe esan dudan moduan, historia asko baitute atzean, horiek ezagutzen eta praktikatzeko zituzten pertsonen proposamenetatik abiatuta, jendeak bere egin, horiek landu eta eraldatu egin dituela baizik. Feminismoak “horiek zeharkatzen dituzten eta nortasun-ezaugarri gisa hartzen dituzten praktiken eta hitzaldien bitartez” sortu dira.<sup>1</sup>

Horregatik guztiagatik, Madrilgo 15M mugimenduko feminismoetan oinarrituko dut nire hitzaldia; izan ere, bertan feminismo, genero edo dena dela deituriko batzorde desberdinetako pertsonak elkartu ginen, Madrilgo auzo eta herri askotakoak. Eta batez ere Sol Feminismoetako Batzordean, astero parte hartzen dudako batzordea; horrela, orain kaleetan eta plazetan planteatzen ari garenaren ideia orokor bat emango dizuet. Bi talde horietan sortzen joan garen materialetatik abiatuta hitz egiten saiatuko naiz, baina

---

(1) CIINPI Ebook-a

---

noski, ez naiz batzordearen ordezkari gisa arituko, haren kide besterik ez bainaiz. Honako hauek dira oinarritzko bi testu horiek: batetik, Sol Feminismoak Batzordearen Dosierra<sup>2</sup>, 2011ko uztailaren 23an Estatuko martxak Madrilerira iritsi zirenean argitaratu zena eta Sol plazako kanpaldian egon ginen bitartean nahiz hurrengo hilabeteetan egindako guztia jasotzen duena; eta bestetik, irailaren 16an Madrilén egindako abortu-eskubideari buruzko Topaketa baterako prestatu genuen dossier-zirriborroa<sup>3</sup>, abortuari buruzko legearen aldaketa-proposamenak gaur egun bizi dugun krisialdiarekin duen lotura eta emakumeok bertan dugun kokalekua modu sakonean aztertzen dituen. Horiek Feminismoen Tomalaplaza Madrid lantaldean aurkitu ditzakezue<sup>4</sup>. Baita urte eta erdi honetan zehar argitaratu ditugun gainerako deialdi, jakinarazpen, adierazpen, bideo eta memoria guztiak ere.

## **Ez da krisialdi bat, sistema bera baizik**

Aurre egiten ari garen krisi hau ez da ekonomikoa bakarrik, baita politikoa, ekologikoa, etikoa eta zaintzena ere, eta jasaten ari garen murrizketak, ideologikoak: klasistak, arrazistak, eta jakina, matxistak. Zibilizazioaren krisialdia da<sup>5</sup>, zaila bere osotasunean ulertzeko, baina ondorio zehatzak eragiten dituena, gure egunerokotasunean jasaten ditugunak. Eta askotan asko kostatzen zaigu ondorioak kausekin lotzea.

---

(2) Sol Feminismoen Dosierraren Esteka:

<http://madrid.tomalaplaza.net/2011/07/22/dossier-de-comision-de-feminista/>

(3) Abortuaren Eskubideari buruzko Dossier-zirriborroaren esteka:

<http://madrid.tomalaplaza.net/2012/09/10/encuentro-sobre-el-derecho-al-aborto/>

(4) Tomalaplaza Madrid GT Feminismos esteka:

[http://madrid.tomalaplaza.net/category/comisiones/g\\_feminismos/](http://madrid.tomalaplaza.net/category/comisiones/g_feminismos/)

(5) Fernández Durán, Ramón. El antropoceno: la crisis ecológica se hace mundial. La expansión del capitalismo global choca con la Biosfera.

<http://www.rebellion.org/docs/104656.pdf>

---

Modu arrakastatsuan betetzen ari den 15M mugimenduaren helburu nagusietako bat krisi multidimentsional honen kausa guztiak elkarrekin lotzea da<sup>6</sup>, horrela, egoeraren mapa orokor bat lortu eta, lehen pauso gisa, gehiago engainatu ez gaitzaten. 15M mugimenduaren bitartez beharrezko ezaguera asko partekatu ditugu, batzuk lehendik zeudenak eta beste batzuk, aldiz, berriak; horrela, sistema bera eta haren funtzionamendua ulertu eta haren akatsak eta pitzadurak hauteman ahal izan ditugu. Sistema bere osotasunean aztertzea eta zer gustatzen ez zaigun eta zer eraiki nahi dugun eztabaidatu eta ikustea erabaki du. Oinarrizko gizarte-mugimenduen urte askotako lanaren ostean, udaberri arabiarrekin abiarazi eta 15M mugimenduarekin jarraitu zuen kate global bat izan da, gero Occupy Mugimendua sortuz. Ez gaituzte gertuko arazoek bakarrik kezkatzen, hemen gertatzen denaren eta munduko gainerako lekuetan gertatzen denaren arteko harremanek baizik, bi norabideetan. Aldaketa globala ez bada, ez da eraginkorra izango.

Ekonomia eta finantza arloko agintariak eredu neoliberal kontserbadorea indartzen saiatzen ari dira esparru guztietan: ekonomikoan, naturarekiko harremanetan eta gizarte-harremanetan. Horrela, sistema patriarkalaren eta kapitalistaren egiturazko bazterkerietan eta desberdintasunetan sakondu nahi dute, sistema finantzarioari dagokionez batik bat, baina baita ekoizpenari dagokionez ere. Nolanahi ere, ez da diru kontua bakarrik, krisi ekonomikoaren aitzakiarekin, araubide demokratikoaren krisi bat ezartzen ari baitzaizkigu, “pribilegio gisa hartzen diren eskubideak kenduz eta horiek zalantzan jarritz, [eta] zerbitzuak pribatizatuz eta kenduz, horrela, ahalik eta kostu txikienaren merkatu-logika geureganatu dezagun”<sup>7</sup>.

---

(6) Rebelión, 2012/02/06, Pérez Orozco, Amaia, De vidas vivibles y producción imposible.

<http://www.rebellion.org/noticia.php?id=144215>

(7) Abortuaren Eskubideari buruzko Dossier-zirriborroaren esteka:

<http://madrid.tomalaplaza.net/2012/09/10/encuentro-sobre-el-derecho-al-aborto/>

Ez dugu ahaztu behar “ofentsiba neoliberal hori bi elementu nagusi hauek gailentzen diren mundu-mailako krisialdiaren testuinguruan kokatzen dela: herritar zaugarrienei eragiten dieten gizarte eta ekonomia arloko murrizketak (emakumeak, etorkinak eta estatusunean bizi diren herritarrak) eta talde eta hitzaldi kontserbadoreen gorakada, askotan, alderdi politikoa eta/edo gobernua dena dela”<sup>8</sup>. Alemanian, adibidez, duela asko jarri zuten martxan gure lan-erreformaren antzeko erreforma bat, epe luzera lanpostuak sortzen dituen, lan- eta bizi-baldintzak ezegonkor bihurtzearen truke<sup>9</sup>. Edo abortuaren kasuan, Europako herrialde askotan bermatuta dagoela uste baitugu; joan den astean bertan, ministro ingeles batek legezko abortua egiteko epea 24tik 12 astera murrizteko premiaz hitz egin zuen<sup>10</sup>.

15M mugimenduaren barnean nahiko barneratuta dago diskurtso hori, baina guk hura emakumeengan eta gure gorputzetan izaten ari den eragin bereziki negatiboa ikustarazteko helburuarekin lan egiten dugu, hura ustezko “genero-politikak” dituen sistema baten barnean sistema patriarkala indartzeko eta iraurarazteko “plan” bat den heinean<sup>11</sup>. Emakumez hitz egiten dugunean horrela irakurtzen diren gorputzez hitz egiten dugu, noski, murrizketek beste modu batera eragiten baitiete transgenero eta transexualei, eta oro har, <<gizona, zuria, europarra eta heterosexuala>> patroiak irteten diren gorputz guztiei. Ezin ditugu ahaztu zapalkuntza horietan gurutzatzen direla, halaber,

---

(8) Abortuaren Eskubideari buruzko Dossier-zirriborroaren esteka:

<http://madrid.tomalaplaza.net/2012/09/10/encuentro-sobre-el-derecho-al-aborto/>

(9) El País, 2012/02/09, Sueldos de un euro a la hora en el “milagro” laboral alemán

[http://economia.elpais.com/economia/2012/02/09/actualidad/1328790777\\_303626.html](http://economia.elpais.com/economia/2012/02/09/actualidad/1328790777_303626.html)

(10) El Mundo, 2012/10/06, El ministro de Sanidad británico, a favor de rebajar el plazo legal para abortar

<http://www.elmundo.es/elmundo/2012/10/06/internacional/1349543499.html>

(11) Abortuaren Eskubideari buruzko Dossier-zirriborroaren esteka:

<http://madrid.tomalaplaza.net/2012/09/10/encuentro-sobre-el-derecho-al-aborto/>

---

jatorria, etnia, maila, sexu-joera, genero-nortasuna, adina... Horrenbestez, murrizketek ez digute denoi modu berean eragiten.

Dirudienez, ministroen kontseiluak –den kolorekoa dela– emakumeen eskubideak “aurrezteko” erabil daitezkeela erabaki du, ez baititu hartutako neurrien genero-ondorioak kontuan hartu, eta gainera, gure hizkuntza nahasten ari baitira gure eskubideak murrizteko helburuarekin. Gai horiek ezin dira bigarren mailan utzi horrenbesteko garrantzia ez dutela edo horren larriak ez direla esanez, horrek berriz ere logika patriarkalean mantentzea eta bertatik eraikitzea esan nahi baitu. Jendeak behar bezala ulertu behar du emakumeei bakarrik eragiten dieten murrizketek eta aldaketek nazioarteko eskubidearen “berdintasun eta diskriminaziorik ezaren eskubidea edo printzipioa” urratzen dutela<sup>12</sup>. Ezin dugu ahaztu “krisiaren esparruan, eta ekonomia eta erlijio arloko fundamentalismoarekin lotuta, emakume izatearen eredu berri/zahar bat irudikatzen ari zaizkigula, gure autonomiarekin eta askatasunarekin gatazkan dagoen emakumeentzako bizi-proiektu bat, alegia”<sup>13</sup>. Botere atzerakoiaren beste apustu bat “familiaren ohiko eredu iraunarazten saiatzea da”, horiek “krisiarekiko koltxoia” izan behar dutela argudiatuz. Egoera horren aurrean, horrez gain beste aukera batzuk egon beharko liratekeela nola ikusarazi planteatzen ari gara, bizirauteko beren familietara jotzen ari diren pertsonek eraso gisa hartu gabe. Nola kontzientziatu dezakegu gizartea familia, eta bereziki emakumeak, ugalketa-lanen eta bizitza sostengatzearen arduradun bakarrak izan behar ez dutela? Izan ere, gizarteak berak eta Estatuak parte hartu eta bermatu du herritar guztien oinarritzko premiak estaltzeaz. Bizitza kontrolatu, zapaldu eta ezegonkor bihurtzen duen beste mekanismo bat bezala agertuko duen jarrera kritikoa bat sortu nahi dugu, gure familien

---

(12) Human Rights Watch, 2005eko uztaila, Derechos humanos y el acceso al aborto <http://www.hrw.org/legacy/background/americas/argentina0605/qna0605sp.htm#d>

(13) Abortuaren Eskubideari buruzko Dossier-zirriborroaren esteka: <http://madrid.tomalaplaza.net/2012/09/10/encuentro-sobre-el-derecho-al-aborto/>

---

edo elkarbizitza-taldeen barneko dinamika jakin batzuk hausten saiatzeko: zaintzak, erantzukizunak...

Neurri horiek guztiak eta horiekin batera egiten diren diskurtsoak pertsonen eta bereziki emakumeen bizitza kontrolatzen saiatzen dira, gehiengoa modu ezegonkorrean eta ustiatuan bizi den desberdintasun-eredua iraunarazteko, gutxi batzuek beren pribilegioez gozaten jarraitu dezaten. Sistema patriarkalean oinarrituriko kapitalismoa zero kostuarekin iraunarazten da lanaren sexu bidezko bereizketa eginez<sup>14</sup>.

Guk "beste mundu bat sortu nahi dugu, mundu guztiaren ekarpenak kontuan hartuz. Baina bizitza ezegonkorrak bizitza publikoan aktiboki parte hartzea galarazten die onura gutxien dituzten sektoreei. Horrela, sistema hau eraldatu nahi badugu, modu integralean egin behar dugu, dominazio- eta zapalkuntza-modu bat bera ere ahaztu gabe"; izan ere, sistema patriarkala "horietako bat da, pertsona asko ustiatzen baititu beste batzuei onurak eskaintzeko, emakume jaiotze (*edo izate*) hutsagatik"<sup>15</sup>. Kapitalismoaren eta sistema patriarkalaren arteko ezkontza dela-eta, sistema patriarkalak emakumeak zapaltzen dituela aprobetxatzen du kapitalismoak –hura elikatzeko pertsonak behar ditu– horiek errazago ustiatzeko. Sistema patriarkalak zaintzen erantzule bakar egiten gaitu eta kapitalismoak ustiatu egiten gaitu.

Dena den, sistema orok, sortu ostean, iraunarazteko joera izaten du. Sistemaren zati bakoitzak haren oreka eta mantentze egokia lortzeko helburuarekin lan egiten du, eta beraz, ez da zati hori osatzen dutenen ongizaterako antolatzen, sistemaren beraren ongizatea lortzeko baizik. Horregatik, sistema bat hura osatzen duten kideez ahaztu eta gaizto bihurtzen denean, jendearen zerbitzura egoteari uzten dio, jendea bere zerbitzura jarritz. Hori dela-eta, gutako

---

(14) Zenbait autore. *Revolucionando. Feminismos en el 15M*. Icaria argitaletxea. Bartzelona, 2012.

(15) Zenbait autore. *Revolucionando. Feminismos en el 15M*. Icaria argitaletxea. Bartzelona, 2012.

---

bakoitzak sisteman dugun zereginari buruzko hausnarketa egin behar dugu, haren funtzionamenduak eta logikak berekin eraman ez gaitzan; horrez gain, benetan hasi behar dugu aldaketaren alde lan egiten, ahal den neurrian, hura mantentzeko lan egiteari utziz. Batzordekide batek dioen moduan, sistema kapitalista patriarkalak bahitu egin gaitu, eta guk Stockholm Sindromea dugu. Gure kontraesanen jakitun izan behar dugu eta sistema aldatzeko abian jarri behar dugu.

Abiapuntu horretatik, argi eta garbi utzi behar dugu murrizketen aurkako gure borrokaren helburua ez dela aurreko estatus quo-ra itzultzea, hau da, ez dela lehen genuenaren defentsa, ez dugula sistema patriarkaleko genero-polituketara edo kapitalismo ekoizlera itzuli nahi. Bizitza erdialdean jarriko duen goitik beherako aldaketa nahi dugu, behin eta berriz errepikatuko dugun moduan, ez delako krisi kontua, sistema bera baizik. Puntu honetan, oinarritik bertatik abiatutako aldaketa bat egitearen premia azpimarratzen dugu berriz ere, kapitalismoa desagiteak ez baitu ezertarako balio hurrengo sistema logika patriarkalean oinarrituta eraikitzen badugu. Logika berriak izango dituen agerleku berri bat behar dugu, "ekoizteko moduak bakarrik aldatzen baditugu, pertsonen arteko harremanak dominazioaren eta bazterkeriaren arau berekin jokatzen jarraituko baitira"<sup>16</sup>; horrela, desberdintasun berdinak ekoiztiko ditugu modu batera edo bestera, beste testuinguru batean izan arren eta horiek jasaten dituzten pertsonak aldatu arren.

Errealitate hori ulertzen zaila izan daiteke talde politiko eta sozial askorentzat; izan ere, zaila da gaur egungo egoera kritikatzeko eta jendeak aurreko egoerara bueltatu nahi ez duela ulertzea, beste zerbait nahi dugula ulertzea. Abortuaren legearekin, esaterako, ez dugu lege-proposamena etetea bakarrik nahi, abortua kode penaltik atera dadila baizik.

---

<sup>16</sup> Zenbait autore. R-evolucionando. Feminismos en el 15M. Icaria argitaletxea. Bartzelona, 2012.

---

Hori guztia lortzeko tresna berriak eraiki behar ditugu. Politika publikoak beste momentu historiko batean eskubide eta zerbitzu sozialak arautzen eta bermatzen saiatzeko erabili ziren tresnak dira, eta beharbada horregatik jarraitzen dugu feminista askok horien inguruan lan egiten, etorkizun ideal batean horiek gainditzea nahiko genukeela argi izan arren. Momentuz, hura da eskura dugun baliabideetako bat. Behin eta berriz galdetzen zaigu zer egingo dugun politika publikoekin bat etortzeko, edo hobe esanda, politikoekin eta erakundeekin bat etortzeko. Duela ia urtebete hori galdetu ziguten honen antzeko beste agerleku batean, eta beharbada planteamendu hori beraiek egin beharko zutela erantzun genuen. Dena den, gure batzarrean ez dugu honen inguruko adostasunik: batzuk dagoeneko zehaztuta dauden agintariekin eta erakundeekin hitz egitearen alde daude, gure helburuetara iristeko epe ertaineko/luzeko neurri gisa. Baina beste adiskide batzuek ez dute gaur egungo sistema legalean sinesten, eta horiek baliogabetzat jotzen dute horiekin hitz egitea, horrek eskatzen duen ahaleginagatik eta ematen dituzten emaitza urriengatik. Edonola ere, behar-beharrezkoa da fronte guztietan lan egiten duen jendea egotea, beharbada gutako inor ez bailitzake dagoen lekuan egongo, beste batzuk dauden lekuan egongo ez balira.

Zati honekin amaitzeko, abortuari buruzko txostenean egin dugun hausnarketa bat jaso nahiko nuke, ezinbestekotzat jotzen baitut gure egoera politiko eta sozialaren azterketa eta planteatzen ditugun proposamenak ulertzeko. Guk honako hau diogu: "Justizia soziala dagoen eta aberastasuna behar bezala banatzen den testuinguru sozial bat irudikatuko bagenu, eta bertan, planeta osatzen duten pertsona guztien bizitza duina bermatuko balitz, eta gizabanakoen interesek eta interes kolektiboek *denon ongizatea* edo bizitza eroso bermatzeko hitz egingo balute, betiere aniztasuna aukera gisa hartuz, emakumeek beren gorputzekiko duten erabakitze gaitasuna defendatzen jarraituko genuke"<sup>17</sup>. Eta ez gure gorputzen inguruan erabakitze gaitasuna

---

(17) Abortuaren Eskubideari buruzko Dossier-zirriborroaren esteka:

<http://madrid.tomalaplaza.net/2012/09/10/encuentro-sobre-el-derecho-al-aborto/>

---

bakarrik, emakume guztien, emakume gisa irakurtzen diren gorputz guztien eta pertsona guztien askatasuna eta autonomia baizik, esparru guztietan eta elkarbizitza-eredu guztietatik haratago.

## **Bizitzea merezi duen bizitza bat eraikitzen**

Horra hor krisiaren eta sistemaren gure analisiari buruzko zenbait erronka. Bigarren zati honetan, bilatzen eta aurkitzen ari garen irtenbideak azalduko ditut. Zenbait gauza abian dira eta aldatu egin dira dagoeneko, eta aurrera egiten eta garatzen jarraitzen dute. Beste batzuk proposamenak dira momentuz, edo ibiltzen hasi berri direnak. Guk "denontzat baliagarria izango den tresna-kutxa bat sortu nahi dugu, denok ekarpenak egin eta denok erabili ahal izateko"<sup>18</sup>.

15M mugimendua krisiari emandako erantzun bat izan da eta da. Hala dira, halaber, Sol Feminismoak eta 15M-ko feminismoak. 15M mugimenduak kontzientzia hartze globala eta politika egiteko modu berri bat eragin du, baita gure artean nahiz planetarekin harremanetan jartzeko modu berri bat ere, munduan egoteko modu berri bat. Hori ez da horrela izan denontzat, noski, eta ez da ohiz kanpoko zerbait, baina lehenaldiaren eta orainaldiaren arteko muga ezarri du pertsona askoren bizitzetan, eta jakina, gizarte eta politika arloan mobilizatzeko eta parte hartzeko moduetan.

Dagoeneko urte eta erdi igaro da, eta egoera lasaitu egin da. Halere, egin nahi duguna planteatzen jarraitzen dugu behin eta berriz, hura nola egin nahi dugun eta nora iritsi nahi dugun, alegia. Gogor lan egin dugu denbora-tarte

---

(18) Abortuaren Eskubideari buruzko Dosier-zirriborroaren esteka:

<http://madrid.tomalaplaza.net/2012/09/10/encuentro-sobre-el-derecho-al-aborto/>

---

horretan zehar eta oso kontentu eta harro gaude egin dugun lanagatik eta lortu ditugun emaitzengatik, ez baitira gutxi. Ziur gaude Batzordea bera erantzun bat dela, dagoeneko sistematizatuta zegoen errutina batekin hausten baitu; nolabait esatearren, sistemarekin hausten du eta alternatibak planteatzen ditu. Proposamen batzuek sistema aldatzea dute helburu, beste batzuek <<handik kanpo bizirautea>>, beste batzuek bitarteko gisa hartzen dute, eta beste batzuek, aldiz, helburu gisa. Horregatik, garbi dugu gu sistemaren aurkakoak garela.

Premia zehatzei erantzutea eta bizitza erdialdean jartzea da kontua, baina ez teoriarik bakarrik oinarrituta, praktikan baizik. Arrazoibide teorikoak lurrera jaitsi eta proposamen zehatz bihurtu behar dira, gure eguneroko bizitzetan abian jarri ahal izan ditzagun. Jendeari feminismoak hurbiltzea gustatuko litzaiguke, bakoitzak bere modura planteatu ditzakeen eta bere bizitza hobetzeko balio dezaketen proposamenen bitartez. Gainera, beldurraren aurrean kontzientzia hartzeko modu bat da, jarduten eta eraikitzen hasteko.

Ondorioak mikro mailan aztertzen hasten bagara, Batzordea parte-hartzaileen arteko babes-sare bihurtu da, gutako askoren bizitzak aldatuz eta elkarrekin eraikitzeko aukera eskainiz. Gai ugari lantzea ahalbidetu digu, normalean barrutik kanporako prozesu batean, eztabaidan eta edukiaren eraikuntzan abiarazten dena; gero, horiek ekintzetan islatu daitezten saiatzen gara, gure salaketak eta aldarrikapenak ikusarazi eta publiko egiteko, Indarkeriarik Gabeko Ekintza Zuzenaren, ekintzen, manifestazioen, jakinarazpenen eta abarren bitartez. Baita gutako bakoitzak egunerokotasunean praktikan jarri ditzakeen proposamen zehatzen bitartez ere.

Aldi beran, bizitzaren nahiz ekonomiaren auto-kudeaketarako zenbait talde autonomo sortu dira: kooperatibak, elikagaiak birziklatzeko taldeak, hausnarketak eta lan-taldeak...

---

Maila bat gorago, eta makro mailara igoz, eztabaida eta borroka feministak atera dira berriz ere kalera, plaza publikora, gure lana agerian jarritz, gure esparrua aldarrikatuz eta beste talde batzuekin aliantzak bilatuz. Eragin sozial eta inpaktu mediatiko handia duen mugimendu sozial batean parte hartuz.

2011ko maiatzaren 15etik asko dira landutako gaiak, batzuk beste batzuk baino sakonago, batzuk puntualak eta beste batzuk modu jarraituagoan. Lehen hilabetean batzarra bera izan zen gure lehentasuna, eta plaza hustu ostean, antolatzeko eta mugimenduari itxura emateko beharra ikusi genuen. Horrela, geure buruari buruzko hausnarketa egiteko zenbait topaketa sortu ziren, eta horien bitartez, gure agendak marrazten eta antolatzen saiatu ginen, eta ez batzar independente gisa bakarrik, 15M Madril Feminismo gisa baizik. Ordudanik, gai ugari azaldu ditugu jendaurrean, honako hauek, esate baterako: krisialdien eta murrizketen genero-eragina (“Euroa edo bizitza”); emakumearen arreta-zerbitzuen esparruan egindako murrizketen salaketa (Marea Bioleta); egunerokotasunean gertatzen diren egiturazko eta generoko indarkeriak (azaroaren 25eko adierazpena, “No sólo duelen los golpes” tailerra, 15M Feminismoen I. Topaketa); maitasun erromantikoaren mitoaren diktadura (Maitasuna-diskoak); familia nuklearraren birplanteamendua (#tomalafamilia); ezegonkortasuna eta bizitza ona; zaintzen krisia eta zaintzen grebari buruzko proposamena, “Zaintzen Komandoak”, abortuari buruzko lege-proposamenaren inguruko eztabaida eta lana, eta irailaren 28ko manifestazioa eragin dituen... Gaiak amaiezinak dira, baina horietako pare bat aukeratu nahiko nituzke, labur-labur, nola lan egiten dugun azaltzeko.

Lehenik eta behin, Ezegonkortasunari eta bizitza onari buruz hitz egin nahiko nuke, lehen ere azpimarratu baititut gure arrazoibide teorikoak lurrera jaitsi ahal izateko egindako ahaleginak. Prozesuan dago oraindik, eta beraz, ondorioak falta zaizkigu. Momentuz, lan-taldeak eguneroko batzuk eskuz egitea proposatu zuen, horietan, lehentasuna ematen diguten eta ongi bizi garela sentiarazten gaituzten gauzak idazteko; denbora-tarte bat igaro oste-

---

an, horiek elkarrekin partekatu eta nola bizitu nahi dugun argitzea zen gure helburua, elkarrekin partekatzen ditugun nodoak bilatuz, baina baita norberaren konbentzimendurako ere. Dena den, aurrerago lan hau guztia kanpora irtetea ahalbidetuko dizkiguten armak hartzea da helburu nagusia, gure proposamenak partekatuz eta gaiak eztabaidatuz, guztion artean gero eta handiagoak izango diren esparruetan eraikitzen jarraituz<sup>19</sup>.

Azpimarratu nahi dudan beste prozesua abortatzeko eskubideari dagokionez egindako lana da. Legea aldatzeko proposamena iragarri zutenean, erantzun sendo bat eman behar geniola erabaki genuen, eta lanari ekin genion. Modu askean abortatzeko eskubidearen gure defentsa osatzeko arrazoiak lantzea erabaki genuen, osasun-sistema publikoaren barnean eta kode penaletik kanpo. 15M Feminismoen esparruko dokumentua adostua izan zedila nahi genuen, eta xede horrekin, landutako gaiak eztabaidatzeko eta adosteko topaketa bat prestatu genuen, alderdi batzuk gehituz eta aldatuz. Era berean, epe motzerako, ertainerako eta luzerako zenbait ekintza diseinatu genituen. Edukiez gain, komunikazioaren esparruko itunak eta estrategiak landu genituen. Epe motzerako ekintzen azken ukitua irailaren 28ko manifestazioa izan zen, abortua despenalizatzeko nazioarteko eguna, gure adiskide latinoamerikarrendik jasotako herentzia. Deialdia berehala hedatu zen talde feministen, 15M mugimenduaren eta beste kolektibo eta mugimendu sozial batzuen artean, eta manifestazioak sekulako arrakasta izan zuen. Arratsalde osoan zehar izugarritzko euriteak izan arren, 1.000 pertsona inguru elkartu ginen. Lanak aurrera jarraitzen du orain, iraupen luzeko karrera bat izango baita, eta horiek ekintza bihurtzeko proposamen asko ditugu<sup>20</sup>.

---

(19) Amaierako bideoa: Recortando vidas

<http://vimeo.com/36557144>

(20) Abortuari buruzko bideoa: Yo decido

[http://vimeo.com/50497691?action=share&post\\_id=532479913\\_428699813854706#](http://vimeo.com/50497691?action=share&post_id=532479913_428699813854706#)

---

Guretzat, 15M mugimenduaren beste alderdi garrantzitsu bat egiteko, pentsatzeko eta bizitzeko modu berri horiek helburu bihurtzea da, ezaguerak sortzeaz eta hedatzeaz gain. Pertsona asko denona denaren defentsan, kontsumoaren murrizketan, okupazioan, auzo-batzarretan, kontsumo-taldeetan, hiri-baratzeetan, gurasoek kudeatutako haur-eskoletan, gizarte-zentroetan, egoera irregularrean dauden etorkinen babes-taldeetan eta abarretan lan egiten ari gara dagoeneko. Izan ere, eduki politikoa duten munduan egoteko modu horiek guztiak kargatzea oinarritzkoa dela uste dugu askok. Hau da, bizitzeko modu jasangarriagoak, bizigarriagoak eta egokiagoak direla ikustaraztea, eta ez krisialditik irten eta abiapuntura itzultzeko modu bat bakarrik, zerbait berria asmatzeko inflexio-puntu bat baizik.

Asmatzeko prozesu hori luzea izango da, eta gogor lan egin beharko dugu, guztion artean ulertzeko orduan batez ere. Izan ere, 15M mugimenduan eta 15M-ko feminismoetan ere mota eta baldintza askotako pertsonak bizi gara, bizitzari buruzko oso ikuspegi desberdinak ditugunak, eta askotan, bata bestearengandik oso urrun egoten diren proposamenak ditugunak, baina ez-tabaidatzeko eta adostasun batetara iristeko prest gaude. Eta batez ere, egituratzen gaituen helburu komun bat dugu: elkarrekin bizitzeko modu baketsu eta egoki bat sortzea.

15M ez da arazoaren irtenbidea, baina geure buruari galderak egin eta aurrera egiteko balio du, gure egunerokotasunean hobeto bizitzea ahalbidetuko diguten erantzun zehatzak bilatuz, hau da, sostengatuko gaituzten mikroegiturak sortuz. Hori bai, hura helburu gisa hartu behar dugu beti, baita makroegituran eragin eta elkarrekin sistemaren beste aukera batzuk eraikitzen jarraitzeko ere.

Prozesu horretan, ez da erraza zuen galderei erantzutea, oraindik gure galderei erantzuten ari baikara, eta erantzun horietako askok gure galderetara eramaten gaituzte. Dena den, plazak hartzera eta gurekin esertzera animatzen zaituztegu, gu guztiokin, hau da, feminismoak eraikitzen jarraitzera, bizi nahi

---

dugun bitza eraikiten jarraitza, bitza merezi duen bitza hori zein den elkarrekin argitza.

---

**TERESA MALDONADO  
BARAHONA**

**Filosofiako irakaslea  
bigarren hezkuntzan  
eta aktibista feminista  
feministAlde taldean**

*Mugimedu  
feminista eta  
emakumeen  
erakundeak  
krisiaren aurrean*



---

Antolatzaileei auditorio honen aurrean agertzeko eman didaten aukera eskertuz hasi nahiko nuke; era berean, erakundeen aldetik mota honetako kongresuetan Mugimendu Feministen ahotsak entzunarazi daitezela eskertu nahiko nuke. Baina demokraziaren krisiaz hitz egingo dugun neurrian, gaitzespen bat egin behar dut, nire ustez, erakunde publikoek herritarren partaidetza erraztu behar baitute eztabaida publikoetan. Partaidetza hori behar bezala ahalbidetuko litzateke saio batzuetarako beste ordutegi batzuk ezarriko balira; goizak, esaterako, gai teknikoak lantzeko erabil daitezke –horietan erakundeekin loturik lan egiten duten pertsonen parte hartuko lukete batik bat– eta arratsaldeetan, aldiz, berdintasun-politika publikoekin inolako lan-loturarik ez duten (ez dugun) beste pertsona batzuen presentzia ahalbidetu daiteke. Esker onak eta kexa txiki hori adierazi ostean, nire esku-hartzea garatzen hasiko naiz.

Jarraian planteatuko dudanak ahalegin- eta hurbilketa-izaera du, eztabaidari ekarpen eta hausnarketa bat egiteko; horiek kolektiboak izan behar dute nahitaez, eta momentuz, eraikitzen ari den orrialde bat besterik ez da. Nire esku-hartzea bost puntutan artikulatu nahi dut, eta horiek elkarrekin loturarik ez dutela badirudi ere, denon artean osatzen ari garen puzzle baten piezak dira (hori espero dut); haren amaierako zentzua pixkanaka hautematen joango gara, piezak jartzen joan ahala.

---

1. *Alderz aurretiko pieza batzuk: zertaz hitz egiten dugu (Mugimendu Feministak, emakumeen erakundeak, gizarte zibila).*

“Mugimendu Feminista” eta “Emakumeen erakunde” adierazpenek erreferente estralinguistiko bera ez dutela azpimarratuz hasi beharko nuke beharbada, ez baitute errealtate bera izendatzen. Egia esan, Mugimendu Feminista osatzen duten erakunde feministak emakumeen erakundeak dira (edo hala izan dira orain arte), baina emakumeen erakunde guztiek ez zuten beren burua edo ez dira erakunde feministatzat jotzen. Espazituki edo implizituki, feministen aurkako emakumeen erakundeak ere badirela pentsatu dezakegu. Gaur egun, emakumez bakarrik osatzen ez diren erakunde feministak egon daitezkeela hartu beharko genuke kontuan, baita gizon hutsez osaturiko erakunde feministak egon daitezkeela ere (ez dakit). Izan ditzagun gogoan bi gauza hauek:

1. Teoria feministaren garapenek ‘emakumea’ kategoriarri buruzko zenbait galdera egitera eramán gaituzte, eta beraz, gaur egun oso konplexua da emakumea zer den (eta hurrenez hurren, baita gizona zer den ere) galderari erantzutea. Kontu horiek apaingarriak iruditu dakizkioke norbaiti, baina ‘emakumeen’ edo ‘gizonen’ erakunde bat zer den edo ‘gizon eta emakumez osaturiko erakunde misto’ bat zer den eztabaidatzen duten feministak egon daitezke (eta daude) (kategoria horiek guztiak definitzea zailagoa da ‘feminista’ bera definitzea baino, azken horrek ere bere zailtasunak izan arren).

---

2. Bizitzea egokitu zaigun mundu postmoderno honetan (edo 'likidoa', Bauman-ek dioen moduan) paradoxa behin eta berriz errepikatzen den kategoria bihurtu da, askotan bere izaera paradoxikoa galduz: *dena* da posible, den-dena, baita haren aurkakoa ere. Ea hemen lehen paradoxa ziren horietako batzuk: gaur egun ateoentzako erlijioa dago, Alain de Botton-en liburu baten tituluak dioen moduan; Teresa Forcades-en gisako mojak ditugu (benediktua, medikuntzan eta teologian doktorea, eta abortatzeko eta ezkontza homosexualaren eskubideen defendatzailea, besteak beste); armadan dituen eskubideen aldarrikapena (emakume gisa) egiteko bere titiak Interviú aldizkariaren azalean erakusten dituen militar bat; Queer Teologiaren sinposio bat, urte honetako abuztuan Costa Ricako San José hirian ospatu dena, esaterako; 'bizitzaren aldeko' talde feministak (hautaketaren aurkakoak)... Zer gehiago? Zer esango genukeen duela 20 urte konbinazio horietakoren batez hitz egin baligute? Ez al genituzkeen kontraesankor eta ezinezko gisa hartuko?

Amaitu da mundu hura, noizbait egon bada; amaitu da arrasto batek non geunden eta zein lekutatik matxinatzen ginen argi eta garbi mugatzen zuen mundu hura. Inguruak itxuragabetu egiten dira, eta modernotasun berantiarraren esperientziak "solidoa den guztia deseginarazten du airean". Banatu, zatitu eta aurrez aurre jartzen gaituzten milaka lerro daude, ezin susmatuzko itun aldakorretan elkartzen gaituzten bitartean, betiere kasuan kasuko borrokaren, eztabaidatutako gaiaren, momentuaren edo egoeraren arabera. Gaur egun, feminismoa eta emakumeen erakundeak ezaugarri aldakor, ezegonkor eta eutsi ezin horiek nagusitzen diren agerleku batean elkartzen eta jartzen dira aurrez aurre. Bizi dugun krisiak panorama argitzen lagunduko digu beharbada.

'Sozietate zibila' ere teoria politikoaren esparruetan onarpen desberdinak izan dituen adierazpen nahasgarri bat da. Esate baterako, oraindik ez gara

ados jarri jarduera ekonomikoa 'sozietate zibilaren' barnean sartu behar den edo ez erabakitzeke orduan<sup>1</sup>. Batzuen ustez, sozietate zibila "gizabanako autonomoek beren helburu partikularrak lortzeko erabiltzen duten kontratuak egiteko lekua da. Ekintza sozialak interes horien arteko oreka bilatzen du, eta horregatik, merkatua gizartea gobernatzeko duen norabide-matrizea da"<sup>2</sup>. Beste batzuek, aldiz, bereizi egiten dituzte sozietate zibila eta merkatua, eta sozietate zibila komunitatearekin lotzen dute, hura "interes komunerako eta hiritarren bertuterako lekua dela" esanez. Planteamendu horien ustez, "kontratuetan baino gehiago, ordena soziala kontsentsu eta balore partekatuetan oinarritzen da, eta interes partikularrak eraikitzeke oinarria da. Elkartasuna da ekintza koordinatzen duen oinarritzeko mekanismoa, gizarteratzearen iturria"<sup>3</sup>.

Baina orain ez genuke adituen eztabaida-arazoetan sartu beharko. Dirudenez, 'sozietate zibila' adierazpenak ekintza kolektiboko ingurune bat izendatzen duela adostu da, Estatua ez den beste bat; geratu gaitezen horrekin. Mugimendu sozial, asoziazio-ehun, kultura eta erlijio arloko erakunde eta adierazpen, borondatezko espazio, ONG... gisa ulertzen ditugun horiek osatuko lukete Estatua ez den eta alderdi politikoek baldintzatzen ez duten ekintza kolektiboko ingurune hori, sozietate zibila. Mugimendu sozialen

---

(1) Javier Peña, "La sociedad civil". Hemen: A. Arteta, E. García Gutiérrez eta R. Máziz (arg.), Teoría política: poder, moral, democracia, Alianza, Madril, 2003, 203. orrialdea eta hurrengoak.

(2) Ana Fascioli, "El concepto de sociedad civil en J. Habermas", ACTIO/11 Aldizkaria (2009). Eskuragarri on line: <http://www.fhuce.edu.uy/actio/Textos/11/Fascioli11.pdf> [sarbidea: 2012/09/18].

(3) Ibidem. Adela Cortinaren arabera, "sozietate zibilaren edukia mundu ekonomikoko erakundeek, borondatezko erakundeek –borondatezko komunitate adskriptiboak, gizalegezko erakundeak– eta iritzi publikoaren eremuak osatuko lukete. Haren barnean, eskutik eutsita doaz estrategian eta komunikazioan oinarritutako arrazionaltasuna, interesen lehia eta lankidetzeta, indibidualismo berekoa eta elkartasuna. Baina hori guztia borondatean eta aniztasunean oinarritutako testuinguru batean gertatzen da, eta hura da, hain zuzen, haren aukera nagusia" (Adela Cortina, "Sociedad civil", Diez palabras clave en Filosofía Política, EVD, 379. or.).

---

jarduera, eta beraz, baita Mugimendu Feministarena eta, oro har, emakume-erakundeena, eremu horretan txertatuko litzateke.

Gero eta bistakoagoa dirudi demokrazia ez dela herritarrek hautetsontzietan bozkatzeko eta hurrengo lau urteetan nahi dutena egingo duten ordezkari horiek aukeratzeko duten eskubidea bakarrik, bozkatu dituzten pertsoneri erantzun beharrik izan gabe (horiei hurrengoan berriz ez bozkatzeko kontsolamendua geratzen zaie gehienez ere). Demokrazia sozietate zibil dinamiko, aktibo, proposamen-egile eta kritiko baten bitartez nabarmentzen eta bermatzen da.

Asko dira gaur egungo sistema politikoetatik demokratikoa dena zalantzan jartzen edo murrizten duten alderdiak: zerrenda itxiak; korporazio handiak diren gero eta alderdi gehiagoz osaturiko sistema; pertsona bat-boto bat printzipioa puskatzen edo mugatzen duten ordezkari-tza-proporzionaltasunak; interes orokorreko gaiei buruzko deliberamendu publikorik eza; eta abar. Modernotasun berantiarreko erakundeek zilegitasun eta eraginkortasun demokratikoaren galerari dagokionez aurre egin behar dieten arazo guztien artean, orain bat gailendu nahiko nuke: herritar askoren gaitzuste politikoa eta indibidualismo konpulsiboa, publikoa denari eta interes orokorreko gaiei jaramonik egin gabe. Izan ere, behar bezala artikulatutako sozietate zibil indartsu batek bakarrik bermatu dezake Estatuak guztion eskubideak defendatu ditzala, eta ez gutxi batzuen pribilegioak bakarrik. Gizarte-mugimenduek, eta bereziki, Mugimendu Feministak zaharrek *bertute zibiko* izendatzen zutena sostengatzen eta ereiten laguntzen dute: dagokien komunitatearekiko konpromisoa, partaidetzaren bitartez, eta hari dagokion denbora eta energia xedatuz. Horregatik, 15M mugimenduaren inbasioa albiste on gisa hartu genuen gutako askok. Jendea bere lozorrotik atera eta modu kolektiboan parte hartzen hasi zen, pentsatzen zuena aditzera emanez, kritikatu, proposamenak eginez. Egia da gizarte-mugimendu inkonformistek (eta mugimendu feministak bereziki) nahiko modu berezian xedatzen dizkiotela beren energia eta denbora komunitateari, hau da, komunitate horretan oro har onartzen dena goitik behera jarritz: hori da,

---

hain zuzen, Seyla Benhabib filosofo feministak zioen “hiri-harresitik kanpoko ikuspegia”; haren arabera, “beharbada ez da kointzidentzia hutsa izango Hypatía, Diotima, Olympe de Gouges, Rosa Luxemburgo eta beste emakume askori gertatu zaien moduan, pentsamendu feminista eta kritikoaren bokazioak eraginda askok etxeak eta hiriko harresiak utzi behar izatea”<sup>4</sup>.

Sozietate zibilaren esparruan jarduten duten gizarte-mugimenduek mahai gainean jartzen dituzte birplanteatu beharreko zenbait gai, bestela ebatzita zezudela ulertuko zirenak (beharbada ez lirateke erabaki beharreko gai gisa ere hautemango). Hortik dator, hein handi batean, aurrerapen soziala. Gaur egun indarrean diren ikusmolde politikoak (eta moralak) aldatzen doaz gutxiengo aldarrikatzaile batzuek planteatutako akordiorik eza dela eta; izan ere, gizarte-mugimenduek aurretiaz ezarritako adostasunak zalantzan jarri eta horiek berriz definitzen joan daitezela eragiten dute. Urte askotan, emakumeen eskubideak ez ziren adostasun sozialaren barne hartzen, ez baitziren halakotzat jotzen. Baina momentu jakin batean, Mugimendu Feminista deitzen diogun abangoardia txiki horrek (askotan, modu probokatzaillean) onartutako sinesmenak eztabaidatu, fokua horien gainean jarri eta eztabaidatutako eta eztabaidatu beharreko ideia bihurtu zituen. Hasieran, eztabaida garrantza izaten da, eta herritar gehienek ez dute agintariak etengabe eragozten duten gutxiengo horren borroka ulertzen... baina gero, abangoardia horren helburuen programa (sistematikoki deskalifikatu eta barregarritzat hartzen dena, edo bestela, gogoratu ditzagun emakume sufragistak) kontsentsu sozial berria bihurtzen da.

Dirudienez, 15-M mugimenduak sistema orokor horren zenbait ezaugarri ditu. Aurretiaz adostutako gaiak zalantzan jarri baino gehiago (hori ere egiten du, zentzu batean), 15-M mugimenduak herritar askoren sentitzeko moduarekin

---

(4) Seyla Benhabib, “Feminismo y posmodernidad: una difícil alianza”. Hemen: C. Amorós (koord.), *Historia de la Teoría Feminista*, Ikerketa Feministen Institutua-UCM, Madril, 1994, 254. orria. (Itzul-tzailea: Pedro Francés Gómez).

konektatu du, eta gainera, Santiago Alba Ricok adierazi duen moduan, zuzentasun politikoaren topiko eta klixek guztiak mobilizatuz lortu du hori<sup>5</sup>. Bere aldarrikapenekin eta jardunarekin (demokrazian, indarkeriarik ezan, errespetuan, hizkuntza inklusiboan eta abarretan oinarriturik), politikariek beren hitzaldietan behin eta berriz errepikatu dituzten eta adierazpen hantusteetan islatu dituzten ideia eta balore horiek errealitatean edukirik ez zutela jarri du agerian, horiek askotan errepikatzen diren lelo bihurtu badira ere; izan ere, politikako adituen hitzek ukitzen duten guztia usteltzen dute. Baina hori aurkatu beharrean, eduki hori da, hain zuzen, apelatzen dena: politikarien ahoetan demokraziak esanahirik ez izan arren, hari uko egin beharrean, 'hura gure egin dezagula eta hari esanahia eman diezaiogula, edukia eman diezaiogula' eskatzen digu 15-M mugimenduak<sup>6</sup>.

## 2. *Nondik hitz egiten dugu: aniztasun feminista*

Gaur egun, feminismoaren oinarritzko ezaugarrietako bat haren izugarritzko aniztasuna da, eta dagoeneko feminismoez pluralean hitz egiten da ia sistematikoki. Batzuetan ia gehiegizkoa iruditzen zait feminismoaren barneko planteamendu-

---

(5) Santiago Alba Rico, "La crisis capitalista y el deseo de democracia", *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*/116 (2012), 102. orria eta hurrengoak.

(6) Etsipen-eragiketa horrek feminismoak askotan burutu izan duena gogorarazten digu, berdintasuna eta unibertsaltasuna aldarrikatzen duten, baina gero horiek inon aplikatzen ez dituztenen koherentziarik eza gaitzestean, adibidez (kasu honetan, ez indarrean den sistema politikoaren kasuan, abangoardia iraultzaileen kasuan baizik, Frantziako Iraultzaren edo hirurogeiko hamarkadako mugimendu inkonformisten kasuan, esaterako). Cfr. Teresa Maldonado, "Apuntes para una introducción a la teoría feminista". Hemen: C. Díaz eta S. Dema (argitaletxeak.), *Género y sociología*, Tecnos (prentsan).

---

aniztasunaren ospakizun hori, baina ezin nahiz horretan gehiegi luzatu -arestian adierazi den eta "pro-life feminism" izendatzen den joeraren existentziak ondo agertu dezake auditorio honetan alderdi horrekiko dudan mesfidantza.

Aniztasun hori dela-eta, ezin dut adierazi planteamendu feminista desberdinak krisialdiari dagokionez proposa dezaketena. Dena den, bakoitzak feminismoaren zein eremutik hitz egiten dugun zehaztu behar da (seguru asko zaila izango da hura zehaztasunez mugatzea).

Ez dut inoren izenean hitz egin nahi, baina bai feminista eta antikapitalista naizen neurrian. Ekologismo sozialarekin lotura gehien duen ekonomia feministaren alde tik egiten ari diren azterketa eta proposamen multzoarekin bat datorren feminista naizen neurrian, hain zuzen; izan ere, proposamen horiek bizitzea merezi duen bizitzaren jasangarritasuna ekonomiaren erdian jartzea dute helburu, eta ez mugarik gabeko pilaketa edo ahalik eta onurarik handienaren lorpena, edozeren truke (gure planetako ura, airea, lurra, bizitza eta poztasuna agortzen ari den desio konpulsiboa). Sostengatzen dudan kontzeptu horrek publikoa babestu beharra, eta hala badagokio, berreskuratu beharra azpimarratzen du: espazio publikoa, eztabaida publikoa, jabetza publikoa, zerbitzu publikoak. Denbora luzez, 'jabetza' eta 'pribatua' hitzak eskutik doazela pentsarazi diguten mezu subliminalak jaso ditugu. Zorigaiztoko indibidualismo konpulsibo eta posesibo horren aurka, modu maltzur-rean eta behin eta berriz sustatua, publikoa denona dela gogorarazi behar dugu, baita 'ezin dugu doako zerbitzurik izan' edo zerbitzu batzuen 'ordainketa partekatua beharrezkoa dela' baieztatzen dutenean tranpa egiten ari direla ere; ezer ez da doakoa, ezer ez da ezerezetik etortzen, ez digu inork ezer oparitzen, hori guztia zergen eta kotizazioen bitartez ordaintzen dugu, eta horrexegatik, nolabaiteko berrordainketa ezartzen ari zaizkigu, eta murrizten ari direla esaten dutenean, errealitatean lapurtzen ari zaizkigu.

Niri dagokidan feminismoa orrazteko beste zenbait ezaugarri gehitu beharko nituzke (esate baterako, feminismo moderno bat dela, eta ez postmodernoa; errepu-

blikanoa, hau da, komunitarismoarekin eta liberalismoarekin kritikoa dena, korrante horietatik hainbat ekarpen izan arren; etnozentrismoarekin kritikoa, baina baita erlatibismo kulturalarekin ere; laizista; eta abar). Baina horiek guztiak bigarren planoan geratzen dira momentu honetan azpimarratu nahiko nukeen lehentasunezko baldintza guztiz anti-kapitalistarekin alderatuta.

3.

## *Politikoa denaren birdefinizioa*

Feminismoa politikoa denaren birdefinizio bat da, besteak beste. Kritika feministak adierazi duen moduan<sup>7</sup>, politikoak ez dio polis delakoaren antolakuntzarekin eta kudeaketarekin zerikusia duenari bakarrik erreferentzia egiten (baita ere), aginte dagoen leku guztietan baitago presente. Eta aginte-harremanak ez dira esparru publikoan bakarrik gauzatzen, baita pribatuan eta pertsonalean ere. Horregatik, “Politika” eta “sexuala” terminoak titulu bakar batean batzea oso berritzailea eta iraultzailea izan zen, Kate Millet-en 70eko hamarkadako feminismo erradikalari buruzko lan klasikoaren tituluari egin zen bezala. Baita politika feministari buruzko liburu baten kapitulu bat maitasunari xedatzea ere, Sulamith Firestone feminista erradikal militanteak bere *Dialéctica sexual* liburuan egiten zuena. “Pertsonala politikoa da” esloganean behar bezala laburbildu zuen hirugarren bolada feministako lehen belaunaldiak garatu zuen analisi politikoak eragindako esparruaren hedapen hori. Celia Amorós andreak azaltzen duen moduan,

“Horrekin, feministek ez zuten esan nahi pribatua den guztiak publikoa izan beharko lukeenik edo bi eremu horien arteko bereizketa guztiak baliogabetu beharko liratekeenik: lehenik eta behin, eremu “pribatuari” eta eremu “publikoari” dagokion guztiak

---

(7) Baita Frankfurtoko Eskolak ere, baina hari Mugimendu Feministari baino neurri handiagoan aitortu zaio egindako ekarpena.

aldaketa eta itxuraldatze historikoak jasan dituela azpimarratzen zuten; bigarrenik, "pribatua" deituriko esparruan jarduten duten botere-harremanak ikusarazi, eztabaidatu, araudian jaso eta adostu daitezela aldarrikatzen zuten, hau da, politizatuak izan zitezela; hirugarrenik, esparru pribatuaren eta publikoaren arteko mugen etengabeko negoziazioa eskatzen zuten eta eskatzen jarraitzen dugu, hau da, bizitza sozialari dagozkion alderdiak (...) eztabaidatu daitezela, horiek, "pribatuaren" etiketa ukiezinarean pean, itsu bihurtu baitziren ikusgarritasuna eta kontzeptualizazioa kenduz, etiko eta politikoki guztiz babestuta geratuz. (...) Botere-harremanen ustezko existentziarik ezak horiek kontrastazio argumentatzailerara ateratzeko balio zuen, horiek arauen pean egon behar dutela iradokitzen duen edozein arazoren kasuan. Horrela, harreman "pertsoneko" deituriko harremanak politikoak direla zioen feminismoak, ez boterea gauzatzen den harremanak direlako bakarrik, baita horiek politizatu egin behar direlako ere (...)"<sup>8</sup>

Botere-harremanek ez diete makro-eremuei, publikoari eta ekonomikoari bakarrik eragiten. Izan ere, botere-jolasak ditugu eguneroko bizitzan, harreman pertsonaletan eta esparru pribatuan ere, baita gizartekoitasuna lantzen den esparru pribatuaren eta publikoaren arteko gune misto horietan ere. Esparru horietan guztietan boterea gauzatzen edo jasaten da, dagokigun talde sozialen arabera (hau da, gizonak edo emakumeak garen, etorkinak edo autoktonoak garen, langileak edo enplegatzaileak garen, eta beste zenbait alderdi kontuan hartuta). 'Eremu pertsonala politikoa da' adierazpenak modu probokatzaillean, erradikalean eta hauslean jarri zuen hori guztia agerian, alderdi pertsonalak esparru politikoari aurre egiten ziola uste baitzen... (egia da esloganak nolabaiteko boutade paradoxikoa zuela, 68ko maiatzeko beste eslogan batzuek bezala, "izan gaitezen errealistak, eskatu dezagun ezinezkoa dena"). Esparru horietako defizit eta gehiegikeriei irtenbide bat emateko ez da planteamendu psikologizatzailleetara bakarrik jo behar; izan ere, horiek gako politikoan landu, eztabaidatu eta azterketa publikoaren pean jarri behar dira, ez baitira arazo

---

(8) Celia Amorós, "Presentación (que intenta ser un esbozo del *status questionis*)". Hemen: C. Amorós (arg.), *Feminismo y Filosofía*, Síntesis, Madril, 2000, 12-13. orriak.

personalak bakarrik, boterea banatzeko gizarte-eredu jakin bati erantzuten baitiote... behar bezala aldatu behar dena.

Azken finean, feminismoak berriz definitzen du eremua, politikotzat jotzen denaren esparrua zabaltzen duelako, hain zuzen. Politika ez da politikari profesionalek egiten dutena (bakarrik), guztiz degradatzea eta prestigio guztia kentzea lortu duten jarduera, inoiz pentsatuko ez genuen mailetaraino. Horixe da, politika profesionalizatu, pertsona askok politika interesatzen ez zaiela diotenean buruan dutena, baita plazetan politikariak gustukoak ez ditugula edo apolitikoak garela baieztatzen dugunean ere. Argi dirudi, baieztapen horiekin jarduera profesionalizatu horretara murrizten ari da politikoa dena. Oso komenigarria litzateke fenomeno horri buruz eztabaidatzea. Politika modu profesionalean inork gauzatu beharko ez lukeela sostengatzen dut. Hori egiteak, modu korporatiboan defendatzen dituzten interes propioak dituzten talde bihurtzen dira politikariak, interes orokorretik urrunduz<sup>9</sup>.

---

(9) Profesionaltasunaren fenomeno osagarria da 'ate birakarien efektu' gisa ezagutzen dena; hark agerian uzten du botere politikoaren eta botere ekonomikoaren arteko lotura lotsagarria, bi norabideetako zabua ez sinestea baita: (joan) Felipe González presidente ohia Gas Natural enpresak fitxatu zuen. José María Azar ENDESAk, Elena Salgado ministro ohia ere txertatu den enpresa. Italiako Enel enpresa elektrikoko kontseilari bihurtu ostean, Pedro Solbes Barclays banku britainiarraren kontseiluan hasi zen lanean. Alderdi Popularrarekin ekonomia-ministro gisa aritu zen Rodrigo Rato Bankiako presidente bihurtu zen (Nazioarteko Diru Funtsetik igaro ostean). Manuel Marín diputatuaren kongresuko presidente ohia Iberdrolaren fundazio bateko presidente bihurtu zen. Serra defentsa-ministro ohia armen fabrikaziora eta merkataritzara xedaturiko industrian hasi zen lanean. Zaplana, Valenziako Generalitateko presidente ohia eta ministro ohia, Telefonikak kontratatu zuen. Industria-ministerioko bigarren buruzagi izandako Fabricio Hernández jaunak kontseilari gisa lan egiten zuen Garoñako zentral nuklearraren aldeko txostena egin zuenean... (Etorria): Pedro Morenés Defentsa-ministroa misilen MBDA enpresa paneuropearraren Espainiako zuzendari nagusia eta Instalazaren kontseilaria izan da, barrietze bonben Espainiako fabrikatzaile nagusia. Miguel Arias Cañete Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen ministroa Petrolífera Ducar SL sozietatearen presidentea izan zen, lanpostua bere koinatua den Miguel Domecq Solís jaunari utzi zion arte. Luis de Gindos jaunak Lehman Brothers-en lan egin zuen, Mario Dragik Goldman Sachs-en... Zerrenda ez da sakona.

Zentzu zabalagoan eta egiatian, plaza batean protesta egiteko helburuarekin elkartzeko ekintza bera politikoa da, a-partidista izan arren. Politika egiten dugu gizarte-mugimendu batean parte hartzen dugunean, sozietate zibileko erakundeetatik zehaztutako itun sozialak zalantzan jartzen dituzten eztabaidak planteatzen ditugunean (drogen legalizazioari, LGBT kolektiboaren eskubideei, beherapenaren proposamenei eta abarrei dagokienez, esaterako), ikastetxe publikoetan erlijioa gehiago ez irakasteko sinadurak biltzen ditugunean. Halaber, politika egiten dute Apezpiku Konferentziaren deialdi bat bultzatzen dutenek, pertsona homosexualen eskubideen aurkako adierazpenak egiteko. Horrek argi eta garbi islatzen du sozietate zibila ez dela herritarren planteamenduek bat egiten duten gune bat bakarrik, baita errealitatearen kontzepzio desberdinen arteko gatazka ere.

#### 4. *Sistema patriarkala, kapitalismoa eta demokrazia*

Amaia Pérez Orozcok adierazi duen moduan, krisia ekonomikoa eta batez ere finantzarioa izan denean bakarrik hasi gara krisiaz hitz egiten, hau da, bankuei eta kapital handiari beren kontrolik gabeko lapurreta konpulsiboa eta diruzaleak esku artetik ihes egin dionean. Baina lehen beste krisi bat zegoen. Esate baterako, 'zaintzen krisia' zegoen, emakume askorentzat 'bizi-krisialdi' bihurtu zena<sup>10</sup>.

---

(10) Cristina Carrasco, "La paradoja del cuidado: necesario pero invisible", Revista de Economía Crítica/5 (2006), 39-64. orriak. Amaia Pérez Orozco eta Silvia López Gil, *Desigualdades a flor de piel: cadenas globales de cuidados*, NBE-AECID, Madril, 2011, 24. orria eta hurrengoak.

---

Gaur krisi sistematikoaz hitz egiten dugu, bizitzako esparru guztiei eragiten diena: erakundeei, baloreei, hezkuntzari eta sistemaren beraren sinesgarritasunari<sup>11</sup>. Partitokrazia bihurtu den demokraziaren zilegitasun-krisialdi bat dugu aurrean, inolako zalantzarik gabe. Gelan horrenbestetan egin behar izaten dudan moduan, demokraziak jatorriz “herriaren gobernua” esan nahi duela gogoratu nahiko nizueke; horrek txiste bat dirudi (horrela hartzen dute ikasleek), gaur egungo gure sistema politikoak jatorrizko esanahi horretatik oso urrun baitaude.

Gaur egun, erakundeek ez dute zilegitasun demokratikorik (“demokrazia deitzen diote, baina ez da horrela”), eta horrek ekonomiak politikoaren gainean duen ikaragarritzko nagusitasunarekin du zerikusia nire ustez (ekonomikoa denaren kontzepzio *politikoa*), hau da, gauzei beren izenez deituz, kapitalismoak demokraziaren gainean duen nagusitasunarekin. K. Polanyi-k joan den mendearen erdialdera aldera ohartarazi zuen moduan, ekonomiak politika bahitu du<sup>12</sup>. Santiago Alba Ricoren hitzetan, demokrazia, zuzenbidezko Estatu eta merkatua era berean eta molde berean sortu zirela dirudi, baina muturrean, horiek bateraezinak direla ikusten ari gara<sup>13</sup>. Gogoratu dezagun hedabideek eta klase politikoak nola jorratu zuten Greziaren erreferendum-proposamena edo Italiaren kasua –inork bozkatu ez duen ustezko kudeatzaile tekniko batek hartu du gobernuaren ardura–, lobby-ek eta merkatuek gobernuengan duten presioa, Nazioarteko Diru Funtsaren edo Munduko Bankuaren gisako erakunde ez-demokratikoek duten boterea ez aipatzearren –gaitasunaren zentzu literalean;

---

(11) Cfr. Teresa Maldonado, “Sobre el (sin)sentido de educar en valores”, *Boletín Ecos-FUHEM ecosocial/20*, (2012). Eskuragarri hemen:

[http://www.fuhem.es//media/ecosocial/file/Boletin\\_ECOS/20/Sobre\\_el\\_sentido\\_de\\_educar\\_en\\_valores\\_T.Maldonado.pdf](http://www.fuhem.es//media/ecosocial/file/Boletin_ECOS/20/Sobre_el_sentido_de_educar_en_valores_T.Maldonado.pdf) [Sarrera: 2012/10/03]

(12) Karl Polanyi, *La gran transformación. Crítica del liberalismo económico*, La Piqueta, Madril, 1989.

(13) Santiago Alba Rico, “La crisis capitalista y el deseo de democracia”. Eskuragarri hemen: <http://www.rebellion.org/docs/143917.pdf> [sarrera: 2012/09/29].

---

ez horiek duten eraginari dagokionez, politika publikoak aldatzeari dagokionez baizik-. Eta abar.

Demokraziak eta kapitalismoak funtzionamendu-logika desberdinak baina bateragarriak zituztela uste genuen: merkatuan, gizabanako berekoiek ahalik eta onurarik handiena lortu nahi dute beste batzuekin lehia, eta horrela, merkatuen interesa pertsonen premiak zaintzea ez izan arren, hori egiten amaitzen dute, ustez, prozesu ekonomiak jendeak eskatzen duena eskainiz autoerregulatu baitira<sup>14</sup>. Demokraziak, aldiz, hura posible egiteko gizalegezko baldintza batzuk behar ditu, herritarrak lotzeko begizta batzuk, kostu eta onura ekonomikoen kalkulua aintzat hartu gabe. Bizitzea merezi duen bizitza batek zerbitzuez gozatu ahal izatea esan nahi du, horiek beti moneta arloko onurak eragin ez arren. Are gehiago, eta Ovejero argi eta garbi azaltzen duen moduan: merkatuak etekinak ateratzen ditu demokratizatik, baina haren printzipioak eta funtzionamendua ahultzen ditu, iragazki ekonomikoak ezartzen dizkie premia gehien duten pertsonen proposamenei, eta leialtasunean eta konpromisoan oinarritutako harremanak hondatzen dituzten portaerak eta jarrerak sustatzen ditu<sup>15</sup>.

Are gehiago: demokrazia parlamentarioak aukera eta ikusmolde politiko desberdinak edo herritarren interesak ordezkatzeari utzi dieten alderdi politikoen inguruan artikulatzen dira. Horien ordezkariari entzun besterik ez da egin behar horiek egiten dituzten proposamenei munduak hobera egiteko helbururik ez dutela hautemateko, mundura egokitu besterik ez baitira egiten. Merkatuaren logika bereganatu dute, hauteskondeak irabazteko makineria huts bihurtuz: mundu guztiak daki hauteskondeen emaitzak gero eta gehiago oinarritzen direla

---

(14) Félix Ovejero, "Democracia y mercado". Hemen: A. Arteta, E. García Gutiérrez eta R. Máiz (eds.), op. cit., 316. orria eta hurrengoak.

(15) *Ibidem*, 326-327. orriak.

publizitatean, irudian eta marketinean inbertitzen den kopuruetan<sup>16</sup>. Eztabaidak eta ideiak? Ezta arrastorik ere. Ikerketa Soziologikoen Zentroaren iraileko barometroak adierazten duen moduan, politikariekiko mesfidantza inoiz izan duen kotarik altuenera iritsi da, eta kota hori % 26,9koa da dagoeneko... Datu horrek sekulako alarma piztu du *establishment* delakoan eta mota guztietako adierazpenak hedabideetan. Oraindik ere % 73k klase politikoarekiko konfiantzarik galdu ez dutela harritzen nau.

Celia Amorós andreak duela ia hiru hamarkada adierazi zuen moduan, merkatu kapitalista ustiaketan diskriminazioak ezartzen dituen sistema bat da, baita diskriminazio-mota guztien ustiaketa sistematikoa ere<sup>17</sup>. Zer esanik ez merkatuen nagusitasun horrek emakumeak kaltetzen dituela (gaituela); gainera, hark genero-desberdintasunak mantentzen diren lurraldean jarduten du, lekuaren arabera intentsitatea desberdina izan arren. Egiturak Egokitzeko Programak aplikatzean egiaztatu ahal izan genuen moduan –programa horiek Latinoamerikan landu ziren 80ko eta 90eko hamarkadetan, baina Nazioarteko Moneta Funtsak eta Munduko Bankuak ezarri zituzten materialki–, gastu sozialen murrizketak, zerbitzu publikoen pribatizazioak eta merkatuen arauketarik ezak (“malgutasuna” deitzen diote) bereziki eragiten diete emakumeei, pobreziaren

---

(16) “Ordezkarien hautespena gobernatuko duten hautagaien lehiakortasun-sistema baten bidez gauzatzen da: alderdi politikoek, enpresari gisa, beren eskaintzak egiten dituzte eta herritarren botoak lortzeko helburuarekin lehiatzen dira; herritar horiek, kontsumitzaile pasiboak diren neurrian, beren eskaeretara egokitzen diren proposamenak hautatzen dituzte. Politikariak (...) ‘boto-merkatuak’ lortzearen lehiatzen dira eta ahalik eta bezero gehien lortzen saiatzen dira”, Félix Ovejero, arestian aipatutako artikulua, 317. orria. Duela egun batzuk, telebistaz emandako elkarrizketa batean honako hau baieztatu zuen UPyD alderdiko buru den Rosa Díez andreak: “norbait konturatu ez bada ere, bai, alderdi politikoek hauteskundeak irabazi nahi ditugu”. Egia da, baina galdera honako hau da: hori al da nahi duten guztia? Baina hauteskundeak irabaztea dagoeneko ez da programa bat gauzatu ahal izateko bitarteko bat: guztia menperatzen duen helburu bat bihurtu da.

(17) Celia Amorós, *Hacia un acrítica de la razón patriarcal*, Anthropos, Bartzelona, 1985, 299. orria.

---

emakumetzea handitzeaz gain<sup>18</sup>. Nork hartzen du bere gain Estatuak alde batera uzten dituen funtzioen erantzukizuna?

Baina merkatua eta demokrazia bateraezinak badira, horietako zeini egin uko? Argi dago zilegitasunaren zentzua demokraziatik kapitalismora bakarrik joan daitekeela: ustez demokraziarekin zuen loturak ematen zion zilegitasuna merkatuari. Gaur egungo testuinguruan, merkatuak denbora luzez jarraituko al du demokraziaren plantak egiten (intentsitate baxuko demokrazia bada ere)? Edo kalera aterako ditu tankeak?

Globalizazio kapitalistaren eraginez, planeta mugarik eta murrizketarik gabeko eremua bihurtzen ari da kapital-fluxuentzat, eta emakumeak kaltetuenen artean daude horren eraginez sortutako egoera dela eta. Horregatik, feminismoak demokrazia gehiago eta merkatu gutxiago eskatzen duten ahotsen ezinbesteko alderdia izan behar du. Horrez gain, feminismoak demokrazia parlamentarioan nolabaiteko ordezkaritza-defizita zegoela adierazi zuen, emakumeak kanpoan utziz. (Ez dezagun ahaztu, Celia Amorósek murririk esan ohi duen moduan, kuotak gizonen asmatu zituztela... % 100ekoa beren buruei esleitzuz). Horregatik, benetan demokratikoa den demokrazia bat aldarrikatzen dutenen abangoardian egon behar du. Zentzu horretan, erakunde feminista batzuek herritarren partaidetzarako tokiko kontseilu batzuetan izan duten esperientzia nahiko etsigarria izan dela esan behar da. Erakunde publiko batzuek herritarren partaidetza sustatu nahi dutela sinestarazi nahi dute, adieraztea ahalbidetzen duten berdintasun-kontseiluak sortuz, bai, erakundeei... baina garrantzirik gabeko gaiei buruz bakarrik. Benetan aktiboa den tokiko kontseilu batek –nahitaez kritikoa izango da instituzioaren aldetik garatzen diren politika batzuekin– erabaki jakin batzuk eztabaidatuko dituela, udal-baliabideen banaketari buruzko zalantzak

---

(18) Rosa Cobo, "Globalización y nuevas servidumbres de las mujeres". Hemen: C. Amorós eta A. de Miguel, *Teoría feminista: de la Ilustración a la globalización*, III. liburukia, Minerva Argitaletxea, Madril, 2005, 267-300. orriak.

planteatuko dituela... hautematen dutenean (hau da, benetan parte-hartzailea eta ez hartzailea bakarrik), guztia fartsa bat zela jakinarazten da, errealitatea tristea izan arren. Partaidetza bai, baina politika publikoak zalantzan jarri gabe eta agintean dauden politikarien irudia ahuldu gabe... Zer motatako partaidetza da botere publikoek egiten dutena berretsi eta legitimotzat hartu besterik egiten ez duen hori?

5.

## *Antolakuntza demokratikoaren, horizontalaren eta parte-hartzailearen argi-itzalak: “Egiturarik ezaren tirania”*

Gizarte-mugimenduen ekintza kritikoa (gizalegezkoa eta inkonformista aldi berean), demokraziaren defentsa –eta ez merkatuena–, beste mundu bat posible dela behin eta berriz errepikatzea... dakigun moduan, hori guztia zailtasun handien erdian gauzatzen da gaur egun.

Nire ustez guztiz laudagarriak dira mugimendu horiek kritikatzeko dutena ez errepikatzeko egiten dituzten ahaleginak: esaten denaren eta egiten denaren arteko koherentzia mantentzea guztion ongizateaz arduratzen den edonori eskatu dakioken gutxiengoa da. Eta gauzak ongi egiteak horiek egitea esan nahi du, presarik gabe, besteak beste. Azken urteetan, *slow movement* deiturikoak geldotasuna aldarrikatzen duen eta haren apologia egiten duen corpus teoriko eta praktikoa bat garatu du, sortu dugun mundu super-azeleratua kritikatzeko. Haren ideia asko kapitalismoaren alternatiba erradikalenekin lotuta

daude, beherapenaren aldeko mugimenduaren proposamenekin, adibidez. “Mantso goaz, urruti goazelako”, dio 15M mugimenduaren eslogan batek. Deliberazioa eta partaidetza geldoak dira. Susan George andreak duela hilabete batzuk hemen, Bilbon, azaldu zuen moduan, demokrazia geldoa da (zenbat eta demokratikoagoa eta parte-hartzaileagoa izan, orduan eta geldoagoa, gaineratuko nuke nik), baina ekonomia, eta batez ere gaur egun, super azkarra da: kapitalak klik batean mugitzen dira. Nire ustez, puntu honetan lehen arazoarekin egiten dugu topo, eraginkortasuna/zuzentasuna dialektika deitu genezakeenarekin loturik dagoena. Eraginkortasun-maila handiagoak behar ditugu gure ekintzetan, orain lortzen ez duguna denbora askorako galduko baita, betirako ez bada. Emaizak eta eraginkortasuna eskatzea oso problematikoa eta arriskutsua dela kontuan harturik, 15M mugimendua bereizi duten alderdietako bat mahaigaineratu nahiko nuke hura eztabaidatu ahal izateko, nik adierazpenaren hipertrofia deituko nukeena, hain zuzen: bakoitzak iruditzen zaiona idazten duen papelografoa eta iritzi guztiak adierazteko megafono irekia hipertrofia horren adierazle izango lirateke. Gure iritziak adierazten ditugu, bai, baina hori egiten dugun bitartean desjabetu egiten gaituzte, ongizate-egoera mugatua desegiten, gogor lan eginez lortu ditugun eskubideak kentzen. Nola igaro adierazpenetik ekintza eraldatzailerara?<sup>19</sup>

Feministek badakigu zertxobait asanblearismoaren bertute eta arazoenguruz. 70eko hamarkadako feminismoak ahalmen- eta agente-hierarkien mugarik gabeko kritika gaineratzen zuen sistema patriarkala suntsitzeko analisian, eta bertan, politika egiteko modu maskulinoekin eta zapaltzaileekin lotzen ziren horiek. Hark 15M mugimenduaren planteamendu asanblearistak gogorarazten ditu, eta egitura bertikalen ustezko eraginkortasun handiagoa gutxiesten du, horrela, berdintasuna eta horizontaltasuna uko egin ezinezko printzipio bihurtuz, errentagarritasun

---

(19) Mundu guztiak bere iritziak adierazteko aukera izan dezala bermatzeko lehentasuna –ez printzipio gisa bakarrik (baliagarria izaten jarraitzen du), ehunka esku-hartzetan xehetasunez islatutako errealitate gisa baizik– gero autorregulatzen joan den nahitaezko aurrerapausoa izango zen seguru asko.

politikoaren irizpideen menpe jarri ezinezkoa. Autokontzientzia feminista izan zuten lehen taldeak kolektibo horizontalak izan ziren, eta Emakumeen Batzarrek militantzia feministaren panorama bete zuten (Alderdi Feminista asanblearismoaren aldeko kontzeptu orokor horren salbuespen bat izan zen). Hierarkiaren eta autoritatearen aurkako erretorika hori emakume eta talde feminista askotan mantentzen da gaur egun, eta ez akreatik edo anarkistak direnen artean bakarrik. Hierarkien inguruko kritika horrekin lotuta, Jo Freeman andreaken “La tiranía de la falta de estructuras” (egitura ezaren tirania) artikulua ezaguna eta interesgarria mahaigaineratu behar dut. Freemanek argi eta garbi azaltzen du bertan, hierarkiaren aurkako ahalegin horretan, Mugimendu Feministan liderrak gaizki ikusita zeudela. Eta ez hori bakarrik, baita mugimenduko erakundeek inolako egiturarik ez zutela ere. Are zehatzago: horiek ez zuten botere-egitura *formalik*, baina halabeharrez, eta prestakuntza-, esperientzia- eta nortasun-desberdintasunen eraginez, demokratikoki kontrolatzea askoz zailagoak diren beste egitura informal batzuk instalatu ziren mugimendua osatzen zuten emakumeen artean, eta horregatik, hain zuzen, “egitura (formal) ezaren tirania”. Freeman berak dioen moduan eta beste edozein batzarretan, edo besterik gabe, auzo-bilera batean parte hartu duen edonork dakien moduan,

“ez dago egiturarik gabeko taldeak bezalakorik. Arrazoiak arrazoi, pertsona-talde bat denbora-tarte jakin baterako eta helburu batekin biltzen denean, mota bateko edo besteko egitura-motaren bat sortzen da, ezinbestean: hura malgua izan daiteke eta aldatu egin daiteke denbora igaro ahala; beharbada eginkizunak modu zuzenean edo bidegabeki banatzeko balio dezake, baita boterea eta eragina taldeko kideen artean banatzeko ere (...). Talentua, aldeztu aurretiko jarrera eta jatorri desberdinetako gizabanakoak izate hutsak hori ezinbestean gertatzea eragiten du. Harremanetan jartzeari edo elkarri eragiteari uko egiten badiogu bakarrik hurbilduko ginatke egiturarik gabeko talde bati, eta ez da hori, hain zuzen, giza taldeek izan ohi duten jarrera”<sup>20</sup>.

---

(20) Jo Freeman, “La tiranía de la falta de estructuras” eskuragarri hainbat web orritan.

---

Horregatik, ez genuke igualitarismo porrokatu baten defentsa drastikoetan edo ñabardurarik gabeetan galdu beharko, horrek lortzen duen gauza bakarra boterea ezkutuan eta kontrolik gabe gauzatzea baita. Feministek asko hausnartu behar izan dugu emakumeek boterea gauzatzeko orduan izan ditugun zailtasunen inguruan, eta ez da oso foucaultiarra izan behar 'goitik beherako' eskema piramidala askotan sinplista izaten dela aitortzeko eta horizontaltasunaren *mikrofisikak* gaur egun bizi garen botere- eta aginte-sareak askoz hobeto azaltzen dituela ikusteko. *Sororitatea* emakumeen arteko harreman-eredu gisa gaingintzeko zenbait proposamen agertu dira, alternatiba gisa emakumeen autoritatea aitortzen duten beste modu batzuk eskainiz<sup>21</sup>. Ez naiz gehiago luzatuko. Gauza bat bakarrik gaineratu nahiko nioke hasieran adierazi dudan denon artean lan egitearen printzipioari: gure borrokan *ahalmena* lortzeko, beharbada gure mugimenduan *auktoritak* aitortu beharko ditugu lehenengo.

Krisia definitzeko orduan, Espainiako Akademiak eskasiaz, urritasunaz eta egoera zail edo konplexuaz hitz egiten du. Baina baita momentu erabakigarriaz ere.

---

(21) Luisa Posada Kubissa, "Pactos entre mujeres", hemen eskuragarri: [http://www.consortio.org.mx/documentos/pactos\\_mujeres.pdf](http://www.consortio.org.mx/documentos/pactos_mujeres.pdf) [sarrera: 2012/09/29]

---

**MARCELA LAGARDE**

*Itxiera*

*hitzaldia*



---

Askotan esaten duguna errepikatuko dut: dagoeneko ez dakit nondik hasi, duela egun batzuk iritsi ginenean gaur hemen esan behar nuena oso garbi izan arren.

Entzun, sentitu eta pentsatu ahala, guztiz hunkituta geratu nahiz hemen bizitu dugunarekin eta joan den astean landa-izaerako emakumeekin bizitu nuenarekin, joan den astean Andaluzian bizitu nuenarekin, eta honako hitz hauek gogoratzean: **Emakunden sartu berri ziren, eta bilera batean, hitzaldi bat eman nezala eskatu zidaten.**

Feminismoa gure bizitzetan dago, gure bizitzaren zati bat da. Feminismorik gabe beste pertsona batzuk izango ginatekeen, ez ginateke hemen egongo, ez ginateke behin, bi, hiru, lau aldiz elkartuko, ez genukeen batzuek munduaren alde batean asmatu eta gero guk ikasten duguna sustatuko, gero hura hara eramán, handik hona etorri eta hura ekarriko... Feminismorik gabe mundu osoa beste zerbaít izango litzateke.

Feminismoak modernitatea aldatu du. Arriskuaren eta ekonomiaren nahiz finantza-krisiaren gaiarekin datorren horren guztiaren eta hemen dagoenaren inguruan entzuten egon naiz, eta feminismoa modernitatearekiko kritika gisa sortu zela pentsatu dut. Feminismoa, eta guztiontzat esan nahi dut, gauza hauetakoren batean bat etor gaitezén, modernitatearekiko kritika suntsiarazle gisa sortu zen; modernitatea onartu eta modernitateari erradikala izan zedila eskatu zion, hau da, utopia bete zezala, humanistek landutako utopia modernoá, alegia, gehienak gizonezkoak. Modernitateak mundua eraldatu zuen, garatu zen lekuan garatu zela. Batzuetan arma, tanke, bombardaketa, okupazio, kolonialismo eta abarrekin iritsi zen.

Beste batzuetan, aldiz, independentzia-prozesuaren alderdi bat izan da, hau da, herri-subiranotasunaren baieztapen-prozesuaren alderdi bat, edo emantzipazio sozialaren alderdi bat. Modernitateak hainbat aurpegi izan ditu. Baina Mendebaldean modernitatez bete zen feminismo horrek –prozesu moderno bat

---

izateagatik– modernitate patriarkalarekiko kritikarik irmoena egin du eta egiten du, hura baztertzailea delako eta desberdintasun nahiz diskriminazioak sortzen dituelako. Besteak beste, generoari dagokionez.

Izan ere, modernitateak dena denontzat izango zela hitzeman zuen utopia gisa, eta hura modernitatearen urritasun utopiko bat izan zen. Demokrazia ere hitzeman zuen, baina herriaren demokrazia, eta demokrazia moderno horren eraikuntzan ez gintuzten emakumeak gaineratu. Aitzitik, Frantziako Iraultzaren ostean sortutako lehen estatu demokratikoa emakumeen aurkako terrore iraultzailearekin instalatu zen, eta nire ustez oso garrantzitsua da hori aipatzea.

Emakumeen aurkako terrore iraultzaile horrek gillotinara eraman zituen emakume feminista asko, iraultza horretan borroka egin zuten eta iraultzak proposamen osoa barne hartzen zuela uste zuten emakume asko. Emakumeen herritartasuna, gizonen herritartasunarekin batera, hala eta guztiz ere, eta Iraultza izan arren, paradigmatikotzat hartzen zirenak: gizona, subjektu iraultzailea; gizona, estatu berriaren subjektu politikoa. Orduan ere, emakumeak demokraziatik, herribiltzarretik, estatutik, herritartasunetik kanpo utzi izanaren kritika planteatu zuen feminismoak.

Feminismoak zenbait hamarkada behar izan zituen Europan berriz agertzeko, eta gero, lurpeko olatu horien ostean, Ingalaterran sufragismoa agertu zen; gero, beste herrialde batzuetan jarraitu zuen beste izen batzuekin, gaur egunera arte. Ez da mugimendu bakar bat egon, izaera, helburu, zentzu, iraupen... askotako mugimendu feminista ugari baizik.

Feminismoak utopia modernoaren bigarren ardatzaren kritika egin du: garapena. Eredu horixe bera kritikatzan dute gaur egun mundu osoko feministek nahiz beste mugimendu eta kolektibo batzuek; izan ere, sustatu den garapena garapen harrapakaria, suntsitzailea eta baztertzailea dela planteatzen dute horiek, eta eredu baztertzaile horretan, hura emakumeak diskriminatzen dituen

---

demokraziaren ereduarekin artikulatzen da. Utopia hark ideologo, filosofo eta ameslarien bidez hitzeman zuen garapenak –garapena guztiiontzat– garapen- onuretatik kanpo utzi zituen eta uzten gaitu emakumeak, generoa dela eta.

Kausa feministari esker, milioika emakumek –nik neuk, adibidez– garapenaren, hezkuntzaren, enpleguaren, eskubide sozialen eta lan arloko eskubideen onurak eskuratu ahal izan ditugu eta horietan parte hartzeko eskubidea izan dugu, esparru publikoan eta pribatuan berdintasunik ez izan arren, eta erabateko herritartasuna ez izan arren. Baita legegilea izanda ere. Nik ere desberdintasunak jasan behar izan ditut.

Modernitatearen mugak norberaren historian, munduaren norberaren bertsioan, bizitzea tokatu zaion norberaren bizitzan kokatu ditzakegu. Feminismoak emakumeen garapena eskatu zuen eta eskatzen du, eta hamarkada batzuetan, honako termino hau sortu zen: emakumeak garapenean txertatzea. Laster kritikatu genuen, hura nahikoa ez zela esanez, gure nahia garapenean txertatzea bakarrik ez zela esanez... Dagoeneko 20 urte igaro dira feministok benetako arazoa desintegrazioa zela salatu genuenetik, garapena emakumeen kontura gertatzen dela baita benetako modernitatearen alderdirik maltzurrena.

Mundu osoko mugimendu feministek emakumeen garapena eta hura guretzat positiboa izan dadila eskatzen dugu. Bi egun hauetan zehar egin ditugun kritikak alternatiba horretan txertatzen dira. Garapena nahi dugu, baina ez garapen harrapakaria; emakumeak barne hartzen dituen garapena nahi dugu, eta feministak oso alderdi garrantzitsuez arduratzen garenez, bizitza sozialaz, komunitateko bizitzaz eta pertsonen bizitzaz esaterako, giza premiak aseko dituen garapen bat planteatu dugu. Feministek duela hamarkada asko idatzi eta proposatu zuten giza premiak aseko dituen garapena. Moliner-ek, adibidez, *oinarrizko premien* eta *estrategien* gisako kategoriak sortu zituen, eta horiek asko lagundu ziguten gauzak ulertzen.

---

Feminismoa eskualde eta herrialde guztietan sortu eta goratu dute modernitatekanpo geratu diren emakumeek, hau da, modernitatean bizi diren baina haren onurez baliatzeko eskubiderik ez duten emakume premodernoen. Prozesu horietan emakumeak asaldatzaile eta intsumiso gisa hartzen dira, feministok egin ditugun gauza guztiekin gertatu den bezala, baina batzuetan horiek arrakasta izaten dute, eta baliabideak, aukerak eta eskubideak lortzen dira. Aurreko mahainguruko lagunek adierazi duten moduan. Tunisiako adiskideak, adibidez, bozketan parte hartzerik izan ez zuela baina kalean objektatu zutela esan du. Zoragarria da feminismoa modu desberdinetan adierazten dela ikustea.

Aurrerapen-ideiaren kritika ere egin dugu feministok, modernitatearen hirugarren ardatz utopikoa; praktikan, aurrerapena ez da emakumeen aurrerapen gisa hartu, eta emakumeentzat sortu ez den gunetzat hartzen da oraindik ere. Indarrean diren ideologia eta arau batzuek kontserbatzaile izatera behartzen gaituzte, kulturaren eta gizartearen fosilak izatera, alegia. Atzerapena generoaren bertute bihurtzen dute.

Emakume indigenei, esaterako, beren erabilerak eta ohiturak defendatu eta mantendu ditzatela eskatzen zaie, ohituretatik atera ez daitezela, horiek modu negatiboan eragiten badiete ere, argudio gisa horiek beren nortasun etnikoaren oinarriak direla esanez. Horrek fosil kultural bihurtzen direla esan nahi du, etengabe aldatzen den mundu honetan. Aurrerapena ez da emakumeentzat, edo beste nonbait kokatzen da. Gorputzak moldeatu eta besteentzat erakargarri egitea aurrerapen gisa hartzen da adibidez; hala ere, modelatze hori ez da integrala, ez baititu emakumeak pertsona gisa hartzen, gizonezkoen kontsumo erotikorako gorputz-objektu gisa baizik. Milaka modu estetikotan hedatzea da kontua, maila intelektual baxua eta ondoez politikoa izan arren. Hori guztia eskatutako gutxieneko gisa bihurtuta, genero-bertute bihurtuta. Beste jakintza batzuk, ezaguera zientifikoaren aplikazioak eta aurrerapen teknologikoak –teknologia berriak deiturikoak, esaterako– ez daude guretzat xedatuak, gizonei xedaturik baizik, eta sostengu desberdin

---

hori emakume eta gizonen arteko tarte berri batean itzultzen da.

Egun hauetan parte-hartzaile bati baino gehiagori entzun diet gure eskuetan dagoela, jakintzaren gizartean egon nahi dugula, gure egin nahi dugun eremu bat dela, emakumeona alegia, eta eskakizun horrekin jarraituko dugu modernitatearekiko kritikarekin. Emakume “premoderno” horiek argazki eta erakusketa bidez ekarri dizkigute, eta batzuk hemen eserita daude. Gune feministak betetzen ditugun emakume “premoderno” pila bat ikusten ditut. Oraindik ez dugu modernitatea modu positiboan txertatzea lortu, modernitatea pixkanaka gure bizitzetan txertatzea, eta horregatik gara premodernoak.

Emakumeak hori izatea nahi ez dutenek oztopo asko jartzen dizkigute ordea. Modernoak gara aldi berean, modernitatearen zati bat suertatu zaigulako eta utopia moderno hartu eta hura desegiten dugulako, hain zuzen. Erradikaltasuna eskatzen diogu haren androzentrismoa ezabatu eta emakumeak subjektu gisa txertatzeari dagokionez. Hori izan da feministen eginkizuna, eta hori izan zen Virginia Maquieirak lehengo egunean maila intelektualean, politikoan eta filosofikoan eginarazi zigun jardura; hark modernitateko zenbait autore hartu eta horiek esaten dutenaren jabetze teorikoa egin zuen, aldi berean kritika eginez, horien analisiak ez baitu feminismoa barne hartzen.

Metodo hori maisuki erabili zuen Simone de Beauvoir andreak, eta intelektual feminista guztiek aplikatu dute. Garrantzitsua da Simone de Beauvoir beti gure artean izatea. Ez dago gaingiduta, modernitateari bere erronkekin aurre egin zion emakume premoderno bat izan zen eta modernitate horretaz jabetu nahi izan zuen bere eguneroko bizitzan, munduan egoteko moduan eta politikan. Horregatik guztiagatik, emakume moderno kritikoa izan zela esan dezakegu, emakume postmoderno bat. Politika feminista egin zuen munduan eta bere bizitzan. “Bigarren sexua” irakurri behar da XX. mendearen erdialdeko pentsamenduaren abangoardiako epistemologia suntsiarazlea hautemateko, eta Simone de Beauvoir andreak pentsamendu hori nahastu zuen bere esku-

---

hartze berritzailearekin.

Modernitateko errenazentista bat bezalakoa izan zen. Modernitateko pentsalari humanista aurreratuenak hartu eta horien androzentrismoa kritikatzearren jarduera suntsiarazlea egin zuen, gaur egun falogozentrismo deitzen duguna. Horiek kritikatu zituen, jakintza barneratzaile berriak txertatu zituen, eta gero, feministak zerekin geratzen garen esan zigun.

Patriarkal gisa kritikaturako pentsamendu marxistaz jabetu zen, baina hartaz jabetu zen, hau da, ez zuen paradigma zaborretara bota, hartaz jabetu, eraldatu eta gero marxismoa ikuspegi feministatik nolakoa izango zen esan zigun, "Bigarren sexua" izeneko bi liburuki zoragarritan. Garai hartan abangoardiako autorerik aitzindariena izan zen Freud hartu zuen, ia deabruzat jotzen zena, eta haren teoriaren kritika suntsiarazlea egin zuen, baita Edipo konplexuarena, kastrazio-konplexuarena ere, eta honako hau esan zuen: gizon honek pentsamendu patriarkal ikaragarria du, eta emakumeak ez gara hori.

Emakumeak zein ginen, emakumeak zer ginen eta emakumeok zer nahi genuen ikertzen hasi zen. Simone de Beauvoir-ek emakume bat nola defendatu zuen kontatu zigun atzo Wassylak, baita Tunisian egundoko kanpaina egin zuela eta tokiko mugimenduen eta beste indar batzuen bitartez emakume hori kartzelatik ateratzea nola lortu zuen ere... Istorio ugari daude, eta Simone de Beauvoir bere kristalezko dorretxoan zegoen intelektualaren irudia faltsua da. Simone feminista izan zen, bere garaiko mugimenduetan parte hartu zuen eta ezkerreko ikuspegi ideologiko eta politiko batzuk hartu zituen bere gain. Gure artera ekarri nahi dut, genealogia izaten laguntzen baitigu. Hemen emakumeen genealogiez hitz egin da. Bada, Simone de Beauvoir gure genealogia feministaren ezinbesteko alderdia da. Hark bere bizitza bizitu zuen, huts egin zuen, estropezu egin zuen eta koherentziarik gabeko gauzak eta adierazpenezko beste gauza batzuk egin zituen.

Koherentziaren gaia jorratu nahiko nuke, feministei koherenteak izatea eskatzen baitzaigu, eta gutako asko hala izaten saiatzen gara. Bestalde,

---

hainbat baldintza hartu behar dira kontuan: emakume premodernoak gara, eta etengabe aurrezten zaigun modernitate batean bizi gara, inorena ez dela esan arren; subjektu maskulinoa behin eta berriz femininora itzultzen bizi gara; demokraziaren, garapenaren eta aurrerapenaren oinarriak gure gain hartu eta gure txertaketarekin erreformatzen ditugu, modernitatearen ikuspegi paradigmaticoa hankaz gora jarritz. Horrenbestez, postmodernoak gara aldi berean, baina ez munduak diharduen norabide ideologikoan.

Ez. Garai guztietako feministak modernitatearekin kritikoak eta berritzaileak izan garelako gara postmodernoak. Ematen dugun aurrerapauso kritiko bakoitza, hura aktibista, intelektuala, zientifikoa, artistikoa, teorikoa... izanik ere, *post* aurrerapauso bat da, modernitatea desegiten ari garelako, hain zuzen. Guztiz desegiten badugu, paradigma berri bat izango dugu instalatuta munduan. Horrexegatik gara premodernoak, modernoak eta postmodernoak.

Pentsa koherenteak izango bagina, kontraesankorrak izango ez bagina, pentsatzen, sentitzen eta egiten dugunaren artean barne-gatazkarik izango ez bagenu, arrazoibidearen eta praktikaren artean gatazkarik izango ez bagenu. Horretaz ere hitz egin nahi dut: feminismoak begietara begiratzea esan nahi du, hau da, gure bizitzetan arakatzea, aldatzeko prest egotea, gauza ausartak egiten ausartzea, baita behatzea, errepikatzea eta lehengoek egiten zuten gauza bera egitea ere, premodernoak eta modernoak eta gero postmodernoak izatea, baita haren performance-a egitea ere.

Hori guztia izendatzeko, gaur oparitzen dizuedan termino antropologiko bat erabili dut, zuek ere erabili dezazuen. Ez da nortasun bat, pertsona horien definizioa baizik, hemen gauden guztiak nahiz etorri ez diren guztiak definitzen dituen, Alaskan, Patagonian nahiz Norvegian daudenak, garaikide guztiak sinkretikoak baikara. Bakoitza premodernitatearen nahasketa bat da, norberaren arabera, norberaren genealogiaren, biografiaren, herrialdearen, migrazioen eta nahi den guztiaren arabera, modernoak eta postmodernoak,

---

generoarenak, horixe da gakoa. Gutako bakoitzak historia pilatu hori dugu gure barnean, eta beraz, historiak izugarri definitzen gaitu, berrikuntzak definitzen gaituen modu berean.

Ez dago gatazkarik gabeko feministarik. Tai ji, yoga, *om,om,om* egin dezakezu, edozein esperientzia alternatibo espiritual, intelektual, fisiko, musika entzun, eta bat-batean, pixka bat lasaitzen zara. Denok, denok egiten dugu denboraren gehiegizko erabilera, eta ez modu librean aukeratzen dugulako, gure ahaleginen gainean jarritako modernitatearen ereduak eraginda baizik; lana, arreta, zaintzak, kultura-erreprodukzioa, kulturaren eraldaketa... Gainera, moderno-modernoak, feministak, militanteak eta aktibistak garenez, gutako askok jardunaldi bikoitzak izaten ditugu, eginkizun batzuei dagokienez bakarrik bada ere, etxera itzultzean, edo noizean behin. Aldagaiak amaigabeak dira.

Feministek jardunaldi bikoitzak eta hirukoitzak izaten ditugu, gure iritziak adierazten ditugu, aktibistak gara, batzuk modu batera eta beste batzuk beste batera. Denok egiten dugu politika, modu horietara edo beste batzuetara. Feminista guztiak gara erradikalak, guztiak, feminismoak erradikaltasuna eskatzen baitio modernitateari. Gu gara ate joka gabiltzanak, eta gaur gobernatzen dutenek genero-ikuspegia kontuan hartzen duen gobernantza sustatzen dute erakundeetan. Gayle Rubin andreaki egotzitako hitz hori, generoa, debekatuta egon zen 70eko hamarkadan, krisetekin lotua Pekingo konferentzian. Duela oso gutxi, debekatuta egon zen fundamentalisten aldetik; halere, eta horiek aurkako politika egin arren, gehien aurrera egin dugun herrialdeetan generoaren ikuspegia mugimendu zibilen parte izan dadila lortu dugu, baita gobernu-politika bat izan dadila ere, batzuetan Estatuarena berarena, eta beste batzuetan lege bidez islatua bakarrik, baina hitz horiek bitzta sozialera eta kulturalera hedatzea gustatuko litzaidake. Beste herrialde batzuetan, generoaren ikuspegia –genero-desberdintasunak ahalmen-harreman gisa aztertzen dituen– erakundeetan hura sustatzeko xedea duten hitzaldi feministetan bakarrik dago presente.

---

Mexiko bezain herrialde kontraesankorretan –abangoardiako legeak daude, errealitatean izugarritzko diskriminazioa eta indarkeria izan arren–, Mexikon egin genuen Legea, emakumeen giza eskubideen aldeko lege esanguratsu bat izateaz gain, niretzat olerki bat bezalakoa dela esaten dut batzuetan, nire bizitzan irakurri eta idatzi dudan olerki politenatariko bat baita, beste lankide batzuekin batera idatzi nuena. Pertsona batzuek honako hau esaten didate, Espainian esaten duten moduan: legeak izan arren, oraindik ere emakumeak hiltzen jarraitzen dute. Baina ez, Mexikon orain emakume gehiago hiltzen dituzte, nire herrialdean gobernatzeko modu patriarkal eta bortitzak –orain arte gobernatu dutenen aldetik– ikaragarritzko indarkeria eragin baitu armadako, poliziako, mafietako nahiz kartzeletako gizonen artean, denak aurrez aurre ipiniz, eta gainera, emakumeen aurkako indarkeria aplikatuz.

Orain gehiago hiltzen dituzte. Bai, legeak ez dira nahikoak, baina legerik gabe ez dugu beste modu bat ikusarazteko gaitasunik, eta beraz, indarkeria horri aurrea hartzeko, hura zigortzeko eta errotik erazteko gaitasunik. Legeek gauzak nola egin jasotzen dute. Feministek onartu edo sustatu ditugun lege guztiak –lege nazionalak, nazioarteko dokumentu lotesleak eta abar– poltsan eraman beharko genituzke metroan edo autobusean irakurtzeko eta, triste gaudenean, bertan jasotzen diren gauza zoragarriak irakurtzeko; izan ere, horiek idazteko moduak, diskriminazioak eta indarkeriak identifikatzeko ezohiko buru-argitasunak, eta horiei izena jartzeko moduak erabat liluratuta uzten gaituzte. Horrela, emakumeek gizarte-elkarbizitza lortu ahal izateko zenbat mobilizatu behar izan diren ikusiko duzu.

Guk, hau da, kaleko aktibistek, unibertsitateko emakumeek, gobernatzen duten emakumeek, *tutti mundi*, izena jarri diegu gure grinei, nahikoa da! esan behar izan diogun guztiari, eta hori guztia protokolo, plan eta programetan islatu dugu. Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta eskaintzeko protokoloa... Hori ere lortu dugu, hau da, sistema patriarkalak gure bizitzetan eragiten dituen hondamenak konpontzea ahalbidetzen duten gauza zoragarriak. Eta

---

ez sistema patriarkalak, sistema neo patriarkal kapitalistak edo hari jarri nahi diogun guztiak bakarrik. Kalte horiek sortu daitezela saihestu behar dugu.

Emakume premoderno, moderno eta postmodernoek hori guztia egin dugu, emakumeen nahiak legetan islatu daitezela lortu dugu, baina sistemaren pitzaduretan oinarritu behar izan dugu horretarako. Pitzadurak egin dizkiogu estatu patriarkalaren puska bati; horixe, pitzadurak besterik ez, zer esango dizuet, dagoeneko bi mende baino gehiago iragan badira ere, hau hasiera besterik ez baita. Sistema patriarkala desegiten ari dela islatzen duten hastapen historikoak dira, eta puntu honetan, bi gauza esango ditut: gauza bat suntsitzea da, modernitatearen kasuan egiten dugun bezala, paradigma berregin eta beste bat sortzen dugulako, eta beste bat, sistema patriarkal horrekin zer egin. Sistema patriarkala ez da *desegin* behar, *ezabatu* baizik, CEDAW Emakumeen aurkako Diskriminazio Mota guztiak Ezabatzeko Konbentzioak adierazi duen moduan.

Aditz sendoa ezabatu da, eta ez murriztu. Hor dugu Victoria Sau andreak planteatu duen eta sarean hedatzen ari den deialdia, oraindik oso sinadura gutxi bildu dituen; haren bidez, sistema patriarkala pertsonen giza eskubideen aurkako eraso gisa salatzen duen aitortpen bat egin dezala eskatzen zaio Nazio Batuen Erakundeari. Hura ezabatzea da helburua, eta ez desegitea. Belém do Pará-ko konbentzioak dioten moduan, emakumeen eta nesken aurkako indarkeria-mota eta -eredu guztiak *erazi* behar dira.

Nik bi aukeratu nituen. Gaur asko aipatu dituzue eta hori ez zait bidezkoa iruditzen, baina hori herenegun gertatu zen, eta dagoeneko indarkeriarekin amaitu nahi dugu, emakume gehiago hil ez ditzatela, lege bat onartu dugulako. Ez, lege horiek ongi irakurri behar dira, horietan behar bezala planteatzen baita estatua, erakundeak eta kultura nola aldatu, genero-ikuspegian prestakuntza espezializatua egon behar duela... Gaur egun gobernatzen duten emakumeek adierazleak, planak, programak eta ebaluazioak dituzte eskura.

---

Mugimendu zibiletan gaudenok proposamenak, ekimenak eta kanpainak egiten ditugu, kanpainaz kanpaina ibiltzen gara munduan zehar, eta nik hemengo emakumeen munduko martxara gehitu nahiko nuke.

Mexikon bi gauza gertatu dira azken urteetan: batetik, altxamendu zapatista erdi-erromantiko bat izan dugu, indigenen aldetik batez ere, hura indigenista ez izan arren, eta bestetik, mugimendu feministek feminizidioa kokatzea eta ikusaraztea lortu dugu. Feminizidioa emakumeen aurkako gorroto-krimenetan oinarritzen da, emakumeen aurkako indarkeriaren izebergaren muturra, eta horiek genero-indarkeriaren eraginez gertatzen dira, baita adinaren, eskaletasunaren, legaltasun-baldintzaren, migrazio edo sustraitzearen, osasun-marjinazioaren, gaitasun desberdinak dituzten emakumeekiko diskriminazioaren, sexu- eta genero-diskriminazioaren, eta politikari, giza eskubideen defendatzaile edo komunikatzaile emakumeenganako indarkeria politikoaren eraginez ere. Feminizidioaren kategoria oso konplexua da. Ez da hitz bat gehiago, teoria politiko feminista bat baizik, oso ekarpen garrantzitsua, emakume eta nesken aurkako indarkeriari buruzko generoaren ikuspegi politikoaren berrikuntza bat.

Hori gertatu berri zen, eta hedabideetan zegoen dagoeneko. Gure legea idazten ari ginen, eta orduan, Emakumeen Mundu Martxa iritsi zen Mexikora. Erdialdeko Amerikatik sartu eta Chiapasen gelditu zen zapatistak agurtzeko, eta horren ostean, aurrera jarraitu zuen Ciudad Juárez hirira iritsi arte. Eta badakizue zer egin genuen? Mugan, arma-trafikoa, emakume-trafikoa, dolar-trafikoa eta Estatu Batuetatik Mexikora trafikatzeko den guztia gertatzen den garritan jarri eta bertan geratu ginen Mexikoko emakumeak. Emakumeek gizatasunari idatzitako eskutitza eraman genuen hara, emakume aktibista feministek idatzitako beste olerki zoragarri bat, haren bidez zer nahi dugun eskatzen baitiogu gizatasunari; esan bezala, hura hara eraman genuen, Sevillako marea morean bezala (manta more batzuk eraman ziren manifestaziora), eta horrela, emakumeek gizatasunari idatzitako eskutitza eraman genuen.

---

Bihurrikeria-, erresistentzia- eta subertsio-ekitaldi batean, muga igaro genuen mundu patriarkala nahasteko, baina bihurrikeria-, erresistentzia- eta subertsio-ekintza hori egin behar izan genuen. Bestela, ez ditugu gauzak aldatzen, baina horrela, feminista estatubatuarrei eta bertan dauden feminista latinoamerikarrei helarazi genien gure gutuna. Herritarrak gara politika nahiz beste hainbat gauza egiteko oinarria. Munduko Martxa hori oso gogoangarria izan zen, eta feminista horiek beste herrialde batzuei helarazi zieten gero gutuna. Hori egiten dugu feministok. Alternatiba gauzatzen dugu, eta gainera, asko gustatzen zait alaiak garela esatea, hau da, horrenbeste gauza beldurgarriren artean alaiak eta hedonistak garela esatea, ezin hobeto pasatzen baitugu horrelako gauzak egiten.

Gauza onak eta bizitza erosoak gustatzen zaizkigu, osasuna gustatzen zaigu, hortzak izatea gustatzen zaigu... Denok dituzue hortzak? Denok? Piezaren bat falta zaizue? Baten bat zulatuta duzue? Altxatu dezala eskua hurrengo astean dentistarena joan behar duenak, altxatu dezala eskua. Genero-ikuspegia barne hartzen duen giza garapenaren adierazle bat delako diot.

Hori emakumeen gorputzetan neurtzen dugu: hortzak ditugun, betaurrekoak ditugun, mamografia gora, bestea behera... Hori guztia feministek eraikitako zerbait da, XX. mendean batik bat, eta gurekin dakartzagu, munduko emakume guztiek hortzak izan ditzatela nahi baitugu.

Hiru edo lau gauzatxo, bestela dena nahi baitugu. Hortzak izatea oso sinbolikoa da... Lan egin duten, sukaldean aritu diren, barazkiak, zainzuriak, hau eta bestea erosi duten emakume askori, mundu osoarentzat janariak prestatu eta zahartzean, genero-ikuspegia duten sendagile eta nutrizionistek adierazten duten zerbait gertatzen baitzaie: desnutrizioa jasaten dutela ez jateagatik. Bi arrazoik eragiten dute egoera hori: hortzik ez dutelako eta hortzoiek min egiten dietelako uzten diote jateari; gainera, ez dute gehiago ibili eta

---

beraientzat bakarrik janaria prestatu nahi, eta horregatik, edozer gauza jaten dute, desnutrizioa sortuz. Hortzak genero-ikuspegia barne hartzen duen giza garapenaren gakoetako bat dira.

Betaurrekoak? Eta behar ditugun gauza bioniko guztiak, teknologia guztia, gure gorputzei eta bizitzeari aplikatutako aurrerapena, betiere osasunean oinarrituta, eta ez aldaratu ezinezko erasoetan.

Liburu bat gogorarazi nahiko nuke, XXI. mende honetan liburuak eskuratzeko aukerarik ez duten, eta beraz, irakurri ezin duten milioika emakume guztiengatik. Liburuak desagertu egingo direla esaten digute eta milioika emakumek ez dute liburuak eskuratzeko aukerarik izan; nahiago nuke taulatxo bioniko horiek izango balituzte horien bidez irakurri ahal izateko! Liburu bat une egokian, eta hobe liburu feminista bat bada... Nik Simone de Beauvoir aukeratuko nuke, edo konbentzioetako bat, herrialde horretan egin zena edo beste batzuek duten eta guk oraindik lortu ez dugun legea. Egokia litzateke, halaber, ordenagailu pertsonal bat izatea, edo paper bat, koaderno bat, lapitz bat, idatzi ahal izateko edozein bitarteko, idazketak subjektibotasuna eraldatzen baitu.

Emakumeek eskubideak ditugu, eta ez indarkeriarik gabe bizitzeko eskubidea bakarrik –nahiago nuke hala balitz–, baita pobreziarik gabe eta eragozpenik gabe bizitzeko eskubidea ere! Baina, batik bat, bizitzeko eta pentsatzeko eskubidea dugu, Hanna Arendt-ek eta feministok diogun moduan; hori ez da egunero adimentsu izatea, mundu osoko milioika emakumeren kasuan bezala, bizitzari hobeto aurre egiteko bakoitzak egin behar duena garbi izatea eta norberarena den zerbait dagoela sentitzea baizik, eta norberaren zerbait hori feminismoan dago.

Era berean, modu sinbolikoan eskatuko dut, adinaren arabera baita, honako hau eskatzen dugu: pilula behar den unean eskaintzea, aurrekoa nahiz biharamunekoa, baita kondoia, UBG eta lantzen joan garen kit osoa

---

ere, izugarri kostatu baitzaigu hura osasun-sistemetan txertatzea, emakumeok munduan bizitzeko moduaren eta erabakitzeko eskubidearen alderdia den neurrian. Kit hori momentu egokian eskaini dadila. Herrialde askotan, baita Europan ere, hura lehen haurdunaldiaren ostean instalatu da, Latinoamerikan batez ere. Normalean, emakumeek lehen haurdunaldiaren ostean izaten dute eskura sexu- eta ugalketa-osasuna, askotan, oraindik neska gazteak izan arren. Mexikoko datuak emango dizkizuet, nik ez baitut Espainiako egoera ezagutzen. Mexikon 110 milioi pertsona bizi gara, erdiak emakumeak. Urtean milioi bat haurdunaldi izaten ditugu, erdiak oso neska gazteen aldetik, eta hori XXI. mendean, herrialde osoan osasun-sistema nazional bat izan arren.

Arazoa ez da klinika-gabezia, sendagile-gabezia, langile-gabezia. Arazoa Vatikanoa da; guk ere baditugu gure fundamentalistak, ezta? Vatikanook emakumeen giza eskubideen aurkako mundu-kanpaina fundamentalista bat du esku artean, eta horrek eragin handia izan du Mexikon, adibidez.

Uneoro kontrazepzioekin, abortuarekin... gora eta behera dabilen joera kontserbatzaile bat nagusitzen da. Nire hirian emakumeentzako abortu librea lortu genuen, emakumeen adina dena dela, haurdunaldiaren lehen hamabi asteetan. Nire hirian 19 milioi pertsona bizi gara, erdiak emakumeak, eta eskubide hori onartu zenetik bi urteko epean 130.000 emakumek jo dute osasun publikora haurdunaldiaren lehen 12 asteetan abortua egitera, arretaz-erbitzu onenera –denek xeheki ikusten dute hura, hutsegiteren bat ote dagoen ikusteko–.

Horietatik 87.000k abortatzea erabaki zuten, eta gainerakoek haurdunaldiarekin jarraitu zuten, behar bezala zaindutako sexualitate-programen bitartez. Vatikanoa izugarri haserretu zen, eta are gehiago eskuineko alderdiak. Eta beste herrialde batzuetan egiten dutena egin zuten. Kontuz, hor datoz eta! Horrela, emakumeen giza eskubideen aurkako legeak egin zituzten 18 toki-konstituziotan, hori etetea lortu arte. Duela urtebetetik ez ditu lege gehiago egin, baina oraindik

---

ere abortatzen duten emakumeak kriminalizatzen dituzten Mexikoko 18 lekutan eman zituen legeak; horietan, emakume asko kartzelan daude abortatzeagatik eta hori emakumeen giza eskubideen aurkako krimen bat da.

Feminismoak atzerapen eta galera-garaien aurka egiten du; askotan eskubideak galtzen ditugu, ez da lehen aldia, baina gero berreskuratu eta hobetu egiten ditugu, gero eta gehiago aurrera egiten dugulako, eskaileran beste mailatxo bat igotzea lortuz.

Ekar dezagun azken mendea gure artera, sentitu gaitezen guzti honen parte, pitzadura handia egin baitiugu sistema patriarkalari, eta horrexegatik da erantzuna horren indartsua; gure erantzunak sendoa izan behar du, emakume bakoitza bere giza eskubideen jabe sentitu dadila, emakume bakoitza bere herritartasunaren jabe sentitu dadila, eta hori nola egiten dugun ikus dezagula, egin ditzagun itunak eta agenda, emakumeok agenda global bat baitugu, ez dugu hura asmatu egin dugunik esango. Ez dugu gure gorputzen eta gure askatasunen jabe garela asmatuko, ez dugu erakundeak nahastu eta sortu ditugun eta berdintasuna sustatzen duten erakundeak indartu nahi ditugula asmatuko.

Feminismoa emakume antolatuek modernitateari egin dioten ekarpen garrantzitsuena dela pentsatzen dut, zibilizazioan oinarritzen den ekarpena. Emakumeek egin dugun ekarpenik garrantzitsuena.

Pekinen emakumeon ekarpenak ikusgai egiteko eskatu zitzaigun, eta orduan, emakumeek egiten dituzten hestekiak eta brodatuak erakusten hasi ginen, hau da, etengabe ahazten zaizkigun emakumeen ezagutzak erakusten, kritikoa denaren kritika egiten dugulako. Horixe da feminismoa. Mota honetako topaketetan ezinbestekoa da feminismoaren ahalduntzea guk geuk osatzea. Eman diezaiogun ahalmena feminismoari, feminismoak eraiki duenari, haren erakundeei, politika feministei, eta eraiki dezagun gure artean aitorpenean

---

oinarritutako kultura bat eta orain arte egin dugun guztia eta egiten jarraituko dugun guztiaren aitopen historikoa aitortuko duen kultura bat. Ziur nago gauza asko egiten jarraituko dugula, urritasun-urteetan ere, hau da, zailtasun-garaietan, guk ikuspegi positiboa izaten jarraitzen baitugu, gero arrazoiazen pesimismoa etorri arren; pesimismo hori ez da txarra, baina bihotzeko optimismoarekin apaindu behar dugu.

Emakumeen bizitzaren eta askatasunaren alde! Eskerrik asko.

---

**ARANTXA ELIZONDO**

**Emakundeko idazkari  
nagusia (2009-2012)**

*Konklusioak*



---

2012ko urriaren 17an, 18an eta 19an, Bilboko Euskalduna Jauregian, Emakundek egin zuen Berdintasun politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarraren hiru saioetara 400 pertsona baino gehiago bertaratu dira. Lan biziko hiru egun horien amaieran, Emakundeko idazkari nagusiak hitza hartu du, eta biltzarraren ondorioztat har ditzakegun kopuru, hitz eta esaldi batzuk esan ditu, labur.

**KOPURUAK:** Elizondok nabarmendu zuen bezala, 3 egun horietan, 35 lagunek egin dute lan logistika antolatzen; 407 pertsona bertaratu dira; 17 hizlari izan dira 4 osoko bileretan; 4 moderatzaile, mahai inguruetan; 2 hitzaldi eman dituzte; 66 komunikazio, 4 paneletan; eta 4 koordinatzaile aritu dira gaikako saioetan.

**HITZAK:** Biltzarrean parte hartu duten hizlarien ahotan behin eta berriz errepikatu diren hitzetako batzuk hauek izan dira: krisia, sinergia, sareak, aliantzak, adostasunak, agenda, mugimendua, feminismoa, legeak, arauak, arriskua, beldurra, indarkeria, patriarkatua, misoginia, erantzunkidetasun kolektiboa, laikotasuna, fundamentalismoa, demokrazia kosmopolita, solidaritate kosmopolita, zaintzak, ongi bizitzea, bizitzaren iraunkortasuna.

**PARTE HARTZAILEAK:** Biltzarrean pertsona ezagun ugari egon da: erakundeetako ordezkariak, hainbat eremutako administrazioetako arduradun eta teknikariak, unibertsitateko irakasleak eta aktibista feministak, Asiatik, Ipar Amerikatik, Hego Amerikatik, Afrikatik eta Europatik etorritakoak. Hauek dira esaldi edo ideia nagusietako batzuk

**VIRGINIA MAQUIEIRA,** Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Gizarte Antropologiako irakasle titularra.

Genero berdintasunaz eta arrisku gizarteaz hitz egin zigun. Desberdintasuna da patriarkatuaren oinarria, eta horrek emakumeentzako arrisku endemikoak dakartza. Legitimitate moralak, arauzkoa eta politikoa daukagu, emakumeen

---

giza eskubideen alde borrokatzeko.

Oro har esan daiteke, analisi eta ikerketetan, genero itsutasuna ohiko izendatzaile dela; horrela, bada, ikusezin geratzen da emakumeek gaur egungo gizartearen dinamikan duten esperientzia, bai eta feminismoak genero sistemen analisiari, botere eta desberdintasun sistema gisa, egiten dizkion etorri teoriko eta politikoko ekarpenak ere.

**AMAIA PÉREZ OROZCO**, ekonomialari feminista, Nazioarteko Ekonomia eta Garapeneko doktorea Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Bizitzaren euskarri pertsonen behar materialak eta afektiboak direla esan zigun. Sistema sozioekonomikoa eraiki behar dugu, zaintzak ardatz direla, esan zigun. Zera galdetu zigun: zer da ondo bizitzea? Zein da bizitzea merezi duen bizitza?

«Krisi hau ezin da ebatzi garapen eredu hegemonikoan; beraz, bi galdera egin behar dizkiogu geure buruari. Zein da bizitzea merezi duen bizitza? Nola antolatu behar dugu, horretarako baldintzak ezartzeko erantzukizuna kolektiboan hartzeko?»

**GLORIA BONDER**, FLACSO-Argentinako Genero, Gizarte eta Politiken Arloko zuzendaria.

Teknologia berrien erabileraren eta horien analisisien gainean hitz egin zigun. Interneten nago, adierazi egiten dut, baina, entzuten al didate?

Erakutsi egiten dut, baina, partekatzen al dut?

Galdetu egiten dut? Eta proposatu? Ezer berririk sortzen al dut?

---

Eta, batez ere, IKTen potentzialak geldiarazi beharrean, mugiarazteko eskatu zuen.

**WASSYLA TAMZALI**, feminista aljeriarra, idazlea eta UNESCO erakundeko Emakumeen Eskubideetarako zuzendari ohia.

Iraultza arabiarrez eta solidaritate kosmopolitaz hitz egin zigun. Liberazioa eraikuntza bat da, abentura bat; nor garen jakiteko eta edozer izan gaitzkeela jakiteko ahalmena.

«Gure kabuz ezin dugu libre izan. Sareak osatu behar ditugu».

**CHRISTINE EPOLUKE**, Emakume Ministro eta Parlamentarioen Sareko (RDC) lehen Lehendakariordea.

Demokraziaren eta berdintasunaren arteko lotura nabarmendu zuen. Legeen beharraz hitz egin zuen. Egiten duten guztian mugak dauzkaten emakumeak, gizartearen eta kulturaren ikuskeraren arabera «izan behar dutena» eta «egin behar dutena» epaiaren bidez kontrolatuak.

**KATE LAPPIN**, Asia Pacific Forum on Women, Law and Development (APWLD) erakundeko lurralde-koordinatzailea.

*What do you want?* galdetu eta erantzuna: Baliabideetara jo ahal izatea, lan duina, bakea eta ahotsa, hau da, erabakiak hartzen parte hartu ahal izatea.

**LORENA GUADALUPE PEÑA**, El Salvadorreko Batzar Legegileko diputatua.

Ezker-eskuin aliantza kasu baten adibidea azaldu zigun, baterako lanarena, emakumeen arteko agenda adostuarena. «Feminismoa primeran etorri zitzaidan itzaropena edukitzen jarraitu ahal izateko».

---

**ROXANA DELGADO**, NBE Emakumeak erakundeko koordinatzailea El Salvadorren, baita «Hiri seguruak emakumeentzat» programarena ere.

Emakumeen arteko konplizitateaz eta emakumeen mugimendu nekaziazinagatik ez balitz ezinezko izango liratekeen programez hitz egin zuen.

**PAOLA VILLA**, Trentoko Unibertsitateko (Italia) Ekonomiako irakaslea.

Berdintasuna EBko oinarrizko printzipio gisa eta bi helburuz hitz egin zuen: berdintasuna justizia sozial gisa eta berdintasuna eraginkortasun ekonomikorako tresna gisa.

Zera galdetu zuen: Aldatu al du krisiak EBren agenda? Bai, albo batera utzi du.

**MARÍA BUSTELO**, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Politika Publikoen irakaslea.

Berdintasuna Europan: ikuspegi integratzaileagorantz.

Interseksionalitatea: kontuan hartu behar da, desberdintasunak ez ezik, horien arteko elkarreagina ere.

Eta nabarmendu zuen, alde guztietarako «neurri bakarrak» sektoreen arteko lehia sustatzen duela.

**ROSA ESCAPA**, CELEM-Emakumeen Europako lobbyrako Espainiako Koordinakundearen presidentea.

Formula klasikoa: feminismoaren hiru hanka; belusezko hirukia (Busteloren hitzetan), emakumeen mugimendua, feminismo akademikoa, feminismo instituzionala. Hemen gaude guztiok.

---

**JOSÉ ÁNGEL LOZOYA GÓMEZ**, Berdintasunaren aldeko Gizonen Foroko kidea.

Gizonek balia ditzaketen estrategiez aritu zen. Aurretik emakumeen mugimendua aldarrikatzeko solidaritatean oinarritzen ziren. Orain agenda propioa daukate.

**SHAMS ABDI**, Tunisiako Emakumeen Nazioarteko Martxa.

«Feminismoa ez dago alderdi politiko zehatz baten kontra; sistema politiko, ekonomiko eta sozial baten kontra baizik».

**TERESA MALDONADO**, Filosofiako irakaslea eta FeministAlde erakundeko feminista aktibista.

«Uste genuen demokrazia eta merkatua bateragarriak zirela, baina aurkakoa egiaztatu da».

**MARCELA LAGARDE**, antropologo feminista eta NBE Emakumeak erakundearen aholkularia.

«Feminismoa da emakumeek modernitateari egin diezaioketen ekarpenik garrantzitsuena. Eta ekarpen zibilizatzailea da».

«Lege hutsak ez dira nahikoak, baina legerik gabe ez dugu aukerarik ikustatzeko mundu hau beste modu batera».

«Emakumeak premodernoak gara; izan ere, ez dugu lortu modernitatea gure bizitzetan sartzea, emakumeak modernitatearen zati izatea nahi ez dutenek oztupo asko jartzen dituztelako. Eta postmodernoak ere bagara, modernitatearen kritikoak garelako. Ematen dugun urrats bakoitza post urratsa da, modernitatea deseraikitzen ari garelako».

## SAIOETAKO IDEIAK

**Raquel Raposo**, Emakundeko programen eta prestakuntzaren arloko arduraduna.

### 1. panela: Gobernantza

- Gobernamenturako aurrerabidea ez da posible genero ikuspegia prozesu politikoetan benetan sartu ezean.
- Berdintasun helburuak mugatzeko, datuak sexuaren arabera bereizteko, emakume eta gizonengan duen eragina neurtzeko eta ebaluatzeko ematen diren urrats guztiek gobernantzan aurrera egiten laguntzen dute.
- Mugimendu feministaren presio soziala funtsezkoa da mainstreamingerako tresnak aplikatzeko

**Carmen Díez Mintegui**, Antropologoa eta EHUko irakaslea.

### 2. panela: Ahalduntzea eta balioak aldatzea

- Panel honek 25 komunikazio baino gehiago izan ditu, eta, horietatik, 10 zuzenean entzun ditugu. Parte hartze politikoarekin lotutako gaiak izan dira; ariketa fisikoaren eta kirolaren inguruko arazoak, batez ere neskato eta gazteengan; baliabide ekonomikoen eskuragarritasun berezita; edo babes politikoa eskatzen duten emakumeen lege eta eraikuntza mediatikoa.
- Eztabaida interesgarria egon da, eta zera ondorioztatu da: ahalduntze prozesuetan aurrera egiten ari dela ikusten da, baina oraindik asko geratzen da egiteko.

**Raquel Royo**, Soziologiako doktorea eta Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterreko zuzendaria Deustuko Unibertsitatean.

### 3. panela: Gizarte antolaketa erantzunkidea

---

Familian, lanean eta norberaren eremuan mugatzen gaituzten desberdintasun sendoak ezagutu ditugu hurbiletik, baina baita ilusioa pizten duten transformaziorako prozesu indibidual eta kolektiboak ere. Gu geu transformatu behar gara transformatu ahal izateko: berentzako denbora duten emakumeak eta zaintzen duten gizonak. Bizitzaren iraunkortasunak ardatz izan behar du. Hona hemen jakintsu baten hitzak: «Ezin da mundua aldatu inor eragotzi gabe». Beraz, jarrai dezagun ardura hartzen eta eragozten.

**Mariola Serrano**, Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria.

#### 4. panela: Emakumeen aurkako indarkeria

Paneleko ondorioetako batzuk hauek izan ziren:

-Komenigarria izango litzateke Espainiar legedian genero indarkeriari buruz jasotzen den kontzeptua aldatzea eta Nazio Batuetako Emakumearen aurkako Indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpena egokitzea.

-Bake eta segurtasun kontuetan, ez da ahaztu behar emakumea ez dela kategoria unibertsala eta ez dutela esperientzia bera partekatzen. Emakumeak asko gara, ez bakarra.

-Gizonek berdintasunerako duten erantzukizunean eragiteko beharra dugu.

-Uste dugu «patriarka labirintoaren» ereduak lagunduko digula tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeak abusuzko harremanetatik ateratzeko dituzten zailtasunak aztertzen, edo «amodioaren indarraren» zeregina ebaluatzen, amodio erromantikoarekin lotutako mito multzo bezala.

-Mehatxu eta beldurrik gabeko egoera batean, berdintasunak azkarrago egingo luke aurrera denbora eta eremu publikoa betetzeari dagokionez. Horretarako, erakundeen konpromisoa ezinbestekoa da.

#### **BILTZARRAREN ILDO NAGUSIAK:**

- Emakumeen agenda oso antzekoa da leku guztietan

- 
- Emakumeei galdetu behar zaie, ahotsa izan dezatela.
  - Eraiki egin zen eta, orain, babestu eta zaindu egin behar da. (Begoña San Joséren hitzetan: «Ezin dugu feminismoa pilotu automatikoaz gidatu. Koordinatuak aldatzen ari dira»).

Legeak zaindu eta bete egin behar dira.